



EUSKALTZAINDIA

Real Academia de la Lengua Vasca
Académie de la Langue Basque

EUSKARA - GALEGO - CATALÀ - ROMÂNĂ - 汉语 - KICHWA - تیبر علا

EUSKARA - GALIZIERA - KATALANERA - ERRUMANIERA - TXINERA - KITXUA - ARABIERA

VASCO - GALLEG - CATALÁN - RUMANO - CHINO - QUICHLUA - ÁRABE



EUSKO LEGBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO



BERNARD
ETXEPEARE

LINGuae VASCONUM PRIMITiae



LINGVAE VASCONVM PRIMI. tiæ per Dominum Bernardum Dechepare Rectorem sancti michælis veteris.



EUSKALTZAINDIA / REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
EUSKO LEGBILTZARRA / PARLAMENTO VASCO

Liburuaren azalaz - Sobre la portada

Etxepareren lanaren argitaraldi gehienetan 1545eko azalaren irudia kopiatu izan da: Jesu Kristo gurutzean iltzatua, hiltzea. Bainaz liburuak badauka barruan beste irudi bat ere: Haren piztuerarena, herioaren gainean garaile. Berau sinbolo hobea iruditu zaigu euskalarako, agoniaren azken hatsetan ageri den pertsona oinazetua baino.

La mayoría de las ediciones de la obra de Etxepare han repetido la imagen de la portada de 1545: Jesucristo agonizante. Pero el libro lleva también otra ilustración en su interior: la de su resurrección y victoria sobre la muerte. Esta nos parece un símbolo mejor para el euskara, que el de una persona torturada que exhala su último aliento.

LINGuae VASCONUM PRIMITIAE

1545-2013

LINGuae VASCONUM PRIMITIAE

Bernard Etxepare

1545-1995

EUSKALTZAINdia / REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

EUSKO LEGBILTZARRA / PARLAMENTO VASCO

2013

*Liburu hau Eusko Legebiltzarraren eta
Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaaz argitaratu da.*

*Este libro ha sido publicado gracias a la colaboración
del Parlamento Vasco y Euskaltzaindia/Real Academia de la Lengua Vasca.*

ESKERRAK EMATEKO | AGRADECIMIENTO

*B. Etxepareren 1545.eko lehen edizioaren faksimilea,
Bibliothèque Nationale de France-ren kortesiai esker argitaratzen da.*

*El facsímil de la primera edición vasca de la obra de B. Etxepare de 1545,
se publica gracias a la cortesía de la Bibliothèque Nationale de France.*

ITZULTZAILEAK | TRADUCTORES:

Euskarazko testuaren idazkera-egokitzalea: Patxi Altuna

Traductor: Joan Martí i Castell

Tradutor: Manuel González González

Traducător: Delia Mihaela Cristea

译者 :方晓 Fang Xiao

Shimitikrachikkuna: Hilda Chaluisa Cesar Pilataxi pash

مترجمون : الأخوان حوزيف و شعلان الحراس

Hermanos Joseph & Shaalan Hares anaiaik

Koordinatzalea eta edizioaren arduraduna |

Coordinador y encargado de la edición: Xabier Kintana Urtiaga

Maketazioa | Maquetación: Ikeder, S.L.

© EUSKALTZAINDIA/R.A.L.V./A.L.B.

ISBN: 978-84-940717-1-3

L.G. | D.L.: BI-1.709-2013

Aurkezpena | Presentación:

Bakartxo TEJERIA OTERMIN andrea, 11

*Eusko Legebiltzarreko presidente**Presidenta del Parlamento Vasco**Munduko haizea - Viento del mundo*

Andres URRUTIA BADIOLA jauna, 15

*Euskaltzainburua**Presidente de Euskaltzaindia**Etxepare: Euskara, jalgia adi mundura!**Etxepare: ¡Euskara, sal al mundo!*

Hitzaurrea | Prólogo:

Xabier KINTANA URTIAGA 17

*Euskaltzaindiko Idazkaria**Secretario de Euskaltzaindia**Euskarari munduko ate-leihoak zabalduz**Abriendo a la lengua vasca (las) puertas
y ventanas del mundo*

Testua | Texto | Text | Text | 正文 | Kamuyachishka | النص

Euskara Bernard Etxepareren bizitza eta idazlanaz 55

Sobre la vida y obra de Bernard Etxepare 55

Faksimilea 57

Euskaldunen Hizkuntzaren Hasikinak

Gaurko grafiara letraldatua 115

Galego *Primícias da Lingua Vasca* 159

Vida e obra de Etxepare 161

Manuel GONZÁLEZ GONZÁLEZ 209

Catalá *Primícies de la Llengua Basca* 213

Vida i obra d' Etxepare 215

Joan MARTÍ i CASTELL 263

Română *Începuturile limbii bască* 267

Viața și carte de Etxepare 269

Delia Mihaela CRISTEA 317

汉语 巴斯克语的第一成果 321

艾切巴莱 (Etxepare) 的生平及作品 323

方晓 FANG Xiao 373

Kichwa / Runa-shimi: *Waskukunapa sumak kallari shimi* 377

Etxeparepa kawsaymanta rurashkakuna 379

Hilda CHALUISA Cesar PILATAKI pash 427

العربية

النشرة الأولى للغة الباسكية

حياة ومؤلفات اتشباري

ألاخوان جوزيف و شعلان الحارس

476 (1)

474 (3)

432 (45) Hermanos Joseph & Shaalan HARES anaiak

Linguae Vasconum Primitiae

Euskaldunen hizkuntzaren hasikinak
Lehen euskal liburu inprimatua

1545

**Bakartxo TEJERIA OTERMIN**

*Eusko Legebiltzarreko presidente
Presidenta del Parlamento Vasco*

Munduko haizea *Viento del mundo*

Atzinsolas honekin ongi etorria aematen diogu Eusko Legebiltzarra eta Euskaltzaindiak elkarlanean argitaratu dugun Bernat Etxepareren *Linguae vasconum primitiae*-ren bertsio eleanitz berri honi. Izan ere, 2011n, euskarazko lehen liburu inprimatuaren beste bertsio bat plazaratu genuen Legebiltzarra eta euskararen Akademiak, nazioarteko bost hizkuntzatan emanda, eta orduan egin genuen bezala, oraingoan ere Frantziako Liburutegi Nazionalean gordeta dagoen Etxepareren liburuaren faksimile-edizioa sartu dugu eta, horrekin batera, euskarazko testuaren transkripzioa eta munduko sei hizkuntzatarako itzulpena ere: katalanez, galegoz, errumanieraz, arabez, txineraz eta kitxueraz. Erdara horiek munduko mintzairak dira eta gure arteko hizkuntzak ditugu, ez agian *hemen-*

quiero dar la bienvenida, con esta introducción, a la nueva edición plurilingüe del libro *Linguae vasconum primitiae* de Bernat Etxepare que publicamos conjuntamente el Parlamento Vasco y la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia. Al igual que hicimos en 2011 el Parlamento y la Academia con la publicación de la versión en cinco lenguas del primer libro impreso en euskera, también ahora presentamos la edición facsímil del original de la obra de Etxepare, conservada en la Biblioteca Nacional de Francia, y la acompañamos de la transcripción del texto en euskera y de las traducciones en otras seis lenguas del mundo, en este caso, catalán, gallego, rumano, árabe, chino y quichua. Lenguas que, sin ser “de aquí”, viven entre nosotros y lo son de nuestra gente, de las ciudadanas y ciudadanos vascos.

goak baina bai “hemengoenak”, gure jendearenak, euskal herritarrenak alegia.

Linguae vasconum primitiae (“Euskaldunen hizkuntzaren hasikinak”) hasiera izan zen, esperantzaz betetako bidean emandako lehen pausoa, epilogoa latinez Bernat Etxeparek adierazi zuen moduan: *Debole principium melior fortuna sequatur* (Hasiera xume honek duela fortuna hobea). Euskara eta euskal kultura munduko lau haizetara zabaltzeko beharra ikusi zuen Eiheralarreko erretoreak, inprenta garai haietako teknologia berria eta liburu inprimatuak jakinduria eta ezagutzaren hedabide bilakatu zirenean.

Bere denborako gizona izanik, Bernat Etxeparek nahi izan zuen gure hizkuntzak mundu berriak irabaz zitzan eta, inprintaren bitartez, euskara eta euskal kultura munduko plazara atera zedin. Ideia hori behin eta berriz nabarmendu zuen bere liburuan: “*Euskara, jalgi adi kanpora..., jalgi adi plazara..., jalgi adi mundura..., habil mundu guzira..., jalgi adi dantzara...*”, idatzi zuen “Kontrapas” poeman. Are gehiago “Sautrela”n, liburuko azken idatzian: “*Euskara da kanpora eta goazen oro dantzara*” leloarekin burutu nahi izan zuen poema eta liburua bera. Gure hizkuntza dantzan jarri eta munduan izatea, munduari irekia izatea hizpide eta helburu izan zuen Etxeparek, euskaraz inprimatutako lehen liburua argitara eman zuenean, 1545. urtean.

Ia bost mende geroago, planeta auzo bilakatu den honetan, euskara munduan da eta mundua gurean. Eta guk, XXI. mendeko euskaldunok, gure kultura eta hizkuntza zabalik nahi ditugu, Mahatma Gandhik esan zuena betetzea gura: “Ez

Linguae vasconum primitiae (‘Primicias de la lengua vasca’) representaba el inicio, un primer paso pleno de esperanza, como el mismo Etxepare recalcó. *Debole principium melior fortuna sequatur* (“Que este modesto principio tenga más feliz continuación”), escribió a modo de epílogo. El sacerdote rector de Eiheralarre sintió la necesidad de abrir el euskera y la cultura vasca a los cuatro vientos, en un momento en que la imprenta era la nueva tecnología, y los libros impresos se constituían en el medio para difundir el saber y el conocimiento.

Bernat Etxepare fue un hombre de su tiempo que deseó ganar nuevos mundos para la lengua vasca y, por medio de la imprenta, situar al euskera y a la cultura vasca en la plaza global. Una idea que Etxepare quiso subrayar una y otra vez en su obra. Así lo expresó en “Contrapas”, proclamando: “*¡Euskera, sal fuera..., sal a la plaza..., sal al mundo..., camina por todo el mundo..., sal a bailar!*”. Y, por si fuera poco, quiso culminar su libro escribiendo en “Saltarel”: “*Vamos todos a bailar, que el euskera sale a la calle*”. Etxepare quería poner en danza al euskera, tenía como causa situar a nuestra lengua en el mundo y abierta al mundo; con ese explícito fin publicó en 1545 este primer libro en lengua vasca.

Casi cinco siglos después, cuando el planeta se ha convertido en una aldea global, el euskera está en el mundo y el mundo está en nosotros. Ante esta realidad, nosotros, vascos y vascas del siglo XXI, deseamos nuestra lengua y cultura abiertas, de tal modo que se cumpla el deseo de Mahatma Gandhi de “no tener nuestra casa amurallada por todos lados, ni sus ventanas selladas. Yo quiero que las culturas de todo el mundo soplen sobre

dut nire etxea leihoa itxirik eta harresiz inguraturik nahi. Mundu osoko kulturak laratz gainetik lau haizetetatik libre jotzea gura nuke, baina nire laratzeko sua itzali gabe”. Euskal Herria munduko haizea da, Gabriel Arestik era poetikoan idatzi zuen moduan: “*Ifar agirre, haize agirre, hegoi agirre, munduko haize guztien agirrean, agiran. Euskal Herria mundu agirre da*”.

Bernat Etxepareren *Linguae vasconum primitiae* liburuaren argitalpen hau, munduko eta gure artekoak diren katalan, galego, errumaniera, arabiera, txinera eta kitxuerazko bertsioak dituena, joan berri zaigun Baigorriko *haritz* handiari, Jean Haritschelhar zenari, eskaini nahi diogu. Haren izpiritua, Etxeparerena bera, gurekin dugu betiko.

mi hogar, tan libremente como sea posible, pero me niego a ser barrido por ninguna de ellas”. El país del euskera, Euskal Herria, se presenta abierto a todas las corrientes:

“Viento del Norte, aires del viento, viento del Sur; abierta, al descubierto de todos los aires del mundo, a los cuatro vientos. Euskal Herria es viento del mundo”, en poética expresión de Gabriel Aresti.

Queremos dedicar esta edición de *Linguae vasconum primitiae* con las versiones catalana, gallega, rumana, árabe, china y quechua de la obra de Bernat Etxepare a Jean Haritschelhar, el roble -*haritza*- de Baigorri, que se nos ha ido recientemente. Su espíritu, como el de Etxepare, permanecerá con nosotros para siempre.

**Andres URRUTIA BADIOLA**

*Euskaltzainburua
Presidente de Euskaltzaindia*

Etxepare: Euskara, jalgi adi mundura!

Etxepare: ¡Euskara, sal al mundo!

Berriro ere datorkigu gogora Etxeparek ondutako *Linguae Vasconum Primitiae* (1545), euskararen letretan ezagutzen den lehen liburu inprimatua. Aurrekoan bezalaxe, Eusko Legebiltzarrak eta Euskaltzaindiak euren ahaleginak batu dituzte, behinolako liburu gogoangarri hori euskal irakurleei ez ezik, bestelako mintzairak dituztenei ere eskaintzeko, bakoitzak bere hizkuntzan ulertzeko modua izan dezan.

Izan ere, langintza honen bitartez, Eusko Legebiltzarrak eta Euskaltzaindiak ezin hobeto betetzen dute Etxepare berak, duela lau mende eta erdi, azaldu zuen gogoa eta egitekoa: *Euskara, jalgi adi mundura!* Horretarako, bistan da, ezinbesteko eta premiazko laguntza behar izan dute bi erakundeok euskaratik beste hizkuntzetara itzultzeko Etxepareraren bertsoak.

Una vez más, concita nuestra atención el primer libro impreso en euskera, *Linguae Vasconum Primitiae* (1545). Como en una ocasión anterior, el Parlamento Vasco y Euskaltzaindia-Real Academia de la Lengua Vasca han unido sus esfuerzos para que este texto clásico de la literatura vasca esté al alcance no solo de los lectores vascos, sino de otros muchos aquí y a lo largo del mundo, de modo que cada uno de ellos pueda comprenderlo en su propia lengua.

En efecto, por medio de esta colaboración, el Parlamento Vasco y Euskaltzaindia-Real Academia de la Lengua Vasca cumplen aquel deseo que el propio Etxepare, autor del libro, expresó hace cuatro siglos y medio, para que el euskera saliera al mundo, *Euskara, jalgi adi mundura!* Es evidente que para esto ocurra ha sido im-

Hasian hasi, eta aurreko argitaraldian barruratu ziren hizkuntza moldeei (gaztelania, inglesa, francesa, alemana eta italiana) oraingo honetan gehitu zaizkie galegoa eta katalana, euskararekin batera ofizialtasuna dutenak euren lurralteetan eta orobat, Euskal Herrian azken urteetan ageriko diren beste herri batzuen hizkuntzak (errumaniera, txinera, kitxua eta arabiera).

Honetan ere, tartean izan diren itzultziaile eta adituen lana aipatzeko da, horiek osatu baitute halako *glossolalia* edo hizkuntzen dohaina, nork bere mintzairan ulertu ahal ditzan Etxeparereren olerkiak.

Eskertzeoak dira, hortaz, Eusko Legebiltzarrak Euskaltzaindiari eman dion aukera, beste behin ere Etxeparereren testua mundu zabalean hedatzeko eta barreiatzeko. Era berean, eskerrak eman behar zaizkie *Linguae Vasconum Primitiae* liburuaren olerkiak itzuli dituztenei eta *last but not least*, Xabier Kintanaren eginahalak azpimarratu behar dira, Euskaltzaindiaren idazkaria egoki eta artez moldatu baitu euskal klasiko honen argitaraldi berria.

Izan bedi honako hau berebiziko akullua eta oinarria, etorkizunean ere, Eusko Legebiltzarrak eta Euskaltzaindiak Etxeparereren lana goratu eta munduratu dezan, mintzaira ugari eta herri askoren artean.

prescindible la colaboración entre ambas instituciones para verter los versos de Etxepare del euskera a las demás lenguas.

Dicho esto, es necesario precisar que a las lenguas que se incluyeron en la edición anterior (castellano, inglés, francés, alemán e italiano) se han unido ahora el gallego y el catalán, cooficiales en sus respectivos territorios e igualmente las lenguas de pueblos cuya presencia en Euskal Herria se ha acrecentado estos últimos años (rumano, chino, quechua y árabe).

Hay que destacar en esta edición el papel que han jugado los traductores y expertos que han trabajado en cada lengua, para lograr la *glossolalia* o don de lenguas que permite que cada uno de los lectores pueda entender a Etxepare en su propio idioma.

Es de agradecer la oportunidad que el Parlamento Vasco ha concedido a Euskaltzaindia–Real Academia de la Lengua Vasca para que ésta pueda, una vez más, difundir y extender por el mundo el texto de Etxepare y, de igual modo, el trabajo de los traductores y expertos de cada lengua, sin olvidar la labor minuciosa y exacta que ha realizado Xabier Kintana, secretario de Euskaltzaindia–Real Academia de la Lengua Vasca, a la hora de preparar la edición y coordinar los textos y los traductores de cada lengua.

Esperemos que esta edición sea, como la anterior, la base y el estímulo para que en un futuro próximo, el Parlamento Vasco y Euskaltzaindia–Real Academia de la Lengua Vasca continúen el trabajo de difusión de la obra de Etxepare entre los pueblos y las lenguas del mundo.



Xabier KINTANA URTIAGA

*Euskaltzaindiaren idazkaria
Secretario de Euskaltzaindia*

Euskarari munduko ate-leihoaak zabalduz

Abriendo a la lengua vasca las puertas y ventanas del mundo

Liburu honetan aurkezten ditugun Leuskal poemak 1545ean argitaratu ziren Bordelen, moldiztegia asmatu eta ehun urte geroxeago, eta, latinezko izenak berak azpimarratu nahi duenez, berau izan zen euskaraz inprimatu zen lehenbiziko idazlana.

Gurea ez da hedadura handiko herria eta bertoko mintzairak ere ez da jakinene-takoa. Hori dela eta, uste izatekoa da obra hau irakurriko duten pertsona askok es-kertu egingo dutela berari buruzko argibide batzuk eskaintza, ikuspuntu batzuetatik bere garrantzia dauka eta.

Euskara Pirinioen mendebaldean mintzatzen da, Bizkaiko Golkoren inguruan, Espainiako Euskal Autonomia Erkide-

Los poemas que presentamos en este libro se publicaron por vez primera en Burdeos en 1545, esto es, un siglo después de la invención de la imprenta, y, como su propio título latino quiere subrayar, se trata de la primera obra impresa en lengua vasca.

Dado que a pesar de su originalidad, por el limitado número de sus hablantes, el idioma vasco no es de los más conocidos, creo que muchos lectores, especialmente los más distantes de nosotros, agradecerán una información actualizada sobre el mismo.

La lengua vasca o **euskara** se habla principalmente en la zona occidental de los Pirineos, junto al Golfo de Bizkaia, en la

goan eta Nafarroako Foru Erkidegoan, eta Frantziako Pirinio Atlantikoetako Departamenduan. Badira, halaber, euskaldun kolonia batzuk Estatu Batuetan ere, beren jatorrizko mintzaira gordetzen dutenak. Hizkuntzaren izenak, behialako **enausi* ‘hitz egir’ aditzetik eta *-kara* ‘era, modua’ atzizkitik eratua dela dirudi, ‘hitz egiteko era’ esangurarekin. Haren hiztunok geure buruari **euskaldunak** esaten diogu, hots, ‘euskaradunak’, eta bizi garen herrialdearen deitura ere, aurrekoa bezala, hizkuntzaren izenetik sortua da: **Euskal Herria**, hau da, ‘euskararen herria’. Izen guztiok jada XVI. mendean dokumentaturik agertzen zaizkigu.

Euskara euskalki edo dialektotan banaturik dago, baina 1968. urtean hasita, Euskaltzaindia, erdiko euskalkiak oinarri harturik, (nafarrera-gipuzkera-lapurtera) literatur euskara estandar batua arautzen hasi zen, hots, eskuarki **euskara batua** deitua, jendaurreko ekitaldi formaletan gero eta gehiago erabilia.

Azken estatistiken arabera, euskaraz gure egunotan Euskal Herrian 775.000 lagun inguruk hitz egiten dute eta, neurri batean, beste 450.000 pertsona hura ulertu edo hartaz nolabait balizteko gai omen dira. Gaur Euskal Herriko Autonomi Erkidegoan eta Nafarroako eskualde batzuetan euskara hizkuntza ofiziala da, gaztelaniarekin batera, eta administrazio, irakaskuntza eta komunikabideetan era-biltzen da. Frantzian, ordea, ez zaio oraindik ofizialtasunik aitortzen.

Tipologíari begiratzen badiogu, euskara hizkuntza eranskaria da, japoniera, turkiera, suomiera, georgiera, kitxua, aimara eta munduko beste askoren antzekoa.

Comunidad Autónoma Vasca y la Comunidad Foral de Navarra, en España, y en el departamento francés de los Pirineos Atlánticos. También existen en los Estados Unidos algunas comunidades de vascos que mantienen allí su lengua nativa. Al parecer, su nombre procedería del antiguo verbo **enausi* ‘hablar’ y el sufijo *-kara* ‘modo de’; esto es, ‘forma o manera de hablar’. En su propia lengua los vascófonos se llaman **euskaldunak** ‘poseedores del euskara’ o ‘vascófonos’. La denominación histórica tradicional y más antigua del territorio es, en vasco, **Euskal Herria**, que significa ‘país o tierra del euskara’. Todos estos nombres aparecen documentados ya en el siglo XVI.

Durante siglos, la lengua vasca ha estado fragmentada en varios dialectos, pero a partir de 1968, Euskaltzaindia, la Real Academia de la Lengua Vasca, comenzó a impulsar un modelo de euskara literario estándar y unificado, conocido popularmente como **euskara batua**, basado en los dialectos centrales (navarro-gipuzkoano-labortano), y que hoy es mayoritariamente utilizado en situaciones formales.

Según las últimas estadísticas, en el País Vasco hablan euskara unas 775.000 personas, y otras 450.000 lo entienden y son capaces de emplearlo en alguna medida. Hoy el vasco es, con el español, lengua oficial en la Comunidad Autónoma Vasca y en algunas zonas de Navarra, siendo utilizada en la administración, en todos los niveles de la enseñanza y los medios de difusión. Sin embargo, en el Estado francés carece de reconocimiento oficial.

Si nos fijamos en su tipología, el euskara es una lengua aglutinante, del mismo tipo

Deklinabide aberats eta zehatza du, eta kasu berezia duka, ergatiboa, aditz iragankorren subjektua markatzen duena. Oinarritzko ordena sintaktikoa Subjektu-Objektu-Aditza du (SOV), baina ez da horretan oso zurruna, eta perpusean nabarmendu nahi den elementua eskuarki aditzaren aurrean kokatzen da.

Aditz jokatua subjektu, objektu (osagarri zuzenarekin) eta zeharkako osagarria-rekin komunzatzen da, eta hor pertsona bat, bi edo hirurekiko erreferentzia-markek erakuts ditzake.

Euskararen jatorriari buruzko hipotesi ugari plazaratut dira, eta munduko beste hizkuntza askorekin lotura genetikoak ikusi uste zaizkio (iberiera, etruriera, berberiera, georgiera, turkiera...), baina horietako batek ere ez du orain arte erabateko froga sendorik eskaini. Dena den, gaur segurki dakigunaren arabera, duela bi mila urte, errromatarren garaian Akitanian mintzatzen zen hizkuntzaren lekukotasunak azterturik, esan dezakegu akitaniera hura oraingo euskararen antzinako forma besterik ez zela.

Gaur uste denez, egungo euskara Europa zaharrean mintzatzen ziren hizkuntzetako baten ondorengoa da, eta gaur haietarik bizirik diraue ondorengo bakarra, hain zuzen. Izan, orain zazpi mila urte inguru Ekiade Hurbiletiak (Itsaso Beltzaren aldetik) gure kontinentera etorri ziren abeltzain eta nekazari indoeuroparrak baino lehenagokoa da. Hortaz, euskara ez da indoeuropar familiakoa, ez du haien jatorria bera, baina, halere, ez da ahantzi behar mende askotan bizi izan dela indoeuropar hizkuntzez inguraturik, maiz horiekiko harremanetan, eta holako

que el japonés, el turco, el finlandés, el georgiano, el kichwa, el aymara y otros muchos idiomas del mundo. Posee una declinación muy rica y precisa, contando con un caso especial, el ergativo, marca del sujeto de los verbos transitivos. Su orden sintáctico habitual suele ser Sujeto-Objeto-Verbo (SOV), pero no es excesivamente rígido, y, generalmente, el elemento que se desea resaltar en la frase va situado delante del verbo.

El verbo conjugado concuerda tanto con el sujeto como con el objeto (complemento directo) y con el complemento indirecto, por lo que una misma flexión verbal puede portar marcas de referencia con una, dos o tres personas a la vez: *dakarte* ‘ellos lo traen’, *nakarte* ‘ellos me traen’, *dakarkidate* ‘ellos me lo traen (una cosa)’, *dakarzkidate* ‘ellos me los traen (varias cosas)’.

Son numerosas las hipótesis que se han propuesto sobre el origen del euskara, y muchos han creído ver relaciones genéticas entre el vasco y otras lenguas, como el ibérico, el etrusco, el bereber, el georgiano, el turco, etc., pero, hasta la fecha, ninguna de ellas ha podido ofrecernos pruebas fehacientes. No obstante, a la vista de los testimonios de la lengua aquitana, hablada hasta los primeros siglos de nuestra era, podemos afirmar con seguridad que el aquitano de la época romana no era sino la forma antigua de la lengua vasca actual.

Hoy en día, se piensa que el euskara es el continuador de uno de los idiomas que se hablaron en la antigua Europa, precisamente el único de ellos que ha llegado vivo hasta nosotros. Es anterior a la lle-

egoeretan ohikoa izaten denez, elkarre-kiko hitz trukaketak gertatzen direla.

Sarritan aldarrikatu da euskara hizkuntza oso zaharra dela, eta, uste horretan oinarrituk, batzuek pentsatu izan dute gurea mintzaira arkaiko eta atzeratua dela, antzinako fosil bizidun bat, zelakantoa bezalako zerbait, gaurko kulturako gaitasunik gabea. Bainaz mintzairak ezin daitezke, besterik gabe, era simplista horretan epaitu. Gauzak, batzuetan, itxuraz diruditzen baino korapilatsuagoak izaten dira.

Gure etxeetan, eskuarki hormetan eskegirik, gu txikiak izan gineneko argazki edo erretratuek haur batzuen irudiak era-kusten dituzte. Bainaz haien izen-deiturak gaurko gureak berak diren arren, eta gu haiengandik bagatzez ere, beren orduko itxura ez da gaurko gurea, tarte horretan pertsona gisa hazi eta garatu garelako, iazko txitoa gaurko oilo bilakatu den bezala, beldarrak eta tximeletak ez aipatzegatik.

Horrelaxe ba, gainerako izaki bizi guztiengan gertatzen denez, hizkuntzak ere beren garabidean etenik gabe aldatzen ari dira, giza ezpainenetan erabiltzearen pode-rioaz. Eskuarki giza talde guztiekin uste dute berek gurasoengandik jasoriko mintzaira bera irakasten dietela beren seme-alabei ere, baina, denboran zehar, eta konturatzeko, belaunaldi bakoitzak ezberdintasun txiki batzuk sortzen eta eransten dizkie hizkuntzari. Horrela, urteen buruan, pixkanaka, aldaketa txikieng metaketaz, itxuraldaketa nabarmenak gertatzen dira, eta horixe da, adibidez, erromatarren mintzairatik sortu diren hizkuntza guztietai nabari dezakeguna. Latinaren kasuan hori erraz ikus daiteke,

gada a nuestro continente, hace unos siete o ocho mil años, de los primeros ganaderos y agricultores indoeuropeos procedentes del Oriente Próximo (de las inmediaciones del Mar Negro). Así pues, la lengua vasca no pertenece a la familia indoeuropea, ni proviene de ella, aunque tampoco podemos olvidar que, como consecuencia de la vecindad y relaciones de convivencia de muchos siglos, todas las lenguas suelen tomar elementos y préstamos léxicos de los idiomas circundantes.

Con frecuencia se dice que el vasco es un idioma muy antiguo y, partiendo de esa afirmación, algunos han creído que nuestra lengua era un lenguaje arcaico y poco desarrollado, algo así como un fósil vivo, una especie de celacanto, anquilosado y sin capacidad para desenvolverse en la cultura moderna. Pero es erróneo juzgar las lenguas de una manera tan simplista, pues las cosas suelen ser más complejas de lo que parecen a simple vista.

En la mayoría de nuestras casas podemos encontrar fotografías de nuestra niñez. Sus nombres y apellidos son los mismos que llevamos hoy, y es seguro que nosotros somos su continuación actual, pero, comparados con los de aquellos niños, nuestros rasgos ya han cambiado mucho, pues durante ese tiempo nos hemos desarrollado y crecido, al igual que el pollito se transforma en gallina, por no hablar de orugas y mariposas.

De la misma manera, como sucede en todos los seres vivos, también los idiomas experimentan continuos cambios en su evolución. Y aunque todas las sociedades creen que cada generación transmite a la siguiente la misma lengua que ella ha

forma modernoaren aldaki bereziei izen bana ematen diegulako (portugalera, galiziera, gaztelania, katalana, frantsesa, italiiera, errumaniera...) baina, beste batzuetan, errealtitate hori ezkutatu egiten zaigu -eta bereziki ez dakizkigun mintzairen kasuan- hizkuntzaren antzinako formari eta gaurkoari izen berbera ematen segitzen dugulako (greziera, persiera, arabiera, japoniera edo txinera, adibidez) horien artean besteen antzeko ezberdin-tasunak izaten diren arren.

Praktikan, horrek esan nahi du, -garai modernoetan berpiztua izan den hebreeraren salbuespen harrigarria alde batera utzita¹-, ez dela munduan hizkuntza bat besteak baino zaharragorik, azken iturburuari begiratuz gero behintzat, guztiak lehenagoko forma batetik eratorriak direlako. Eta ikuspegi horretatik gaurko euskara ez da egungo gaztelania edo frantsesa baino zaharragoa.

Egia da, ordea, kokapen geografikoaz ari bagara, hizkuntza batek beste batek baino denbora luzeagoa ukana dezakeela leku berean errroturik. Hori da, esaterako, amerindiar hizkuntzen kasua (kitxua, aimara, nawatl, maia...), han askoz ere mende gehiagotan egon baitira, hara, XV. mendean hasita, europar kolonizatzaleek eraman-

aprendido de sus padres, sin embargo, con el correr del tiempo, cada generación crea y añade al idioma algunas variantes. Así, al cabo de los años, por acumulación, esos pequeños cambios dan origen a transformaciones cada vez más notables, como podemos observar, por ejemplo, en cada una de las lenguas procedentes del latín. En este caso, las diferencias son más aparentes y fáciles de detectar, ya que, de entrada, damos a cada una de sus formas modernas un nombre distinto (portugués, gallego, castellano, catalán, francés, italiano, rumano...) pero en otras, especialmente cuando nos resultan lejanas o desconocidas, esa realidad se nos oculta, puesto que seguimos denominando del mismo modo tanto a la modalidad antigua como la moderna (griego, persa, japonés o chino, por ejemplo), aunque entre ellas existan unas divergencias tan grandes como en las anteriores.

En la práctica, todo eso significa que –con la notable excepción del hebreo, revitalizado en tiempos modernos¹– no existe en el planeta una lengua hablada más antigua que otras, ya que todas ellas proceden de una fase anterior, de la misma forma que una persona no puede

¹ Eta kasu hori ere aldatzen hasia da. Izan ere, hebreera, latinaren antzera, liturgi hizkuntza soila zen artean, otoitzetan-eta erre pikatu besterik ez da egin azken bi mila urteotan, baina joan den mendean Israelen eguneroko elkarritzetan ere erabiltzen hasi zenetik, munduko gainerako hizkuntza bizien patua pairatzen ari du, eta, israeldar lagunek azaldu didatenez, 1900 inguruan hebreerara itzuliriko liburuak orain berriz ere itzultzeko premia sentitute, orduko hebreera gaurko belaunaldien eredu-tik jada oso zaharkitua gelditu delako.

¹ Aunque también ahí están cambiando las cosas. Es cierto que el hebreo, al igual que ocurría con el latín, en la medida que era únicamente una lengua litúrgica, se había venido repitiendo en las oraciones durante los últimos dos mil años. Pero, desde que en Israel pasó a emplearse en las conversaciones diarias, también está experimentando el mismo proceso que afecta al resto de los idiomas hablados. Según me explicaron hace algunos años unos amigos israelíes, se ha comenzado a sentir la necesidad de volver a verter al hebreo bastantes libros traducidos ya hacia 1900, pues el hebreo empleado entonces ha quedado desfasado respecto al utilizado por las generaciones actuales.

dako erdarak baino (españiera, portuguesa, inglesa, francesa...). Eta jakina, ikuspegi horretatik, bai: Amerikan indiarren hizkuntzak Europatikoak baino zaharra-goak diren bezala, euskara ere Europaren askoz ere lehenagokoa da geroago gurera indoeuropeos ekarririko mintzairak baino².

Jada lehentxeago aipatu denez, euskara ez da Europako gainerako hizkuntzen familiakoa, baina horrek ez du esan nahi bata eta besteak bakarturik egon direnik, elkarrekiko traturik gabe. Izan ere, ehundaka eta milaka urtetan zehar auzoak edota bizikideak izan ondoren, euskaldunok inguruko jendeekin tratu luzea izan dugu, eta haiengandik gauza asko jaso eta ikasi ditugu³, haien ere gugandik beste batzuk berenganatu dituzketen bezala. Euskaraz bada berba bat dugu hori adierazteko, *harremanak*, bere osaeren (*hartu + eman*) gizakion arteko joan-etorrizko hantazioak ederki azpimarratzen dituena.

Beraz, ez da inola ere harrigarria, munduko gainerako hizkuntza orotan gertatzen den bezalaxe, gaurko euskal lexikoan beste mintzaira batzuetako hitzak ere aurkitzea;

² Beste kasu bat, arrazoi bategatik edo besteagatik, beren antzinako hizkuntza eta kultura jatorrak aspaldian galdu edo aldatu arren, bertako herri-izen zaharra, poesian edo kultismo moduan, nola edo hala gorde nahi izan duten herriak dira: iberiarrak, lusitaniarrak, galiciar, frankoak, aztekak, anatoliaarrak...

³ Antzekoak dira, adibidez, españierak arabierarekin, inglesak francesesarekin, errumanierak inguruko eslaviar hizkuntzeken edo japonierak txinerarekin dituzten harremanak, lehenengo lauren, jatorri ezberdinak ukani ere, urte askotako auzo-menejotasun politiko edota kulturalaren ondorioz, besteetatik lexikoan mailegu ugari jaso dituzte eta.

pretender tener una ascendencia más antigua que las demás. Desde ese punto de vista, no puede decirse que el vasco, o cualquier otro idioma, sea más antiguo que el castellano o francés actuales.

Es cierto, sin embargo, que cuando nos referimos a su localización geográfica, una lengua puede llevar más tiempo que otras establecida y arraigada en un determinado lugar. Esas, por ejemplo, la situación de los idiomas amerindios (kichwa, aimara, nawatl, maya, cheyenne...) en el Nuevo Mundo, que han estado y permanecido allí desde mucho antes que los idiomas europeos coloniales (español, portugués, inglés, francés...) llegasen allá a partir del s. XV. Naturalmente, desde ese punto de vista, al igual que las lenguas indígenas son en América anteriores a las importadas desde Europa muchos siglos después, también el vasco, en nuestro continente, es mucho más antiguo que los idiomas que, milenios más tarde, trajeron consigo los pueblos indoeuropeos².

Ya hemos dicho más arriba que, si bien la lengua vasca no pertenece a la familia indoeuropea, ello no significa que haya permanecido aislada y sin relación con aquella³. Después de una convivencia y

² Otro caso es el de pueblos que, de alguna manera, conservan su antiguo etnónimo, aunque, por diversos motivos, hayan perdido o substituido su lengua y cultura originarias (ibéricos, lusitanos, galos, francos, aztecas...).

³ Son similares, por ejemplo, a las relaciones existentes entre el español y el árabe, el inglés y el francés, el rumano y las lenguas eslavas circundantes o el japonés y el chino. En todos esos casos, a pesar de la diferencia de origen, como consecuencia de una larga dependencia política o cultural, se ha producido un importante flujo de préstamos léxicos.

hori bai, euskal fonetika-lege berezien araberako birmoldatuak. Horrexegatik, hain zuzen, maiz ia-ia ezagutezinak gertatzen zaizkigu, espezialisten begietarako ez bida. Berba horietan historian zehar gure asabek auzoekin izandako jardueren oinatzak dautza. Eta, gutxi edo asko, badi-tugu, bai, behialako iberiar, zelta, erromatar, godo, arabiar eta beste anitz er-daldunengandik jasoriko hitzak, geroxeago azalduko dudanez.

Inoren hitzak mailegutan hartzeak ez du ezer lotsagarri, arlo guztietaikoak edota oraintsuko atzerritar zapalkuntzaren baten eraginpean pairatuak ez badira behintzat. Aitzitik, mintzaira batek hizkuntza klasiko eta landuagoetatik lexiko ikasia askatasunez jasoa izatea harro ego-teko seinalea izaten da. Izan ere, kanpotik jasoriko produktu eta hitz horiek bizimodu eta kultura aberastu dizkigute, eta euskaldunok ere, uharte isolatu batean bakarturik ez, baina mundu zabal hone-tako partaideak izan garela erakusten digute garbiki, elkarkidetasunean haziak eta heziak, alde batetik geure antzinako asaben hizkuntza jatorrari eutsiz baina, aldi berean, aro berrien ekarriei ateak zabalduz.

Ezagutzen ditugun lehen euskal hitz idatziak duela bi mila urte ingurukoak dira. Latin alfabetoan ageri dira, eta horixe izanda, harrezkero, gure hizkuntzak izan duen idazkeria bakarra. Akitaniako hilarriean ziselaturik aurkitu ditugu. Normalean orduan lurperaturiko pertsonen izenak dira, gizonezko eta andrazkoenak. Honela ageri dira, esaterako, orduko grafiarekin: *cison* ('gizon'), *anderexo* ('andereño', 'andre'), *nes-cato*, *senbe* ('seme') *seni* ('sein', 'sehi'), *onbe*,

vecindad de muchos siglos, los vascos hemos tenido muchas ocasiones de establecer tratos de todo tipo con los pueblos circundantes, tomando de ellos numerosos objetos, productos y conceptos, con sus respectivas denominaciones, que mejoraron nuestra forma de vida. Del mismo modo, los recién llegados también aceptaron cosas, usos y costumbres de las gentes que vivían en torno a esos lugares, intercambiando experiencias. Eso es lo que expresa en vasco el vocablo *harremananak* 'relaciones', palabra compuesta de *hartu* 'tomar' y *eman* 'dar', que en su formación explica a la perfección el sentido recíproco de las mismas.

Por todo lo indicado, no resulta extraño que, como sucede en el resto de los idiomas, se encuentren en vasco voces procedentes de otras lenguas, que han sido asimiladas de acuerdo a las leyes fonéticas específicas del euskara. Precisamente por ello, en numerosas ocasiones esos préstamos resultan irreconocibles a los ojos del no especialista. Dichos términos son las huellas de la historia del idioma, de las antiguas relaciones establecidas entre nuestros antepasados y sus vecinos. Pocas o muchas, ahí están las palabras tomadas por los vascos de iberos, celtas, romanos, godos, árabes y otros muchos pueblos, que explicaremos en su lugar.

Los préstamos léxicos no deben ser motivo de vergüenza, a menos que sean masivos y/o recuerden una dominación extranjera reciente. Al contrario, suele ser motivo de orgullo para un país poseer en su idioma vocablos tomados libremente de lenguas clásicas o más desarrolladas. En nuestro caso, esos productos y voces fo-

umme ('ume'), *hars* ('hartz'), *oxo* ('otso'). Horien orduko forma zaharra eta gaurko euskararena parekatzean, gure hizkuntzan bi mila urteotan izandako aldaketak ikertu ahal izan dira.

Halere, tartean euskararen beste lekuotasun batzuk ere izan ditugu. Erdi Aroan, Europaren mendebaldeko ia dokumentu eta liburu guztiak latin hutsez idazten ziren arren, aldizka baziren horien barruan herri-hizkuntzetako izen eta esaera batzuk, batez ere pertsonen deiturak, gaitzistenak, tokiko toponimoak, herri-baso eta laborantza-soroei esateko moduak, eta euskaraz ere baditugu. Ezagunenak Donemiliaga Kukulan aurkituriko bi glosak dira, XI. mendekoak⁴, baina geroztikakoak ere ez dira falta.

XVI. mendetik aurrera are idazlan luzeagoak heldu zaizkigu, eta lehenbizikoa *Linguae Vasconum Primitiae* deritzona da, hots, 'Euskaldunen hizkuntzaren hasikinak' 1545ean Bernard Etxepare nafar apaizak plazaratua. Mende berean, protestanteen Erreformaren eraginez eta Trentoko konzilioaren ondorioz, beste liburu batzuk inprimatu ziren euskaraz, erlijiozkoak. Garrantzitsuena *Testamentu Berria*-ren euskal itzulpena izan zen, Joana Albret Nafarroako erreginaren aginduz eta Joanes Leizarraga kalvinistaren lanari esker 1571n Arrochelako portuan argitara emana. Horrela, Erreformak, Europako beste hizkuntza askotan gertatu bezala, euskal literaturari bere hasieratik bultza egin zion.

ráneas nos han enriquecido y muestran claramente que los vascos no hemos vivido aislados, que hemos participado en la cultura de nuestro continente y del ancho mundo, en solidaridad, manteniendo por un lado nuestra fidelidad al idioma de quienes nos precedieron, pero, al mismo tiempo, abiertos a las aportaciones de los nuevos tiempos.

Las palabras vascas más antiguas que conocemos datan de hace unos dos mil años. Están escritas en alfabeto latino, al cual ha estado ligado tradicionalmente nuestro idioma, y aparecen gravadas en algunas lápidas de Aquitania. En general, son nombres de personas de ambos性es sepultadas en aquella época. Así, tenemos, con la grafía entonces habitual: *cison* (léase *kizon*; en vasco actual *gizon* 'hombre'), *anderexo* (act. *andere* 'señora', *andereño* 'señorita'), *nescato* (act. *neskato* 'niña'), *senbe* (act. *seme*, 'hijo') *seni* (act. *sein*, *sehi*, 'niño, mozo'), *onbe*, *umme*, (act. *ume* 'niño'), *hars*, (act. *hartz* 'oso'), *oxo* (act. *otso* 'lobo')...

Antes del Renacimiento, casi todos los libros y documentos medievales de Europa occidental se redactaban en latín, pero esporádicamente se encuentran en ellos palabras y frases en las lenguas populares, referentes a nombres de personas, topónimos locales, tierras de labranza o comunales, etc. Entre ellas también las hay en vasco, y seguramente las más conocidas son las dos frases que aparecen en las Glosas Emilianenses del siglo XI⁴.

A partir del siglo XVI disponemos ya de textos vascos más extensos, y el primero

⁴ Donemiliagako glosak hauek dira: *jcioqui dugu* eta *guec ajutu eç dugu*, eta honela itzuli dira, zalantzaz bada ere: 'halakotzat (edo aintzat) daukagu' eta 'ez dugu nahikoa' hurrenez hurren.

⁴ Las glosas son *jcioqui dugu* y *guec ajutu eç dugu*, traducidas, no sin dudas, como 'lo tenemos por tal' y 'no nos es suficiente' respectivamente.

Utz ditzagun baina, azalpen hauek, jada luzeegiak, segur asko, eta itzul gaitezen hasterako gaira, hots, Etxeparereren liburura.

Ale bakarra heldu zaigu XVI. mendeko lehenbiziko euskal argitaralditik. Garai hartan Frantzian inprimatzen ziren liburu guztietatik François I. erregeak ale bana eskatzen zuen, bere liburutegia hornitzeko. Etxeparerena ere ez zen salbuetsi. Hara eraman eta hantxe egon zen, Parisen, hiru mendetan gorderik. Dirudienez, lehen euskal edizioaren gainerako aleak galdu edota erre egingo ziren, segur aski, Trentoko Kontzilioaren erabaki eta jarraibide estuegiei jarraikiz, egileak obran zerabiltsan gai batzuk gordin samarrak zirelako.

XVIII. mendeko Frantses Iraultzaren ondoren, lehenagoko errege-liburutegietako obra guztiak Biblioteca Nazionalaren funtsak osatzeko eraman ziren, apaiztegi, monasterio, nobleen eta beste biblioteka pribatuetako anitz liburu eta izkriburekin batera. Horretara, luzaz zokondo batean ahantzia etzan eta gero, Francisque Michel Brunet liburu-zaharzaleak 1847an Frantziako Biblioteka Nazionalean berraurkitu zuen Etxeparereren liburutxoa.

Eta hemen dakargun faksimile hau, hain zuzen, harexen kopia zehatza da, Frantziako *Bibliothèque Nationale*-ari zor diogun kortesia, hain zuzen. Bide berean, 2011.eko otsail-martxoetan biblioteka berberak Parisko *unicum* hori jendaurrean erakusteko aukera eskaini zigun Gasteizko Eusko Legebiltzarraren areto batean. Guk, liburuaren kopia berriaren ondoan, testua bera ematen dugu, gaurko akademi ortografiaren arabera egokiturik, baina, halere, garai eta toki hartako euskararen ezaugarri bereziak gordez, zenbait puntutan egungo

de ellos es precisamente el libro del párrroco navarro Bernard Etxepare, publicado en 1545 con el título de *Linguae Vasconum Primitiae* ‘Primicias de la lengua de los vascos’. La Reforma protestante y el posterior Concilio de Trento traerían consigo la publicación en euskara de otras obras religiosas, entre ellas la versión vasca del Nuevo Testamento, impulsada por la reina de Navarra Joana de Albret, traducida por el calvinista Joanes Leizarraga y publicada en 1571 en el puerto de La Rochelle. Así, al igual que sucedería en otras muchas lenguas europeas, la Reforma religiosa iba a ser motor de la literatura vasca ya desde sus comienzos.

Pero dejemos estos prolegómenos, sin duda ya demasiado extensos, y volvamos al tema inicial, a la obra de Etxepare. De la primera edición del siglo XVI solamente nos ha llegado un ejemplar, y ello gracias al mandato de Francisco I, exigiendo para su Biblioteca una copia de todos los libros editados en Francia. La obra del cura bajonavarro, permanecería guardada allí durante tres siglos. Al parecer, el resto de los ejemplares de la primera edición se perdieron o, tal vez fueran destruidos a consecuencia de las medidas del Concilio de Trento contra las obras de tema amoroso escritas por eclesiásticos.

Tras la Revolución Francesa, los libros de la biblioteca real fueron recogidos para establecer con ellos los fondos de la Biblioteca Nacional Francesa, junto con las obras y documentos requisados de las bibliotecas de los seminarios, monasterios, la nobleza y otros propietarios privados. De este modo, tras permanecer olvidada

euskara batuaren arau akademikoak bestelakoak izan arren⁵.

Jada 1995ean Euskaltzaindiak *Linguae Vasconum Primitiae*-ren edizio bat argitaratu zuen, euskarazko jatorrizko testuaz gainera, gaztelania, frantses, inglés, aleman eta italierara itzulia. Izandako eskariari erantzuteko, urte berean haren berrinprimitza kaleratu zen, eta 2011 urtean Euskaltzaindiak, Eusko Legebiltzarrarekin batera, hirugarrena atera zuen. Horrela euskal klasiko hori Europako hizkuntza nagusietako batzuetan eskaintza lortu genuen. Baino Etxepareraren hasierako asmoa urrunago zihuan: berak euskara **kanpora, plazara, mundura** eta **mundu guztira** jalgi zedila nahi zuen. Hortaz, haren gogoa beteko bazen, beste herri eta kultura urrunagoetara ere eraman beharra genuen.

Halere, oraingo edizio berri honetan, Europatik jalgi baino lehenago, geure inguruko hizkuntza biri begiratu diegu, urte askotan, gurearen antzera, botere publikoen babesia gozatu gabeei: **galiziera** eta **katalanari**, hain zuzen, maiz zorigaitz-kide eta etsipenean bizi izanak. Hirugarren mintzairia hautatua **errumaniera** da, latindarra berori ere, Europaren ekialdean mintzatua, eta oraintsura arte gurekin iaia zuzeneko harremanik gabea.

durante largos siglos, en 1847 el bibliófilo francés Francisque Michel Brunet encontró la obra de Etxepare en dicha biblioteca.

El facsímile que mostramos aquí es pues la copia exacta de dicha obra. Esta cortesía se la debemos a la *Bibliothèque Nationale* francesa, así como la ocasión que tuvimos de exponer el *unicum* de Paris a los ojos del público en una sala del Parlamento Vasco de Vitoria–Gasteiz, durante los meses de febrero y marzo de 2011. Aquí, junto a la nueva copia de la obra, ofrecemos el texto trascrito de acuerdo a las normas ortográficas académicas vigentes, pero respetando cuidadosamente las características propias del lenguaje de la zona en aquella época, que en algunos aspectos son algo diferentes de las del *euskara batua* o vasco literario unificado actual⁵.

Ya en 1995an Euskaltzaindia publicó una edición de *Linguae Vasconum Primitiae*, en la que, además del texto vasco, se incluían las traducciones al castellano, francés, inglés, alemán e italiano de la obra. En el año 2011, esta Real Academia de la Lengua, junto con el Parlamento Vasco, editaba de nuevo dicho libro. Así, conseguimos ofrecer este clásico vasco en

⁵ Jatorrizko edizioan, idazpuruak kontuan izanda, 15 poema ageri dira, baina Jean Haritschelharrek hil aitzin ohartarazi zuenez, liburuan XI-tzat agertzen dena, *Ordu gaitzareki horrat zakitzat* izenekoa, bertso bakarrekoa da, eta bistan da *Amorosen disputa* deritzeron X. poemaren amaierako bertsoa besterik ez dela, eta ez beste poema berezi bat, inprimatzileak 1545ean, oker, bestela uste izan bazuen ere. Iku Haritschelhar, J., 2011, “Amorosen disputa”, *Euskeria 2011* 56,3 , 844-845, Bilbo: Euskaltzaindia.

⁵ En la primera edición, si contamos los títulos, aparecen 15 poemas, pero como señaló, poco antes de su fallecimiento, Jean Haritschelhar, el que figura en el número XI, con el título *Ordu gaitzareki horrat zakitzat*, está compuesto por una sola estrofa, y es evidente que no es sino el final del poema anterior, *Amorosen disputa*, y no otro poema, como, equivocadamente, pensó en 1545 el impresor. Véase: Haritschelhar,J., 2011, “Amorosen disputa”, *Euskeria 2011* 56,3 , 844-845, Bilbo: Euskaltzaindia.

Beste hirurak, mundu osora begira, Asia, Afrika eta Amerikako jatorrizko hizkuntza entzutetsuak ditugu: **arabiera, txinera** eta **kitxua**, zeinek bere kontinentean balio kultural, sinboliko eta referentzial handiak dauzka eta.

Zehazki hizkuntza horiek aukeratzeko, arrazoi bat baino gehiago izan dira. Alde batetik, mintzaira horietako batzuen auzotasuna. Bestetik, hizkuntza horiek historian zehar izan duten kultur eragin handia, gurean utziriko maileguen oinatza, munduan eta kontinenteetan izandako garrantzi eta eredutasuna, eta, gainera, gaur egun, krisi ekonomikoaren eraginez, beren buru eta besoen gaitasuna eskaintzeko, guregana helduriko etorkin askoren jatorria hartu nahi izan dugu gogoan. Eta, azkenik, hizkuntza horietara itzulpenak egiteko izan dugun aukera ona ere.

Euskara beste hizkuntzen artean

Antzinateko euskaldunak orduko beste jende eta hizkuntzekin harremanak segurki izan bazituzten ere, (iberiarrok, zeltak...), kontua da, ordea, gaurko euskal lexikoan ez dela aurkitzen horien arrasto handirik, denboraz eta ondorengo jendeen eraginez ezabaturik nonbait. Halere, joan den mendearen hasieran uste hedatua zen iberieraren eta antzinako euskararen artean lotura handiak egon beharko zirela, eta filologo batzuk heltzen ziren gaurko euskaldunok eta gure mintzaira behialako iberiarren ondorengo zuzenak ginela esateraino. Gure egunotan baina, J. Lakarra irakasleak jatorri horretako ustezko mailegu gehienak zalantzaran jarri ditu argudio linguistiko sendoekin, hizkuntza bien arteko urruntasun geografikoa eta beren

algunas de las lenguas más importantes de Europa. Pero el objetivo original de su autor iba más lejos: él deseaba que el euskara saliese **fuerza**, a la **plaza pública**, al **mundo**, para darlo a conocer por **todo el planeta**. Y para cumplir aquel deseo teníamos que llevar la lengua hasta otros países y culturas más lejanas.

Sin embargo, antes de salir de Europa, no podíamos menos que dirigir nuestra mirada a dos idiomas vecinos, que, como el nuestro, durante largos años no han podido gozar del favor y apoyo públicos: al **gallego** y al **catalán**, con harta frecuencia compañeros de infortunio. También hemos elegido otra lengua latina, la **rumana**, hablada en el oriente europeo, lejos de sus hermanas, con la que, hasta hace bien poco, no habíamos tenido relaciones directas.

Las otras lenguas escogidas son el **chino**, el **árabe** y el **kichwa**, idiomas representativos de Asia, África y América, verdaderos referentes culturales y simbólicos de sus respectivos continentes.

En la elección de estos idiomas se han tenido en cuenta varias razones. Por una parte, la vecindad y cercanía de algunos de ellos. Por otra, la gran influencia que esas lenguas han tenido y tienen en la historia de la humanidad, la huella de sus préstamos en nuestros idiomas, y su importancia como representantes geográficos. Y naturalmente, el deseo de acercarnos y reconocer las señas de identidad de los inmigrantes que, debido a la actual crisis económica, han venido a nuestro país en busca una vida mejor, a ofrecernos sus capacidades manuales e intelectuales. Por último, ha pesado también

hiztunen arteko ukitze-eremurik eza az-pimarratuz, adibidez.

Ziurragoak dira hizkuntza zeltikoetatik jasoriko maileguak, berauek ere urri samarrak izan arren. Bat erakustearren, *zilar* hitz ezaguna aipa genezake, *silabr*-etik jasoa, beste indoeuropeas hizkuntza batzuetan ere erro bereko kideak dituena (ing. *silver*, alem. *Silber*, errus. *cepeɔpo serebro*), baina, oro har, berba gutxi dira jatorri horretatik zalantza gabe ezagutzen ditugunak. Baino, nolanahi ere den, gure mailegu zaharren iturri nagusia, izan, latina dugu, bai eta, berarengandik sortuta, gure inguruan garatu diren beste hizkuntza erromaniakoak ere (gaztelania, gaskoi-okzitaniera, frantsesa...).

Latina

Beraz, Italiako mintzaira honekin hasiko gara, hots, gaur egungo hizkuntza erromaniokoan eraldaturik bizirik dirauenarekin.

Duela bi mila urte inguru heldu ziren Euskal Herrira lehenbiziko erromatarra, Ebroko haranetik gora igorik. Erroma orduko Europaren zibilizazio jasoaren jabe zenez gero, erromatarrek berrikuntza asko ekarri zituzten aldean, gauza, produktu, asmakari eta kontzeptu zibil eta erlijiosoetan, Europako beste hainbat lekutan gertatu zen bezalaxe.

Eta, jakina, horien guztien izenak ere bai. Holakoak dira, besteak beste, *berba*, *borondate*, *gaztaina*, *gertu*, *errege*, *errota*, *eskola*, *ezpata*, *gerezi*, *lege*, *mailu*, *pago* eta *praka*, latinezko *verba*, *voluntatem*, *castaneam*, *certum*, *regem*, *rotam*, *scholam*, *spatham*, *ceresiam*, *legem*, *malleum*, *fagum* eta *bracae* hitzetatik helduak. Horietarik asko IV. mendean baino lehenago jaso zituen

la posibilidad real de haber podido realizar estas traducciones, gracias a gestiones que agradecemos sinceramente.

El euskara y las otras lenguas

Aunque, indudablemente, los antiguos vascos tuvieron que relacionarse con hablantes de otros idiomas (iberos, celtas...), en el actual léxico vasco apenas encontramos rastros de esos viejos contactos, seguramente por haberse perdido, debido a las influencias posteriores de otros pueblos. A comienzos del siglo pasado estaba muy extendida la creencia de que el ibero y el euskara eran lenguas estrechamente emparentadas, llegando algunos filólogos a afirmar que los vascos y nuestra lengua éramos sus descendientes directos. Sin embargo en la actualidad, el profesor J. Lakarra ha puesto en entredicho muchos de esos supuestos, con razones lingüísticas de peso, subrayando, además, la lejanía geográfica entre ambas lenguas y la falta de zonas de contacto físico entre sus hablantes.

Más seguros son los préstamos celtas, aunque también resulten escasos. Podemos destacar uno, *zilar* ‘plata’, proveniente del celtíbero *silab*, emparentando con el mismo término en otras lenguas indoeuropeas (Cfr. ing. *silver*, alem. *Silber*, rus. *cepeɔpo serebro...*). Pero, en cualquier caso, nuestras fuentes principales de préstamos léxicos han sido el latín y las posteriores lenguas románicas (castellano, gascón-occitano, francés...). Por ello, comenzaremos por este idioma ítalo, transformado hoy en las diversas lenguas neolatinas que conocemos..

gure hizkuntzak, latinezko *ce*, *ci*, eta *ge*, *gi* silabak euskaraz ere herskari moduan kontserbatzeak erakusten duenez. Dirudienetik, erromatar eta orduko euskaldun haien artean bake giro on eta iraunkorra izan zen, eta euskaldun askok Erromorearen legioetan esku hartu zuten, soldadu.

Kristautasuna guregana heltzean⁶, halaber, erlijio berriak Inperioak mendebaldeko Europan onartua zeukan Estatu-mintzairak ofizial bakarra zerabilen, hots, latina, eta horrela hari zegozkion hitz asko ere heldu ziren guregana: *aldare* (< *altarem*), *apaiz* (< *abbas*), *barkatu* (< *parcere*), *bekatu* (< *peccatum*), *eliza* (< *ecclesia*), esaterako.

Latinetik hitz bat jasotzeak ez du beti esan nahi izan, lehenagoko jatorra galdu edo ahantzarazi behar zenik, eta batzuetan bertoko jatorrizko hitzarekin batera, kanpotikoa ere gelditu da, bikote edo hirukoteak osatuz, euskararen aberastasuneko rako: *eihera/errota/bolu*, *hegats/luma*, *hitz/berba*, *lats/erreka*, *lili/lore/flore*, *ortzi/zeru*, *baratze/ortu*, *gar/lama*, *eguzari/jai/besta*, *ate/borta/portu*...

El latín

Las legiones romanas, remontando el valle del Ebro, llegaron al País Vasco hace unos dos mil años. Siendo Roma la civilización más avanzada de aquel tiempo en Europa, los romanos trajeron consigo numerosas novedades, tanto en productos como en conceptos civiles y religiosos. Y naturalmente, también sus denominaciones latinas, algo que ocurrió igualmente en otros pueblos. Muchas de esas palabras fueron tomadas en vasco ya antes del siglo IV, como lo prueba la conservación en euskara de las sílabas latinas *ce*, *ci* y *ge*, *gi* como oclusivas.

Son nombres vascos de origen latino, por ejemplo, *berba* ‘palabra’, *borondate* ‘voluntad’, *gaztaina* ‘castaña’, *gertu* ‘cierto’ y ‘cerca’, *errege* ‘rey’, *errota* ‘molino’, *eskola* ‘escuela’, *ezpata* ‘espada’, *gerezi* ‘cereza’, *lege* ‘ley’, *mailu* ‘martillo’, *pago* ‘haya’, *praka* ‘pantalón’, provenientes de las latinas *verba*, *voluntatem*, *castaneam*, *certum*, *regem*, *rotam*, *scholam*, *spatham*, *ceresiam*, *legem*, *malleum*, *fagum* y *braceae*.

Al introducirse el cristianismo, la nueva religión tomó la lengua oficial del imperio en occidente, el latín, por medio del cual nos llegaron términos eclesiásticos como *aldare* (< *altarem*), *apaiz* (< *abbas*), *barkatu* (< *parcere*), *bekatu* (< *peccatum*) o *eliza* (< *ecclesia*⁶..

⁶ Elizak, ekialdeko herrietan kristau-erlijioa hedatzeko, hasiera-hasieratik erabili zituen bertako herri-hizkuntzak, haitetara Bibliaren itzulpenak eginez: greziera, siriera, koptoa, georgiera, armeniera, eslaviera, gotikoa... Mendebaldean, aldiz, erromatar inperioaren jokabide elebakar berbera izan zuen kristautasunak ere. Euskal Herriaren kristautze-prozesua, ohikoa izaten zenez, hirietatik hasiko zen, eta badirudi astiro hedatu zela, XII. mendearen inguruan baserri aldeetan oraindik pagano-guneak gelditzen zirela kontuan harturik.

⁶ Para difundir la religión cristiana entre los pueblos de oriente, la Iglesia, ya desde sus comienzos, utilizó los idiomas nacionales locales, traduciendo la Biblia a los mismos: griego, sirio, copto, georgiano, armenio, eslavo, gótico... En cambio, en occidente, el cristianismo tomó la misma vía unilingüe de la administración romana en este territorio. Como resulta natural, el proceso de cristianización del País Vasco comenzaría en las ciudades y, al parecer, fue bastante lento, ya que todavía en siglo XII aún quedaban algunos núcleos paganos en las zonas rurales.

Germaniar eragina

Godoak 409. urtean penintsularatu zirenean, germaniar talde horrek bere hizkuntza propioa aurretik galdua zeukan eta jada latinez mintzo ziren. Hortaz, beren onomastika berezia, toponimia eta germaniar kulturako hitz batzuk salbues-tsirik, berba gutxi txertatu ziren bisigo-doengandik orduko latinean eta euskaran: *Fer(di)nando, Roderiko, Alvaro, Elvira, Alfonso, Toro < Villa Gothorum, yelmo <helm* ‘babesa’, *guardia < wardja, xaboi < sapone, fresko (<frisk)*... adibidez.

Erromatarrekin luzaro bakean bizi ondoren, dokumentazioaren arabera, badi-rudi euskaldunek ez zutela inoiz godoen uztarria onartu nahi izan, eta haien nagusigo demografiko eta militar nabarmena gorabehera, behin eta berriro jardun zutela haien aurka. Bisigodoen osteak Eus-
kal Herriko hegoaldeko lurralteak etengabe bereganatzen ahalegindu ziren, baina, euskaldunek, segur asko labore-alde horiek, ipar mendialdeko abelaz-kuntza eta artzaintzaren osagarri gisa, bizitzeko nahitaezkoak zituztelako, kontua da ez zutela behin ere bisigodoen aurkako borrokan etsi.

Errege bisigodoek beren kroniketan euskaldunak garaitu zituztela maiz idazten zuten, baina dakusagunez, hurrengo erregeek ere gauza bera errepikatzen zuten, eta horrek aski argi erakusten du garaipen haiiek iraute laburrekoak zirela, eta ia etengabeki borrokatu behar izan zutela behin eta berriro matxinatzen zi-tzaizkien jende haien aurka.

La adopción del préstamo latino no aca-reó siempre la perdida de la forma vasca anterior, y frecuentemente ambas han quedado integradas en la lengua, como sinónimos, enriqueciendo el idioma. Así, tenemos *eihera/errota/bolu* ‘molino’, *he-gats/luma* ‘pluma’, *hitz/berba* ‘palabra’, *lats/erreka* ‘arroyo’, *lili/lore/flore* ‘flor’, *ortzi/zeru* ‘cielo’, *baratze/ortu* ‘huerto’, *gar/lama* ‘llama’, *jai/eguzari/besta* ‘fiesta’, *ate/borta/portu* ‘puerta, puerto’...

La influencia germánica

Cuando llegaron los visigodos a la pe-nínsula en el año 409, ya habían perdido su lengua germánica anterior, adoptando el latín, por lo que su venida no supuso un nuevo cambio en el idioma. Así, ex-cepto en los nombres personales, algunos topónimos y ciertas palabras propias de su cultura, no hicieron muchas aportacio-nes léxicas al euskara ni al latín peninsular: *Fer(di)nando, Roderiko, Alvaro, Elvira, Alfonso... Toro < Villa Gothorum, yelmo <helm* ‘protección’, *guardia < wardja, xaboi, jabón < sapone, fresko, fresco (<frisk)*.

Si los vascones, en general, habían vi-vido en paz con los romanos e incluso militado en sus legiones, no ocurriría lo mismo con los visigodos. Según la docu-mentación existente, parece que se nega-ron reiteradamente a aceptar su soberanía y, a pesar de su evidente inferioridad nu-mérica y militar, se obstinaron en luchar contra ellos. Las huestes visigodas trataron siempre de apoderarse de la parte cerea-lista del sur de Vasconia, relegando así a sus habitantes a las montañas. Al parecer, a los vascones esos territorios les resulta-

Arabiera.

Musulmanak penintsulara 711. urtean heldu ziren, Musa Ibn Nayr yemendarraren agintean, Tariq ibn Ziyad⁷ amazig buruzagiaren tropetik lagundurik. Horren berri jakitean, Roderiko, azken errege bisigodoa, Iruñean ari zen euskaldun matxinoen aurka, baina inbasioaren berri jakitean, Euskal Herritik alde egin eta bere erresumaren defentsan abiatu zen lasterka. Halere Guadaleteko borrokan bizia galdu zuen.

Musulmanek urte gutxitan penintsula osoa konkistatu zuten, aurkako erresistentziarik ia aurkitu gabe, eta zortziehun urtetan bertan egon ziren. Haien agintea, oro har, malgua eta tolerantziazkoa izan zen. Etorriko soldadu gehienak Ipar Afrikako berber edo amazigak ziren arren, erlijiozko arrazoiengatik arabiera ezarri zuten mintzaira ofizial, huraxe baitzen Muhammad profetaren eta Koranaren hizkuntza sakratua⁸. Arabiera ia

⁷Táriq ibn Ziyad-en oroitzapenez, bere itsasontziekin Hispanian lehorreratu zen tokiko haitzari جبل طارق *Jabal Tariq* izena jarri zioten, hau da, ‘Tariq-en mendia’, gaur *Gibraltar* gisa ezagutua. Arabiarrek Magrebeko jendeari deitzeko darabilten hitza ببريز *barbar* da, hots, erdaraz ‘bereber’, eta grezierazko βάρβαρος *bárbaros*-tik jaso zuten. Baina hola deituek mespresa-zko arabiar hitz horri gaitzesgarri deritzote eta beren buruari *amazig* esaten diote.

⁸Gogora dezagun, mundu zabalari behatuz, *musulman* eta *arabiar* hitzak ez direla sinonimoak, eta bai iraganean eta bai egun ere, ekialdean (Libanon, Sirian, Egipton...) milioika arabiar kristau bizi direla, lehenbiziko mendeetatik Jesu Kristoren jarraitzaile izandakoak. Bestaldetik, gaurko islamiar gehienak ez dira arabiarak, erlijio horretakoaren artean Magrebeko amazigak, Afrikaren erdialdeko beltzak, irandarrak, turkiarrak, kurdak, afganiarrak, eta Pakistan, Bangla Desh, eta Indonesiako musulmanak askoz ere ugariagoak baitira arabiar leinukoak baino.

ban indispensables para sobrevivir, como complemento de su economía fundamentalmente ganadera y pastoril en la parte montañosa, por lo que no dejaron jamás en su lucha para expulsar de allí a los visigodos.

Aunque muchas de las crónicas de los reyes godos relatan que vencieron a los vascones, también los monarcas posteriores mencionan que los derrotaron, lo que evidencia que las luchas continuaban periódicamente contra ese pueblo que se sublevaba una y otra vez.

El árabe

El año 711, bajo el mando del yemení Musa Ibn Nayr, las tropas del amazig Tariq ibn Ziyad⁷ desembarcaron en Hispania. Al tener noticias de su llegada, Rodrigo, el último de los reyes godos, que en ese momento se encontraba luchando en Pamplona contra los vascones sublevados, tuvo que abandonar el lugar para acudir al sur, en defensa de su reino. No obstante, perdería la vida en la batalla del Guadalete.

En poco tiempo los musulmanes conquistaron la península sin encontrar apenas resistencia, y permanecieron en ella durante ocho siglos. Su gobierno fue ge-

⁷ En memoria del amazig Tariq ibn Ziyad, a la roca situada junto al lugar donde desembarcó con sus soldados se le llamó جبل طارق *Jabal Tariq*, esto es, ‘monte de Tariq’, hoy más conocida como *Gibraltar*. La palabra con que los árabes se refieren a la población autóctona del Magreb ببريز *barbar*, (*bereber*) procede del griego βάρβαρος *bárbaros*, y es considerada despectiva por los así denominados, que se llaman a sí mismos *amazig*.

penintsula osoan hedatu eta erlijio-, administrazio- eta kultur mintzabide nagusi bilakatu zen, prestigio handia lortuz.

Bisigodoen antzera, musulmanak ere ez ziren luzaro egon Euskal Herriaren alde menditsuetan, baina bai lautadetan eta Ebroren bazterretan, Tutera aldean bereziki, eta bertara nekazaritza-teknika berriak eraman zituzten. Era berean, Iruñean, Lizarran eta Oliten ere kokatu ziren. Nafarroaren hegoaldean badirudi bertako agintariak, Tuterako Banu Qasitarrak, jatorriz euskaldunak zirela, erlijioz musulmanduak baina. Gainera, ezkontzen bitartez, Iruñeko euskaldun erregeen senitarteko bilakatu ziren eta bakezko harremanak izan zituzten elkarren artean.

Egoera horretan ez da harrigarria, arabiar kultura eta hizkuntzatik guri ere hainbat usario eta hitz iragatea, (*albiriste/albiste, alboka, algara, alkate, alondegi, alkali, alkate, alkandora, azoka, azukre, danbor, gutun/kutun, kalifa*) zientzia eta kultura termino askorekin (*alanbike, aljebra, alkalino, almidoi, arroa, azimut, kotoi, noria, xarabe, zenit, zifra...*). Gauza bera ikus dezakegu gaztelaniaz ere, baina are hitz kopuru handiagorekin, musulmanek Hispaniaren erdi eta hegoaldean egondako denbora askoz luzeagoaren ondo-rioz.

Arabiera semitar hizkuntza da, eta normalean hiru kontsonanteko erroak dauzka: bokalen aldaketak, maiz singular/plural arteko ezberdintasuna erakusten du, hitz erorri edota aditz jokaturen bat: مملكة / ملكة / ملك / ملوك : MaLiK / MuLuK / MaLiKat / maMLaKat ‘errege/erregeak/ erregina/erresuma’, جل / جل / RaJuL / RijAL ‘gizona/gizo-

neralmente flexible y tolerante. La mayor parte de los invasores eran bereberes de lengua amazig, pero el idioma oficial que impulsaron no fue otro que el árabe, el utilizado habitualmente por el profeta Muhamad, y lengua santa en la que se había escrito el Corán⁸. Así, el árabe se extendería por casi la totalidad de la península como principal idioma religioso, administrativo y cultural, para ser el vehículo de la brillante y prestigiosa civilización que se desarrolló en el territorio conquistado.

Al igual que los visigodos, los musulmanes no ocuparon las zonas montañosas de Vasconia, pero sí la zona del sur, especialmente en las riveras del Ebro, particularmente en la zona de Tudela, donde aportaron nuevas técnicas agrícolas. También se asentaron en Pamplona, Estella y Olite. Por otro lado, parece que en el sur de Navarra la familia de los Banu Qasi, dirigentes de la zona durante un largo periodo, eran en realidad vascones islamicados, que mantendrían buenas relaciones con los posteriores reyes de Pamplona.

En esa situación no debe extrañarnos que también llegaran a Vasconia bastantes objetos, costumbres y palabras árabes como *albiriste* ‘albricias’, *albiste* ‘noticia’,

⁸ Las palabras árabe y musulmán no son sinónimas, pues tanto en el pasado como en el presente existen en oriente (Líbano, Siria, Egipto...) millones de árabes cristianos, seguidores de Jesús desde los primeros siglos. Por otra parte, la mayoría de los fieles del Islam no son, en la actualidad árabes, ya que el conjunto de musulmanes bereberes magrebíes, centroafricanos, iraníes, turcos, kurdos, afganos, paquistaníes, bengalíes e indonesios superan con mucho a los de origen árabe.

nak' / كتاب / كتب' KiTaB / KuTuB 'liburu/li-buruak'. Maskulino eta femeninoaren arteko ezberdintasuna, bestetik, izenordainetan ere ageri da: أنت / آنت / anta 'hi, mutil', anti 'hi, neska', eta adizkeretan ere bukaera ezberdinak ageri dira, euskarazkoetan bezala, ergatibo, datiboa eta alokutiboa markatzeko: daki/dakin, datorrik/datorkin, bazegok/bazegon...

Beste anitz arlotan ere horrelaxe gertatu zen: alkimian, arkitekturan, astronomian, farmazian, filosofian, matematikan, medikuntzan, nekazaritzan... besteak beste, eta maiz antzinako grekoen zientzia eta filosofiaren ekarle eta bultzatzale izan ziren. Arabiarak izan ziren, halaber, Indiatik ekarrita, mendebaldera zenbakiak zifrekin idazteko ohitura ezarri zutenak, aurreko erromatar sistemarekin ariketa matemáticoak egitea ezinezkoa zen eta.

Arkitekturan ere emaitza estimagarriak utzi zituzten musulmanek, dorre, gaztelu, meskita eta jauregi zoragarriekin. Koranak izaki bizidunak irudikatzea debekatzen duenez, apaindurak egiteko, letrekin era guztieta korapiloak (arabescoak) garatu zituzten eta kaligrafia bikaina landu ere bai. Poesia ere goren mailaraino igoarazi zuten, esaterako, XI. mendeko Ibn Hazm Kordobakoaren طوق الحماة 'Usoaren idunekoa' obra-rekin, eta hitz lauzko kontakizunekin, fantasiazko ipuinak batzuk, ألف ليلة و ليلة 'Mila gau eta bat gehiago' ipuin bilduma famatua bera, IX. mendean persieratik itzulia, edota ibilaldi harrigarrien kronikak besteak, Ibn Battuta magrebiar bidaariak XIV. mendean islamiar herrialdeez idatzirikoak, adibidez.

alkate' alcalde', alondgegi 'alhóndiga', alkan-dora 'camisa', azoka 'mercado, zoco', azu-kre 'azúcar', danbor 'tambor' gutun 'carta', kalifa, kotoi 'algodón, kutun 'querido', así como numerosos términos científicos y culturales: alanbike, algebra, alkalin, almidoi, arroa, azimut, kotoi, noria, xarabe, zenit, zifra...

El árabe es una lengua semítica y generalmente sus palabras tienen una raíz de tres consonantes, y el cambio de sus vocales acarrea una variación en el significado, como la de singular/plural, palabras derivadas o la conjugación verbal. Por ejemplo: مملكة / ملكة / ملك MaLiK / MuLuK / MaLiKat / maMLaKat 'rey / reyes / reina / reino', رجل / رجل RaJuL / RijAL 'hombre/hombres', كتاب / كتب / كتاب / كتب KiTaB / KuTuB 'libro/libros'. La distinción entre masculino y femenino se produce también en los pronombres personales: أنت / آنت / anta 'tú, hombre', anti 'tú, mujer, y en la conjugación de los verbos, algo similar a lo que ocurre en vasco con las marcas personales de ergativo, dativo y alocutivos: dakik/dakin, datorrik/datorkin, zegok/zegon...

Lo mismo podemos decir de los préstamos al castellano, aunque en una proporción mayor, como consecuencia de una permanencia más larga del árabe en el sur hispano: aceite, acequia, ahorro, alacrán, alazán, albricias, alcalde, alcalino, alcázar, álgebra, algodón, alferez, alhelí, alhóndiga, almacén, almídon, almirez, almohada, alubia, arroba, asesino, azafrán, azahar, azimut, azúcar, azucena, califa, cenit, cifra, elixir, emir, fulano, jabalí, jarabe, noria, tambor, tarifa, zoco...

Igualmente ocurriría en otros muchos ámbitos culturales, como en la alquimia,

Urteen joan-etorrian, ordea, penintsularen iparraldeko jendeak, beren jatorrizko kokaguneen jabetasuna berreskuratzean, euskara eta bertako hizkuntza latindarrak ere garatuz joan ziren. Azkenean, errege-erregina katolikoen armadak Granada konkistatzean, musulmanek penintsula utzi behar izan zuten 1492an. Halere, Espainian islamak izandako atzerakada hori gorabehera, geroztik arabiera Afrikako iparraldean eta Ekiade Hurbilean ongi finkatu zen. Gaur arabieraz 245 milioi pertsona inguru mintzatzen dira eta munduko kultura-hizkuntza nagusietako bat da.

Gure egunotan, milaka pertsona etorri dira lan bila Euskal Herrira arabiar eta musulman herrialdeetatik, eta gure kale-etañ arabiera ere maiz entzun dezakegu. Erdi Aroaren amaieran eten ziren harreman haiekin berriz ere lotzeko aukera ona daukagu.

Latinetiko hizkuntzak

Gorago jada aurreaipatu dugun bezala, penintsularen iparraldeko mendebalde eta ekiadeko muturretako hizkuntzak dakartzagu hona: galiziera eta katalanera, biak, gaztelania bezala, latinetik sortuak.

Biokin harremanak izan ditugu euskaldunok. Gogoan har, batetik, Ebro harana izan dugula mendeetan zehar Mediterraneoranzko igarobide naturala. Galiziarekin, gainera, Done Jakue bideak eta itsasoak elkartu gaituzte. Ez da gaurkoa, bestetik, Galizia, Asturias eta Euskal Herriko harginen artean izandako harremana, beren lanbidearen lexiko berezi eta maiz ezkutuko hitz askotan agerian azaltzen zaigunez⁹.

⁹ Ikus, adibidez, Ramón d'Andrés-en lana: "El eusquera y las jergas gremiales de Asturias", *Euskera*, 2 (2008) 419-448.

arquitectura, astronomía, farmacia, filosofía, matemática, medicina y agricultura, entre otros. Los musulmanes fueron, además, quienes trajeron desde la India a Europa la costumbre de escribir los numerales con cifras, ya que con el sistema romano resultaba imposible efectuar las operaciones matemáticas.

El desarrollo de la arquitectura entre los musulmanes fue igualmente muy notable, construyendo mezquitas y palacios asombrosos, además de obras civiles y militares. Como su religión prohibía la representación de seres vivos, desarrollaron una caligrafía extraordinaria, jugando con las letras con complicadas nerviaciones y nudos (arabescos). Igualmente cultivaron la poesía, dando lugar a obras como طوق الحمامة *Tawq al-hamāma* 'El Collar de la paloma' del cordobés Ibn Hazm del siglo XI, al igual que la prosa, tanto en narraciones fantásticas como la famosa colección de cuentos ألف ليلة وليلة *alf layla wa layla* 'Las mil y una noches', traducida del persa en el siglo IX, o bien crónicas de viajes como la que el aventurero y escritor magrebí Ibn Battuta, realizó en el siglo XIV a través de todos los países islámicos.

Con el correr del tiempo, las gentes del norte de la península comenzaron a recuperar el control del territorio y a extender hacia el sur sus lenguas neolatinas. La conquista de Granada por el ejército de los Reyes Católicos en 1492 obligaría a los musulmanes a abandonar la península.

La lengua árabe, a pesar de su retroceso en Hispania, se afincó en el norte de África y en sus tradicionales hogares de

Galiziera.- Galiziera Hispaniaren ipar mendebaldera K. a. 137. urtean erromatarrek ekarri zuten latinaren ondorioa da, aurretik bertan bizi ziren zelten hizkuntzaren substratuaren eraginean garatua. Musulmanak haraino ez heltzeak ondorio garbia utzi du: galizieran arabiar jatorriko hitz gutxi dago. Formaz eta egituraz, galiziera oso hurbil dago portugaleratik, jada Erdi Aroan elkarrengandik aldentzen hasi ziren arren. Gaur hiru milioi lagunek baino gehiagok hitz egiten dute galizieraz, oro har Galizian, baina baita Asturias, Leon eta Zamorako eskuadre mugakide batzuetan ere.

Erromako hizkuntzatik fonema batzuk jaso eta eraldatzeko eran galizierak eta euskarak antzeko eboluzioa izan dute. Horrela, latinezko bokalarteko *-nn-* eta *-ll-* eskuarki *-n-* eta *-l-* bilakatu dira bai galizieraz eta bai euskarazko maileguetan ere; gaztelaniaz, ordea, horiek palataldu egiten dira, ñ eta ll emanet: lat. *canna*; gal. *cana*, vasc. *kana*, cast. *caña*, lat. *castellum*, gal. *castelo*, vasc. *gaztelu*, cast. *castillo*.

Aldiz, latinezko *-n-* eta *-l-*, galizieraz galdu eta euskaraz aspiratu edo galdu egiten dira eta bokalarteko *-l- > -r-* bilakatzen da: lat. *coronam*, gal. *coroa*, vasc. *koroa*, cast. *corona*; lat. *lunam*, gal. *lua*, cast. *luna*; lat. *coelum*, gal. *ceo*, vasc. *zeru*, cast. *cielo*, lat. *palatium*, gal. *pazo*, cast. *palacio*.

Era berean, bietan latinaren /ě/ eta /ɔ/ fonema azentudunak ez dira *-ie-*, *-ue-* gisa diptongatzen, gaztelanian ez bezala: gal. *certo*, *incenso*, *inverno*, *mel*, *terra*; *horto*, *porro*, *porto*; eusk. *gertu*, *intsentsu*; *ortu*, *porru*, *portu*; gazt. *cierto*, *incienso*, *invierno*, *miel*, *tierra*; *huerto*, *puerro*, *puerto*.

oriente. Hoy en día es el idioma de más de 245 millones de personas, y una de las lenguas más habladas e importantes en el mundo.

Actualmente, son varios miles las personas procedentes de los países musulmanes que viven entre nosotros, venidas en busca de trabajo, y la lengua árabe, se oye también en nuestras calles. Es una buena ocasión para la reanudación de unos contactos interrumpidos en la Edad Media.

Las lenguas latinas

Como ya lo hemos adelantado más arriba, vamos a hablar aquí de las dos lenguas habladas en los confines del norte peninsular: la catalana y la gallega, ambas, al igual que el castellano, procedentes del latín.

A pesar de la distancia, los vascos hemos mantenido contactos con ambas. Por una parte, el valle del Ebro ha sido nuestra principal vía de comunicación hacia Aragón, Cataluña y el Mediterráneo. A Galicia nos han llevado el mar y el Camino de Santiago. Por otro lado, no son de hoy los contactos, por motivos profesionales, entre los canteros gallegos, asturianos y vascos, contando con un léxico gremial muy particular, con numerosas palabras vascas.⁹.

El Gallego.- El gallego es el resultado de la evolución local del latín aportado por los romanos hace unos dos mil años al noroeste de la península, influido por

⁹ Véase, por ejemplo, el trabajo de Ramón d'Andrés: "El eusquera y las jergas gremiales de Asturias", *Euskera*, 2 (2008) 419-448.

Erdi Arotik literatura ederra dauka galizierak, esaterako, XIII. mendean Alfonso X.a Jakintsuak eragindako *Cantigas a Santa María* poema irudiz apaindu eta os-petsuetan islatzen dena. Erdi Aroko galizieraren literatur garapen horrek gaztelau poetak ere bultzatu zituen bera imitazteria. Halere, XIV. mendetik XVIII.era arte, galizieraz *seculos escuros* deitueta, hots, ‘mende ilunak’, bertako literatur emaitza erabat jaitsi zen, praktikan ia des-agertu arte, eta hizkuntzak ere baztertze sozial nabarmena pairatu zuen agintarien aldetik, baina azken urteetan aita Benito Jerónimo Feijóo edo frai Martín Sarmiento lexikografo handia bezalako apologista sutsuak ere izan zituen alde.

Galiziari literaturaren bizkundea XIX. mendearen erdialdean hasi zen, hizkuntzaren *rexurdimiento* deituarekin, Rosalía de Castro eta Eduardo Pondal bezalako idazle nabarmenekin. Bestalde, 1906an *Real Academia Galega* sortu zen eta horrek ere lan handia egin zuen, hizkuntza fin-katzera eta prestigiatzera lagundu eta mende osoan bere lanari jarraituz, fran-kismoaren garaiko oztopoak gorabehera

Errromantizismo garaian galiziari literaturak izandako piztuerak orduko euskaldunak ere hunkitu zituen. Haren apologisten, filologoen eta idazleen ahal-leginak oihartzun ozena izan zuen gure euskalarien artean ere. Ordutik hona, Galiziako eta Euskal Herriko idazleen arteko harremanak ez dira eten. Gure artean Galiziako literatura ezagutarazten gehien saiatu zena Gabriel Aresti izan zen, Bilboko poeta, galiziari idazlan batzuk euskaratu zituena.

el substrato celta anterior. El hecho de que la presencia musulmana en Galicia fuera prácticamente nula ha hecho que sean muy escasas en esta lengua las palabras de origen árabe. El desplazamiento del idioma hacia el sur y su posterior evolución darían lugar al portugués, lengua hermana del gallego, con la que presenta numerosas similitudes. En la actualidad hablan gallego más de tres millones de personas, sobre todo en Galicia, pero también en zonas limítrofes de Asturias, León y Zamora.

El gallego coincide con el vasco en la forma en que algunas palabras latinas han evolucionado en ambos idiomas. Así, las consonantes geminadas latinas -nn- eta -ll- normalmente se transforman, tanto en gallego como en los préstamos latinos al vasco, en -n- eta -l- respectivamente, mientras que, en castellano, ambos fone-mas se palatalizan en -ñ- y -ll-: lat. *canna*; gal. *cana*, vasc. *kana*, cast. *caña*; lat. *castellum*, gal. *castelo*, vasc. *gaztelu*, cast. *castillo*.

En cambio, las -n- y -l- intervocálicas latinas se pierden en gallego, y, en vasco, la -n- se aspira (dando -h-) o bien se pierde, mientras que la -l- se transforma en -r- : lat. *coronam*, gal. *coroa*, vasc. *koroa*, cast. *corona*; lat. *lunam*, gal. *lua*, cast. *luna*; lat. *coelum*, gal. *ceo*, vasc. *zeru*, cast. *cielo*, lat. *palatium*, gal. *pazo*, cast. *palacio*.

De la misma manera, las vocales breves acentuadas /é/ y /ó/ no diptongan como en castellano en -ie-, -ue-, y así tenemos: gal. *certo*, *incenso*, *inverno*, *mel*, *terra*; *horto*, *porro*, *porto*; vasc., *gertu*, *intsentsu*; *ortu*, *porru*, *portu...*; cast. *cierto*, *incienso*, *invierno*, *miel*, *tierra*; *huerto*, *puerro*, *puerto*.

Lehenago galiziarrekiko tratuak bakanak izan badira ere, azken mendean, ordea, mi-laka etorkin heldu zaizkigu Galiziako kultura tradizionaletan kanpotik eterriekin maiz gertatzen den bezala, hasieran erreze-loz ikusia izaten ziren, baina eguneroko tratuarekin elkar ezagutu ahala, gauzak laster aldatu ziren. Euskal Herrira helduriko gallego haiak eta beren ondorengoa aspaldian gure ohiko auzo eta lagun bilakatuak dira eta gaurko euskal idazleen artean haien seme-alaben deiturak ere ikus ditzakegu. Ez dira gutxi, bestetik, hemengo arrantza portuetan kokaturiko galiziarrak, gure hizkuntzan gainerako herritarrek bezain ongi dakitenak.

Euskaran galizieratik jasoriko hitzak ere baditugu, batzuk gaztelaniaren bitartez geureganatuak, eta gehienek Galiziako kultura, producto, gastronomía edo bertakoien izaerarekin zerikusia dute: *albariño, botafumeiro, katxalote, vieira, pazo, queimada, ribeiro, morriña edo saudade* adibidez. Eta gaztelaniak ere galizieratik *achantarse, arisco, cachalote, chubasco, chopo, estela, grelo, lacón, mejillón, morriña, pleamar, porro, sarao* eta *saudade* hitz mailegatuak dauzka.

Hizkuntza bietan ageri den beste ezau-garri amankomuna honako hau izan da, bai herri bateko eta bai besteko goi mai-lako jendeek, oro har, beren nazio-hiz-kuntzaz oraintsura arte erakutsi duten axolagabekeria, haiei prestigio ematen es-kuhartze urria izanez.

Ez nuke aipatzeke utzi nahi GA-LEUSCA elkartea, jada 1923an eratua, gallego, euskaldun eta katalanen nortasuna, kultura eta nahi politikoak jakinarazi eta bultzatzeko asmoz. Frankismoaren urte

La lengua gallega tuvo un gran cultivo literario desde la Edad Media, reflejado, por ejemplo, en las famosas *Cantigas a Santa María*, publicadas por Alfonso X el Sabio en el siglo XIII en hermosos textos miniados. Ese desarrollo literario la convirtió en un modelo a imitar por los poetas castellanos. Sin embargo entre los siglos XIV y XVIII (denominados en gallego *os séculos escuros* o ‘siglos oscuros’) la producción literaria fue descendiendo hasta prácticamente desaparecer, y la lengua sufrió una gran marginación social por parte de poderes públicos, aunque en sus últimos años también aparecieron notables apologistas y estudiosos como el padre Benito Jerónimo Feijoo o el gran lexicógrafo fray Martín Sarmiento.

El renacer de la literatura gallega comenzaría a partir de mediados del XIX, con el *rexurdimento*, movimiento emparejado con el romanticismo, que fue impulsado por escritores tan destacados como Rosalía de Castro y Eduardo Pondal. La creación en 1906 de la *Real Academia Galega* contribuiría a fijar el idioma y a ennoblecer su tarea, que continuaría durante el siglo siguiente, tan sólo interrumpida por el franquismo.

Este nuevo florecimiento del idioma gallego no dejó indiferentes a los vascos. El esfuerzo de sus escritores, filólogos y apologistas tuvo un eco muy positivo entre nosotros. Desde entonces los contactos entre escritores gallegos y vascos han sido frecuentes. Uno de los que más fomentó entre nosotros el conocimiento de la literatura gallega fue el poeta bilbaíno Gabriel Aresti, quien tradujo al vasco varias de sus obras poéticas.

zailetan desagertu arren, azken aldion berriro jaso du burua, hiru herrion anaitasun eta elkartasunaren isipilu.

Katalanera.- Katalan kostaldera grekaoak K. a. 600 urtearen inguruan helduak baziren ere, geroago, hara K. a. 218. urtean hara erromatarak sartu ziren beren legiorekin. Haien ondoren kolonoak etorri ziren eta, ohiko soldadu lizentziatu eta nekazari arruntez gainera, hiriko langile eta merkatariak ere ekarri zituztela dirudi. Horiek ekonomia eta kultura maila jasoagoa zekarten, eta latin lexiko landuagoa ere bai, gaurko katalanaren iturri.

Gaur egun katalanerak 10 milioi hiztun inguru dauzka, Espainia, Frantzia eta Italiako herrialde batzuetan hedatuak. Printzerrian, Andorran, Balearretan eta Valentzian ofizialtasuna dauka, eta munduko hainbeste unibertsitatetan irakasten da

Katalaneraz latinezko /č/ eta /š/ labur azentudunak ez dira diptongatzen, galizieraz bezala (gal. eta kat. *ferro* ‘burdina’, *mel* ‘eztia’, *sesta* ‘biaoa’, *terra* ‘lurra’; *horta* ‘baratzea’, *porro* ‘porrua’, *porta* ‘atea’...), baina bai gazteliaz: *hierro*, *miel*, *siesta*, *tierra*; *huerta*, *puerro*, *puerta*). Era berean, hizkuntza biok latinetikoa hasierako efeak ere gordetzen dituzte (*farina* ‘irina’, *fel* ‘behazun’, *figado/fetge* ‘gibela’, *folla/fulla* ‘hostoia’, *figueira/figuera* ‘pikondoa’, *filla* ‘alaba’, *fio/fil* ‘haria’), gaztelanian, Erdi Aroko hasperenaren ondoan, gaur erabat galduak, grafian gorde arren: *harina*, *hiel*, *hígado*, *hoja*, *higuera*, *hija*, *hilo*.

Hasieratik katalanera bertako gizarte maila guztietan hizkuntza ongi finkatua izan zen, bai baserrian eta bai hiri-portuetan ere. Hortiek heldu zaizkio

Aunque con anterioridad las relaciones entre gallegos y vascos no habían sido muy frecuentes, durante el último siglo han sido miles los emigrantes que han venido al País Vasco a vivir entre nosotros. Como suele ocurrir con frecuencia en las sociedades tradicionales, al comienzo se miraba a los recién llegados con recelo, pero en la medida que fueron conociéndose mejor gracias al trato diario, se convirtieron en vecinos y compañeros. Hoy, entre los escritores vascos, se encuentran algunos de sus hijos. No son pocos, además, los gallegos afincados en nuestros puertos que hablan vasco tan bien como cualquier otro vecino del pueblo.

Al igual que el castellano, la lengua vasca tiene préstamos del gallego, la mayoría de ellos referidos a objetos, productos, cultura, costumbres o gastronomía de Galicia, tales como *albariño*, *botafumeiro*, *vieira*, *pazo*, *queimada*, *ribeiro*, *morriña*, *sarao* o *saudade*, pero también *katxalote* o *estela*. Otros muchos han pasado al castellano: *achantarse*, *arisco*, *cachalote*, *chubasco*, *chopo*, *estela*, *grelo*, *lacón*, *mejillón*, *morriña*, *pleamar*, *porro*, *sarao*...

Otra característica común, padecida por ambos pueblos durante largo tiempo, ha sido el poco aprecio que, en general, han tenido las clases altas y urbanas hacia su idioma nacional, y su desinterés en preservarlo.

La lengua catalana.- Al parecer, la colonización romana de la costa catalana, —iniciada anteriormente ya por los griegos hacia el año 600 a. C., donde fundaron núcleos urbanos importantes, como Ampurias—, se realizó a partir del 218 a.C., no únicamente con soldados licenciados y campesinos iletrados, como

bere hedadura eta prestigio handiak, hirigune handietan, bereziki, lortuak, Baratzelonan batez ere.

Bestalde, latinetik eratorria zenez gero, eta inguruko hizkuntzetatik oso hurbila izanez, horrek erraztasun handia eskaini zien katalanei okzitaniar, frantses, italiar, aragoitar eta gaztelauetan era guztietako tratuak egiteko orduan.

Aurretik beste zenbait testu labur badira ere (adibidez XII. mendeko *Liber iudiciorum* deritzona), eskuarki katalanez idatziriko lehen obratzat *Les Homilies d'Organyà* ('Organyàko homiliak') deritzen sei sermoiak jotzen dira, XII. mendearen bukaeran edo XIII.aren hasieran idatzia. Ondoren Ramon Llull idazle mallorkarra (1232-1315) aipa dezakegu, poeta eta filosofo handia bera, katalanez, latinez eta arabieraz idazten zuena. Literatura-lanak ez eze, katalanez eguneroko bizitzako portu-mapak eta dokumentu zibilak ere ematen ziren argitara, adibidez *Llibre del Consolat de Mar* deritzon obra famatua, itsasoko zuzenbideaz XV. mendean inprimatua.

Katalana idatziz poesian zein prosan erabiltzeko aspaldiko ohitura-gatik, —gogoan izan Ausiàs March XV. mendeko poeta bikaina—, ez da harrigarrria, hortaz, 1490. urtean, jada Joanot Martorell-en *Tiran lo Blanc* sehaskatikoa¹⁰ katalanez argitaratua izatea, hots, zaldieriazko eleberri bat,

¹⁰ Zilegi bekit, 1450an moldiztegia asmatu zenetik mendea amaitu arteko lehen 50 urteetan argitara eman ziren lehen liburu inprimatuei, latinezko *in cuna (imprentae)*-ren bidetik, euskaraz *sehaskatikoa* deitzea, hori esateko erdaraz erabiltzen den *incunable* hitza, eraketaz badaezpadakoa izateaz gainera, gure hizkuntzan ia tradizio gabea da eta.

era lo habitual, sino también con mercaderes y comerciantes romanos de un nivel económico y cultural superior, lo que se manifestaría en un léxico latino más cuidado, origen del catalán actual.

Hoy la lengua catalana cuenta con unos 10 millones de hablantes, extendidos entre los estados de España, Francia e Italia, siendo oficial en el Principado de Cataluña, en Andorra, en Valencia y en las islas Baleares, enseñándose en numerosas universidades de todo el mundo.

El catalán coincide con el gallego en la no diptongación de las ē y ð breves latinas acentuadas: (gal. y cat. *ferro, mel, sesta, terra; horta, porro, porta...*) que en castellano dip-tongan: *hierro, miel, siesta, tierra; huerta, puerro, puerta*). Ambos idiomas conservan también las efes iniciales latinas (*farina, fel, figado/fetge folla/fulla, figueira/figuera, filla, fio/fil*) que, tras su aspiración medieval, se perdieron en castellano: *harina, hiel, hígado, hoja, higuera, hija, hilo*.

Desde sus inicios, la lengua catalana ha sido un idioma bien asentado tanto en el campo como en las ciudades y en todas las clases sociales, por lo que la difusión y el prestigio del que siempre ha gozado se debe, en buena medida, a sus importantes núcleos urbanos, especialmente a su capital, Barcelona.

Por otra parte, su procedencia latina y su semejanza con las lenguas circundantes, han facilitado a los catalanes sus relaciones con los occitanos, franceses, italianos, aragoneses y castellanos a la hora de establecer tratos comerciales con todos ellos.

Aunque existen fragmentos de escritos y traducciones anteriores, generalmente

Cervantesek berak bere *Don Kixoten* bizi laudatua.

XVIII. mendean Espainiako ondoren-gotza-gerran, katalanek Austriaren au-kera egin zuten, Bourbondarren aurka. Gerra galtzean, 1714an Kataluniak bere independentzia politikoa erabat galdu eta gaztelauen errepresio gogorra jasan zuen, bere ekimen kultural guztietañ ere sen-tiarazia, XIX. mendera arte iraun zuena.

Hemeretzigarren mendearen azken bi herenetan Erromantizismoak berekin *Re-naixença* deritzon mugimendua sorrarazi zuen, hots, katalanen sentimendu aber-tzalearen birpiztea, bertako hizkuntza eta kultura bultzatu eta eskabide politiko au-tonomistak aldarrikatuz. Horri esker ka-talan literaturak aurrerakada nabarmena egin zuen, maila handiko idazleekin (Ja-cint Verdaguer, Joan Maragall...) eta Erdi Aroko *Jocs Florals* edo Lore Jokoak bir-piztu ziren. Mugimendu horren atzean Kataluniako gizarte osoa metatzen zen, katalan balioak erdeinatzen eta baztertzen zituen españolismoari kontrajarria. Mu-gimendu abertzale hori beti kontuan hartu, miretsi eta eredutzat jarri zen Eus-kal Herrian ere.

Euskaldunok katalanarekin izan ditugun loturak Pirinioetan zehar eta Ebrotik gora joan dira ezarriz, artzaintza eta merkatari-tzari esker. Antzinako euskaldunak Piri-nioetan zehar gaurko Kataluniako herrialdeetaraino hedatu zirela dirudi. Izan ere, bertako toponimia zaharrean, Joan Coromines hizkuntzalariak maiz azaldu duenez, euskarazko izenak eta to-ponimoak aurkitzen dira. Ohiko lexikoan ere hitz batzuk nabamentzen dira, euskal presentzia horren lekuko: *esquerra, estalvi*

se suele citar como primer texto cono-cido redactado en catalán *Les Homilies d'Organyà* o ‘Homilías de Organya’, con-junto de seis sermones de finales del s. XII o primeros del XIII. Podemos citar, además al poeta y gran filósofo mallor-quín Ramon Llull (1232-1315) que es-cribió libros en catalán, latín y árabe. Además de obras literarias, también se re-dactaban en catalán mapas portulanos y documentos de la vida diaria y laboral, como el famoso tratado de derecho marítimo *Llibre del Consolat de Mar*, impreso en el siglo XV.

Existiendo ya una tradición en el uso del catalán tanto en prosa como en verso –recordemos al excelente poeta Ausiàs March, del siglo XV–, no es de extrañar que en 1590 se imprimiese el libro de ca-ballerías de Joanot Martorell *Tirant lo Blanc*, incunable elogiado ya por el propio Cervantes.

En la Guerra de Sucesión de la corona es-pañola del siglo XVIII los catalanes se po-sicionaron a favor de los Austrias, en contra de los Borbones. Al perder la guerra, en 1714, Cataluña perdería también su inde-pendencia política anterior, sufriendo una dura represión castellana que se hizo sentir en todas sus manifestaciones culturales, y que duraría hasta el siglo siguiente.

En las dos últimas décadas del siglo XIX, el Romanticismo daría lugar a la *Renai-xença*, movimiento de renacimiento cul-tural y político que manifestaba claramente el sentimiento patriótico cata-lán y su firme adhesión hacia la lengua y cultura propias, a la vez que alentaba rei-vindicaciones políticas autonomistas. Con él, la literatura catalana conocería un

‘aurrezkia’ <*estalpe*, eta *socarrar* < eusk. *sukar* ‘sugar’ maileguak, esaterako. Era beraean, *Vall d’Aran* geminatu semantiko nabarmena ere aipa genezake.

Bestalde, Erdi Arotik hona katalanetik hainbeste hitz eskuratu ditugu euskaraz, nabigazio-mundutik, hango portuetara heltzen ziren kanpoko ekoizkinenak, katalan gastronomia eta ohitura okaok, etab. Hauek dira, bestek beste, handik jaso ditugun hitz ezagun batzuk: *alioli*, *barraka*, *butifarra*, *datil*, *erloju*, *eskirol*, *grapa*, *kapikua*, *komuna*, *mosen*, *nakar*, *paella*, *pezeta*, *pintzel*, *pote*, ...

Azpimarratzeko da, gainera, Pompeu Fabra (1868-1948), katalaneraren bata-suna antolatu eta bideratu zuen filologoa, luzaro Bilbon bizi izan zela, bertako Industria-Ingeniarien Eskolako kimika-irakasle. Haren batasun-proiektuak eragin handia izan zuen euskaltzaleen artean eta euskara batuaren auzia gure artean mahaigaineratu zenean Fabraren izena eta lana etengabe aipatu ziren, eredu.

Errumaniera.- Hau da bere izenean Erromaren oroitzapena gorde izan duen latinetiko hizkuntza bakarra. Gogoan izan behar dugu 106. urtean Traianok, hispaniar jatorriko enperadoreak, bere legio-ekin Danubio ibaia zeharkatu eta Dacia zeritzon herrialdea konkistatu zuela. Soldaduekin batera, bazeramatzan kolonoak ere, eta bertan kokarazi zituen. Halere, eskuadre hori, laster inguruko germaniar, eslaviar eta magyarren menean gelditu zen berriro, Italiako metropoliarekin zituen loturak pixkanaka galduz. Geroztik Ekialdeko Eliza ortodoxoaren eraginera lerratu zen, eta, eslaviar jendeekiko tratuak gehituz joan ziren.

nuevo y potente impulso, con escritores de la talla de Jacint Verdaguer o Joan Maragall, y el reinicio de *els Jocs Florals* o Juegos Florales del medioevo. No se trataba de un movimiento catalanista intelectual minoritario, sino que agrupaba consigo a la inmensa mayoría de la sociedad catalana, que siempre fue tenido en cuenta, admirado y puesto como ejemplo en el País Vasco.

Los vínculos entre catalanes y vascos vienen de lejos. Se fueron estableciendo desde la Edad Media a través de los Pirineos y del valle del Ebro, gracias al pastoreo y al comercio. Pero es indudable que existieron contactos anteriores, como lo ha demostrado el gran lingüista catalán Joan Coromines en sus estudios de la toponimia antigua de la zona. Así, no faltan palabras catalanas de origen vasco como *esquerra* < vasc. *ezkerra*, *estalvi* ‘ahorro’ < vasc. *estalpe* ‘bajo cubierta’) o *socarrar* < vasc. *sukar* ‘llama’). También ha quedado algún geminado semántico como el *Vall d’Aran*, literalmente ‘Valle del Valle’. Por el otro lado, desde la Edad Media los vascos hemos tomado préstamos catalanes procedentes del mundo de la navegación, de algunos productos que llegaban a sus puertos, así como de su gastronomía y costumbres: *alioli*, *barraka*, *butifarra*, *datil*, *erloju*, *eskirol*, *grapa*, *kapikua*, *komuna*, *mosen*, *nakar*, *paella*, *pezeta*, *pintzel*, *pote*, *erloju*... además de los numerosos términos de origen catalán empleados en castellano: *añoranza*, *bajel*, *cantimplora*, *capicúa*, *clavel*, *chuleta*, *guante*, *orgullo*, *paella*, *papel*, *picaporte*, *pincel*, *reloj*, *salitre*, *salvaje*, *sastre*, *ventresca*, entre otros.

Hay que recordar, además, la figura del filólogo Pompeu Fabra (1868-1948), pro-

Gorago esandakoagatik, latinetiko hizkuntza moderno hau, gaur 28 milioi hitzun inguru dauzkana, beste hizkuntza erromantzeetatik nahiko urrundurik geratu da, bai geografian, bai lexikoan eta bai egitura sintaktikoetan ere, eta gainekoetik hastanduena dela esan daiteke. Errumaniera, funtsean, Errumaniako eta Moldaviako errepubliketako hizkuntza nazional eta ofiziala da, baina badira, halaber, hiztun kopuru handiak Serbian, Italian, Spainian, Ukrainian, Israelien eta Hungarian ere.

Errumanierak latinetiko hizkuntzen arretik badauka ezaugarri bitxi bat, nolabait euskararekin partekatua: artikuluaren ezarrera. Latin klasikoan ez zegoen artikulurik, baina pixkanaka, hitzak azpimarratzeko, erromatarrak hirugarren mailako erakuslea (*ille, illa*) izenen ondoan jartzen hasi ziren. Hasieran hitzaren aurrean zein atzean jar zitekeen: *ille homo* edo *homo ille*. Halere, denboraren poderioz, mendebalean lehen eredua joan zen finkatuz (gal-port. *o home*, esp. *el hombre*, cat. *l'home*, fr. *l'homme*, it. *l'uomo...*) baina Errumanian bigarrena gelditu zen nagusi: *om / omul*; hots, euskaraz bezala: *gizon / gizona < gizon-ha*. Harrezkero, Europako hizkuntza askok beren artikulua latinaren eta grezieraren imitazioz garatu dute, erakusleetatik abiaturik. Azpimarratzeko da, bestalde, mendebaldeko latin-hizkuntza guztiak deklinazioa erabat galdu badute ere, izenordainetako arrastoak salbu, errumanierak, ordea, latin klasikoak zeuzkan 6 kasuetatik, hiru behintzat gorde dituela: nominatibo-akusatiboa, genitibo-datiboa eta bokatiboa.

motor de la unificación literaria del catalán, que vivió varios años en Bilbao y fue catedrático de química en la Escuela de Ingenieros Industriales de la villa. Su propuesta de unificación del catalán tuvo también una enorme influencia entre los escritores vascos, que en gran medida se inspiraron en su trabajo para la consecución del vasco literario unificado, citando frecuentemente su nombre y sus propuestas como modelo.

No quisiera dejar sin mencionar la Asociación GALEUSCA fundada ya en 1923, para defender y difundir la personalidad, cultura y aspiraciones políticas de catalanes, gallegos, y vascos. Es de resaltar que, a pesar de desaparecer durante los difíciles años del franquismo, ha vuelto a resurgir en época reciente, como espejo de la fraternidad y solidaridad sentida entre nuestros tres pueblos.

Eryoai auguitenda guti vste denian
Eta aguiian ez emanen confessione epphia
Hirur gauçà albaditu ehorc ere eguiaz
Nola ere hil vaytadi doha saluamenduyan.

Lehen eguiia

Oiaun hona aytor cendut beqhatore niçala
Eta gaizqui eguitiaz oguen handi dudala
Nic vaycitut offensatu bide eztudan veçala
Dolu dicit eta damu çure contraeguinaz.

Bigarren eguiia

Oiaun hona gogo dicit oren present honetan
Goardaceco beqhaturic vici niçan artian

Othoy iauna çuc ydaçu indar eta gracia
Gogo honetan yrauteco neure vici gucian.

Heren egua

Oiaun hona gogo dicit gariçuma denian
Eguiazqui eguiteco neure confessionia
Vay etare compliceco didan penitencia
Othoy iauna çuc confirma ene vorondatia.

Eta hoyec eguiazqui ehorc hala ezpaditu
Albayliaqui dud a gabe ecin dateyela salbu
Bere beqhatu yac oro vaditu ere confessatu
Eta hala çinhex beça nahi eztenac enganatu.

Apezeq ez apezpicuq ez etare aytasaynduc
Absoluacen halacoaren eceyn bothereric eztu
Iangoycua bethiere vihocera fodiagoçu
Guhaurc vano segurago gure gogua diacuxu
Gogua gabe huravaytan hiçac oro afertuçu.

Regla eçac egun oroz onsa heure etchia
Eure gauça gucietan emac diligencia
Eta eure trabayluya duyan penitencia
Iangoycualauda eçac gauça ororen buruyan.

Honequila albayteç a bethiere conuersa
Gaixtoe qui ecin ayte gayzqui beci prouecha
Bercer eguin eztaçala nahi eçuqueyena
Ez etare falta ere hiaurc nahi duyana
Legue honi segui yedi salbu nahiduyena.

Hamar manamenduyac:

Doreçac iāgoycobat onheftz oroz gaynetic
 Haren ycena ez iura causa gabe vanoqui
 Ygandiac eta vestac sanctifica deuotqui
 Ayta eta ama ohoraiçac vici yçan lucequi
 Ehor erho eztaçala ez etare gaycetsi
 Norc veria vayecila emazteric ez hunqui
 Vercerena eztaçala ebaxi ez eduqui
 Fama gayciq eztemala lagunari falsoqui
 Bercen emazte alabacez desira gaystoqui
 Eçetare vnhasuna lecotbedi iustoqui.

Manamenduyac hoyec dira iāgoycuac emanic
 Hoc veguiradīç agula salua guiten hegatic.

Judicio generala

Iudicio generalaz nola orhit eztira
 Beccatutan vici dira bethivere ay sira
 Egun hartan gal ezquiten aycinetic veguirā
 Han ordyan eztuquegu chorcre ayzina
 Harçan vnsa orhitcia çuhurcia handida.

Arma arma mundu oro iudicio handira
 Ceru eta lur ororen creadore handia
 Mundu y aren iu y acera rigorosqui helduda
 Nola gauden apphaynduric bat bederac beguiria.

Manamendu ygortendu mundugucietaric
 Gende oro bat daquion iosafaten vilduric
 Ehonere chorere escapatu gaberic.

Ceru eta lur gucia daude yqharatturic.

Eryoa manacendu eceyn falta gaberic
Hilac oro dacacela aycinera viciric
Hanticharat eztuqnela vothereric iagoytic
Mundu oro iarrireñda bi lecutan hersiric
Glorian ezpa yfernuyanezta escapaceric.

Manacendu yfernuya andi eta vortizqui
Handirenac ygoriçan luçamendu gaberic
Arima eta gorpucetan nahi tuyela icusfi
Eta emanen darayela cer vaytute mereci.

Gende honac onsa pensa iuge hunen gaynian
Nola duyen gucietan potestate handia
Eryoan yfernuya ceru eta lurrian
Ceren dabil haren contravada veghatoria.

Gure artian haur dacussat ixutarçun handia
Nola dugun cerbiçacen hanbat gure exaya
Langoycoa desconoci gure saluaçalia
Eta oroc eçaguçen dela vide gabia.

Harren bier emanendu sentencia piçuya
Elgarrequi pena diten ifernuco garrian
Seculaco suyan eta eceyn pausu gabian
Oroc othoy onsa pensa cerden y rabacia.

Egundano ezta içan ez içanen iagoytic

Iudicio hayn handiric ez etare vorthizich
Sortu eta forcecoac hilez guero pizturic
Oroc haravehar dute escusatu gaberic.

Anhiz gauça vehardira iudicio handian
Iugeac du yen potestate parte ororen gaynian
Demandantac erran deçan vere causa eguiaz
Bayetare defendantac bere defensionia
Porogatu datenian norc duqueyen cucena
Sentenciaz eman deçan iugiac noriveria.

Egun hartan iuge date mundu ororen iabia
Baytu ororen gaynian potestate handia
Acusari vera date eta conciencia
Beqhatu oro publicoqui aguerico orduyan

Beqhatoren contra date orduyan mundu gacia
Cerenduten ofenditu hayen creaçalia
Ordu hārtan ixildauque triste veqhatoria
Orotaric cerraturic daude paussu guciаc.

Iuge iauna iraturic egonenda gaynetic
Yreftera apphaynduric yfernuya azpitic
Exay gayça acusacen ezquerreco aldetic
Beccatu yac escuynetic minçaturen publiqui
Hire contra heben guituc ihaurorrec eguinic
Gayzquienic contra date conciencia varnetic.

Estalceco ez içanen ehonere leghuric

Aguercera norc eguinen ordu hartan vathiric
Mundu oro egonenda hayen contra Iarriric
Saynduac ere ordu hartan oro egonen ixilic
Iugeac ere ez ençunen eze ynere othoyc
Egun harçaz orhit guiten othoy hara gaberic.

Nondir ate egun hartan hebengo iaun erreguiac
Duque conde marques çaldun eta verce iaun nobliac
Eta hayen armadaco guiçon fendoen valentiac
ordu hartan valiaco guti hayen potenciac.

Iurista eta theologo poëta eta doctoriac
Procurador aduocatu iuge eta notariac
Ordu hartan aguerico clargui hayen maliciac
Eta guti valiaco cautela eta parleriac..

Ayta sayndu cardenale apphez eta prelatuyac
Berez eta ardi oroz eman vehar han conduya
Egun hartan handiena yçanenda erratuya
Eta vardin iuy aturen handia eta chipia.

Aferdate egun hartan hari appellacia
Ehonere eztaç agu iaunic vere gaynian
Malicia gayci çayca eta mayte eguiia
Elas othoy oroc eguin oray penitencia
Egun hartan guero eztugün eguiteco handia.

Seynafic ginendira aicinetic tristeric
Elementac ebiliren oro tribulaturic

Iguzquia ilhargua odóletan ecinic
Ychafoa samurturic goyti eta veheytí
Hango arraynac icituric ebiliren ialguiric.

Eta lurra icigarri oro iqharaturic
çuhamu yec dacartela odolezco ycerdi
Tenpestatez igorciriz ayre oro samurric
Mendi eta harri oro elgar çaticaturic
Mundu oro iarrirenda su y ac arrasaturic.

Iuge iaunac manaturen vera iauguin gaberic
Gauç a oro xahu deç an vebin su y ac lehenic
Saxu eta quirax oro dohen mundu gucitic
Eta hala iarrirenda lurgucia erreric.

Trompetada minçaturen munduguetaric
Hila coro iayqui huna çuyen hobietaric
Arima eta gorpucetan oro vert an pizturic
Oroc hara vehar dugu escusatu gaberic.

Iustu oro yganenda hertan goyti ayrian
Eta egonen escoynetic iugearen aldean
Beccatoreac dolorezqui sugarrian lurrian
Hariqueta dançuteno sentencia gaynian.

Dagoenian gende oro aicinian vilduric
Iauguinenda rigorosqui sayndu yequi cerutic
Iosafaten egonenda airian gora iarriric
Beccatorer eguinendu arrangura handiric

Haren hiçac eçariren oro erdiraturic.

Hartu nahiçu yenian passione sayndua
Haren contra gincenian armaturic gendia
Hiz huxbatez icituric egocitu lurrian
Iuyacerada auguinian magestate handian
Nola eztu loxaturen ordu hartan munduya.

Erranendu beccatorer dolorezquiorduyan
Niçaz ecineten orhit bicicinetenian
Hanbat ongui nic eguinic çuyer çuyen mendian
Esquer honbat vqhen eztut çuyeganic vician.

Cerere hon vaytuçuye oro dira eniac
Gorpuz eta hon guciac baietare arimac
çuyendaco eguin ditut lurrat etaceruyaç
Iguzquia ilharguia eta fructu guciac.

Suyacvero hurac xahu hax harceco ayria
Aynguruyac çuyen goarda ararteco saynduyaç
çuyegatic eçarridut guero neure vicia
Hoylegatic orogatic cerda çuyen paguya.

Icussiric anhicetan beharrian pobria
Erigosse egarria eta buluzcorria
Ene ycenian anhicetan galdeguinic limosna
çuyec vqhen baytuçuye heçaz guti ansia.

Bay erhoqui complacitu ene contra exaya

Demonio haraguiab yetare munduya
Oray dela çuyen daco maradicionia
Ifernuco suya eta iagoytic nequia
Eta çuyen compaynia democio gucia.

Ezta anhiz luçaturen execucionia
Bertan date y requiren lurra oren verian
Su harequi irexiren oro vere varnian
Haur yçanen veccatoren vñdar y rabacia.

Elas nola yçanenden heben damu handia
Damu handi içigarri remedio gabia
Hanbat iende seculacoz damnaturen denian
O iaun huna çuc guiç açu othoy hantic veguira.

Veretara içuliren ditu guero veguiac
Goacen oro elgarrequi enç adisquidiac
Bethi eta seculacoz gauden ene glorian
Desir oro complituri alegria handian.

Hantic harat ezta yçanen bi erretatu bayeci
Damnatu yac ifernuyan bethi dolorerequi
Saluatu yac ieyncoarequi bethi alegueraquei
Iangoycuac daguiela gure partia hoyequi.

Ceruya ezta ebiliren hantic harat iagoytic
Yguzquia egonenda orienten gueldiric
Ilharguiac occiden ten beguiz begui iarriric
Egun honec y raunendu eben eta iagoytic

Alabana ez iç anen heben gauça viciric.

O iaun hona çucirade gure creaçalia
Beccatore baguirere oro guira çuriac
Gure faltaz gal eztadin othoy çure eguna
Beccaturic garbizaçu othoy gure arimac.

Baldin erideyten vada gutan falta handia
Are duçu handiago çutan pietatia
çuretaric guiren othoy eguiğüçü gracia
çurç ama anderia daquigula valia.

Oracionia

A Ve maria anderia gracia oroz bethia
Ieyncoaren ama virgen veracordenatuya
Ceru eta lur ororen erreguina dignia
Beqhatoren aduocata eta confortaria.

Ni çugana niatorqueçu beccatore handia
Carioqui othoy cera çuçaquitztan valia
Digne ezpaniz aypacera çure ycen saynduya
Ez gitera aycinera ceren bayniz saxuya.

Misericordiaz bethe ciren andere handia
Enaçacula othoy yraz eta ez menospacia
çuc guibelabadiça elas ama eztia
Ordu hartan diacusaqut galdu neure buruya.

Hanbat nuçu gauça orotan ni verthute gabia
Oren oroz beccatutan nabilena galduya

Etabethi erratyua nola ardi yxuiya
Mundu hunec haraguiac bethi enganatuya.

çu baicira gracia ororen ama eta yturburuya
Verthute eta hon gucien theforera handia
Egundano beccatutan maculatu gabia
Verthutetan seguiçeco eguidaçu gracia.

çutan dago beccatoren remedio gacia
Speranca offagarri eta saluamenduya
çuc guibela demaçuna nola vayta galduya
çure gomenduyan dena hala verda salbu ya.

Ieyncoac çuri emandici potestate handia
Haren ama ciren guero ama ere maytia
Ceru eta lur orotan duçun hanbat valia
Cer çuc galde baytaguiçu den complitugacia.

Eta çure escutic duten verce oroc gracia
Eta salua çuc deçaçun çuri gomendatuya
O andere exelente eceyn pare gabia
Saluatuyetaric niçan eguidaçu gracia.

çuri gomendacen nuçu hila eta vicia
Neure gorpuz eta arima eta dudan gacia
Othoy vehar orduyetan çucaquiqat valia
Eta othoy çuc goberna ene vici gacia.

Eta yrabaz ieyncoaganic indar eta gracia

Beccatuyez eguiteco vnsa penitencia
Eta guero verthutetan deramadan vicia
Eta eguin gauç a orotan haren vorondatia.

Beguira othoy mescabutic ene gorpuz pobria
Beccatutan hil eznadin eguidaçu gracia
Seculacos damnaturic enoyan galduya
Bana çure escutic dudan saluaceco vidia.

Eta guero dauguinian ene eryocia
Arimaren particeco oren ycigarria
Ordu hartan behar baytut eman condu hersia
Eguin oroz recebitu neure merexituya.

Eta ez iaquin lehen gaoyan nondaten ostatuya
Ez etare çu ezpacira nordaquidan valia
Ordu hartan helç aquiçat othoy ama eztia
Ararteco leyal eta neure ayutaria.

Othoy çure gomenduyan har arima tristia
Ordu hartan io ezteçan yfernuko vidia
çure seme iaunarequi eguidaçu baquia
Beccatuyac barghaturic didan parabiçuya.

Eta nichandacusadan çure veguitartia
Eta saynduyequi lauda haren magestatia
çeren vnsa orhit citen niçaz ama eztia
Gogo honez erranendut çuri aue maria.

Oracione haur derrana andredona maria
Othoy gomendatu duçun hila eta vicia.

¶ Amorosengaztiguya

Bercec berceric gogoan eta nic andredona maria
Andre hona daquigula gucior othoy valia.

Amorosac nahi nuque honat vеха valite
Honliçaten gaztiguric aguien enzun litoyte
Amorebat haut aceco conseylubat nequeye
Balinetan seculacoz gogoan far valequie.

Ni haure ere vqhen dicit ceynbaytere amore
Bana hantic eztut vqhen prouechuric batere
Anhiz pena arima gal hanera eta neuryere
Amoretan plazer baten mila diradolare.

Amoretan othedate ley aldenic batere
Hiz ederrez ezpa io y az mutha eztadin huraere
Hoben vste duyenori anhicetan traydore
Hobena date gayzenic arimaren berere

Beqhatuzco amoria bethi date traydore
Erioa daugtinian eguiä çogueridate
Hartuduten plazer oro orduyan yrágandate
Beccatu ya gueldicenda penaçeco guero ere
Anhiz plazer vqhen badu anhiz vehardolare.

Amorebat nahi nuque liadutanic egua
Vici eta hilez guero hayn laquidan valia
Cerbiçatu nahi nuque halacoa vician
Heben labur viciada iagoyticoz bercia.

Mundu oro iraganic ez eriden berceric
Ieynçoaren ama hona gracia oroz betheric
Haren amore içateco ezta ehor digneric
Vnsacerbiça daçagun mayte guitu bertaric.

Amoriac vano dira harçaz berceguciāc
Behar handiendenian faltaturen berciac
Vste bano lehenguira hilcen beqhatoriāc
Harc ayuta ezpaguiça nola guiren galduyac.

Andre hona hardaçagun oroc gure amore
Berce oro vci eta eguin hariohore
Hala eguin vadaçagu ohoratu guirate
Berce gatic hura gabe oro galdu guiradē.

Ieyncoaz landan mundu oroc eztu hanbat valia
Ceruya lurra ychassoa haren peco gucia
Oro tarahedacendu vehar vada escuya
Bera handi içan arren preciacen chipia
Halacoa vci eta nonduquegu bercia.

Berce amoreac baten veciez tirade perefstu
Norc beria berciari eztu nahipartitu
Ama virgen gloriosa hanbat vada complitu

Ororençat bera bayta ley al dela abastu.

Amorosec badaguite vehin bere nahia
Handiago gitençaye berce nahicaria
Eci vqhen behinere bere complimenduya
Bethi peytu deramate bere mende gucia
Emazte eta guionoroc har amore maria
Eta orori vaytequegu berac complimenduya.

Andre honac vqhen dici ederretan gracia
Ehorc hura gayxteriaz ecin leç an inbia
Bana vistaz hilcençuyen nahicari faxuya
Figuraren eqhustiaz daquiqueçu egua.

Ychassoan hur gucia ceruyetan içarra
Oyhanetan iç alori lurgucian velharra
Egunari yguzquia gau belçari ilhuna
Lehen faltaturen dira eci hura gugana
Balinetan eguiazqui gubagaude hargana.

Ceren bada erho guira gayxo beqhatariac
Andre ley al honegana goacen othoy guciac
Elas othoy aribira berce amore falsuyac
Harequila segur dugu vehar dugun gucia.

Elas amoros gaixoa hire enganatu ya
Erhogoatan badaramac eure mende gucia
Ene andere graciosaezpad aquic valia
Bay bician bay hilian bethi oha galduya.

Dembora duyan artian eguiç ahal honguia
Eryoadauguinian miraz duquec orduya
Orduyan ere nahi vaduc onsa ialguidaguia
Onsa hari gomendadi nic diosfat eguiā
Finianere eztic vzten harc galceraveria
Orduyan ere vere escuyan dic gracia gucia.

Mundu honec anhiz gende enganatu darama
Iagoyticoz vici vstez haren sehi dabilça
Guti vste duyenian ehor vci darama
Erho ioqhatuy adate hartan fida dadina.

Ni haur ere ebiliniz anhicetan erhoric
Gaoaz eta egunaz ere hoçic eta veroric
Loa galdu pena asqui bana ez arimagatic
Oray oro nahi nuque liren ieyncoagatic.

* Nibeçala anhiz duçu halacoric munduyan
Mende oro dohatenic bethi vana glorian
Ohart guiten buruyari denboraden artian
Andre honac harguiçaque gomendutan aguiari
Hanbat bada graciosfa ama ororen gaynian
Gindadinic eztu vzten hartu gabe gracian

Culpa gabe ehor ezta haurda segureguia
Beqhatuyaz damnacendu iango y coac munduya
Beqhaturic eztay çutan andre handia
Ararteco çaquizcula digun varqhamenduya.

Beccatoren saluacéco ieyncoac eguin cinducen
Bere buruya aeguin dici iuge iusticiaren
çu misericordiaren refugio cinaden
Nola berac iustician ecin salualiçaque
çure misericordiaz remedia litecen
Balinetan eguiazqui çugana gin valite.

Egundano ezta yançez içanen iagoytic
Beqhatore hayn andiric ez etare saxuric
Berebidian iauguin vada çuri gomendaturic
Vqhen eztuyen barqhamendu çure amorecatic
Ez galdua ez galduren çure gomenducoric
çuri gomendacen guira hilic eta viciric.

Berce emaztiac ama dira cenbayt haurto chipiren
Eta guero obororic puncela ecin dirate
çu anderia ama cira virginaric ieyncoaren
Eta guerozerreguina ceru eta lurraren.

Ieyncoa iaunden gauça ororen çu cirade andere
Arrazoynda mundu oroc daguien çuri ohore
Eci hala arিাaucu Ihesu christo vera ere
çuc beçanbat dignitate mundu oroc eztuque.

O anderia ecin date ehor çure vardinic
Gay necoric çuc eztuçu ieynco veraz berceric
Ieynco ezten verce oro dago çure azpitic
Ieyncoaren ama cira mundu oroz gaynetic.

Mundu oroc eztu eguin çuc beçanbat hargatic
Orogatic bano oboro harc ere daydi çugatic
Bere ama ecin vci obeditu gaberic
Othoy gracia eguiuguçu guiren çuyenetaric.

Vnsa çuc harbanençaçu gomendutan gogotic
Ecin ñamna naynde yela cinestendut segurqui
Anhiz veguiratu duçu galduren ceneretic
Niri ere hel çaquçat othoy galdu gaberic.

Elonere gayzic ezta çuc qhen eztiroçunic
Ez etare hontassunic çure escuyan eztenic
Denbora eta leqhu orotan ecyn duda gaberic
Graciac oro çure escuyan iangoycoa emanic.

Nahi du yena hala duque amac semiaganic
Seme honaç anhiz daydi amaren amorecatic
Gure natura haritudu çutan amoraturic
Iangoycoa ezarri duçu gure anayeturic.

Haren eta gure ororen ama cira digneric
Amac eztu sofriceco semen artian guerlaric
Samurturic badacuxu gure gaizqui egatic
Ororen ama cira eta baqueguiçaçu bertaric.

Oray eguiten diraden gayzqui handiegatic
Ieyncoac ondatu çu queyen lur gacia engoytic
Balinetan çu ezpacina ararteco gugatic
Oro sostengacen guitu çure othoyegatic

Gu gayxtoac içan arren ezten çutan faltaric
Fin honera helguiçaçu guiren salbu yetaric.

Ama eztia nic badaguit çure contra faltaric
çuc gaztiga eta dreç a naçaçu othoy bertaric
Elas norat ihes naydi çu neure ama vciric
Neuretaco eztaçagut çu nolaco amaric.

¶ Emazten fauore:

Emaztiac ez gayz erran ene amorecatic
Guigonec vci valiçate elaydite faltaric.

Anhiz guiçon ari bada andrez gayzqui errayten
Arhizqui eta desonesqui baytituzte aypacen
Yxilica egoytia ederrago liçate
Andrec guigonequi beci huxic ecin daydite.

çuhur gutic andre gatic gayzqui erran diroytc
Hayez hongui erraytea onestago liçate
Emazteac cerengatic gaiz erranendirate
Handi eta chipi oro hayetaric guirade.

Balentia sinpleada andren gayz erraytea
Bat gayz erran nahi vadu oro vardin farcea
Yxil ladin nahi nuque halacoden gucia
Damugaycic emazteac hari eman dithia

Andren gayz errayle oroc bearluque pensatu

Bera eta verce oro nontic guinaden forthu
Ama emazte lu yen a'a ez nahi nuque galdatu
Amagatic andre oro beharluque goratu

Guiconaren prouechuco emaztia bethida
Oro behin hayetaric forcen guira mundura
Sorthu eta hilguinate harc haz ezpaguiniça
Haciz guero egun oroz behar haren ayuta.

Haren escuz ossoan behar soynera eta iatera
Eridenian andre gabe galdu guicon egurra
Hil badadi hura nola nordoaque gaynera
Ordu oroz behartugu ezta heben cerduda

Emazteric ezten lecuyan eztacusat plazeric
EZ guicona ez echia behinere xahuric
Echianden gauça oro gayzqui erreglaturic
Parabiçuyan nahi enuque emazteric ezpaliz.

Emaztiac eztut ençun lehen guicona iauquiric
Bana guiconac emaztia bethiere lehenic
Gayxteria ialguitenda bethi guiconetaric
Ceren bada daraucate emaztiari hoguenic.

Bertuteac vejarluque guiconetan handiago
Emaztetan nic dacusfat honguiz ere guehiago
Mila guicon gazxtoric da emaztebatendaco
Guicon baten mila andre bere fedeandago.

Hec guïçoner veña valite eliçate bat honic
Eztirovte deusçaydenic vci iauqui gaberic
Bana anhiz emazteda escapacen çayenic
Anderetan ceren bayta vertutea hobenic.

Nic eztançut emaztiac borchaturic guïçona
Banaveraçoratutic andriari darrayca
Cenbayt andre hel baledi oneriztez hargana
Ceyn guïçonec andriari emaytendu oguena.

Ieyncoac emaztea mayte mündü oroz gaynetic
Cerutica iayxicedin harçaz amoraturic
Emaztiac eçarri du gure anayeturic
Andre oro laudaceco haren amorecatic.

Irudiçayt emaztiadela gauça eztia
Donario gucietan guciz gauça emya
Gaoaz eta egunaz ere badu plazer handia
Harçaz gayzqui erraytia vilania handia.

Munduyanezta gauçaric hayneder ez placentic
Nola emaztiaguiçonaren petic buluzcorriric
Besso viac çabalduric dago errendaturic
Guïçonorrec daguiela harçaz nahiduyenic.

Iobadeçadardoaz ere gorpuzaren erditic
Aynguruuyac banoooboro ezlarraque gayzquiric
Banadardozematuric çauriere sendoturic
Bere graciazezarteyntu elgarrequivaqueturic.

Nordaguiçon modorroaharçaz orhit eztrena
Eta guero halacoa gayzerrayten duyena
Ezta guiçon naturazco hala eguiten duyena
Ceren eztu eçagucen hala hongui eguina.

¶ Ezconduyen coplac

Iangoycoa edetaçu vercerena gogotic
Bera captiuada eta ni gathibu hargatic.

Ni gathibu naducana captiuada bercereu
Ene dichac hala eguindu ny gathibu bigaren
Gogo honez içaneniz vicy baniz bataren
Bana borchaz bayecila ez iagoytic verciaren.

Bercerena hardaçanac beretaco amore
Oborotan vqhenendu plazer bano dolore
Baçarriiac veqhan eta veldur requi dirate
Guti vste dutenian gayça bertan sordayte.

Honestea bercerena erhogoa handida
Plazer vaten vqhenendu anhiz malenconia
Beguyez icus ecin minça handacusat nequia
Bery arequi dağanian enetaco aycia.

Perilequi bayecila ecin noaque hargana
Eta aguiyan harc ordiyan ezpaytuque aycina
Baduere veldur date vertan doha harçara
Nic nahyen dudanian bercech besfoan daraça.

Alhor hartan helbadaquit ereytéra hacia
Eta ene vada ere lastoa eta vihia
Ez bat ori ahalduquet ezetare vercia
Lan eguinaz esquer gayxto galdu y rabacia
Bercerenzat gueldicenda ene çucenbidia
Aguyan guero alabarequi ezconduco semya.

Amoria ehorc ere eztu nahi partitu
Niceztaquit berciac vana ny aryniz beqhatu
Beriarequi eqhustiaz hayn hayn noha penatu
Hec doftetan ni nequetan orduya errabiatus

Gelosiac ezticäquet nic gayz erran seculan
Mayte nuyenanahi enuque ehorc hunquiliaç adan
Bercerenaz yçanuçu amoros leqhu batetan
Beriagana gelosturic desesperacer ninzan

Amoria ecyn cençuz ecin dayte goberna
Anhicetan honestendu guti vehar du yena
Arnoac vano gayzqui ago ordidiro persona
Sarri estaca berant lacha harc hazeman deçana

Amoria ixuda eta eztaçagu çucena
Eztu vste berceric dela lecot mayte du yena
Suyac vano gayzquiago erradiro guicona
Ychassoac ez yraungui erachequi dadina.

¶ Amoros secretugui dena

Andre eder gentilbatec vihoça der aut ebaxi
Harçaz orhit nadinian deusere ecin y rexi
Nic hura nola nahi nuque harc banençə onhexi
Ecin venturatuz nago beldur daquion gayci.

Miraylbat nic ahalbanu hala luyen donoa
Neure gogoa neracuxon secretuqui han varna
Han veryan nic nacussen harena ere nigana
Huxic ecin eguin neçan behinere hargana.

Ene gayzqui penaceco hayn ederric fortucen
Gaoaz eta egunaz ere gayzqui nici penacen
Harequila bat banadi vihoçazayt harricen
Neure penen erraytera are eniz aufarcen.

Enegogoa balya qui mayte vide nynduque
Nierregue valinbaninz erreguina liçate
Hura hala nahi valiz elgarrequi guinate
Haren haurrac eta eniac aurride osso lirate.

Valinetan nic vanerro hari neure vihoça
Eta guero valinbalit respuesta bortiça
Dardoac vano lehen liro erdira ene vihoça
Duda gabe eror naynde han berian hilhoça

Artiçarrac bercetaric abantailla ðarama
Halaverda anderetan ni penacen nuyena
Hanbat da eder eta gentil harçaz erho narama
çori honian sortu ðate haren bessoan daçana.

Ene gogoa nola vayta çucen iarri hargana
Harenere iangoycoac dacarrela nygana
Ene pena sard aquion vihocian varrena
Gogo hunez eguin daçan desiracen dudana

¶ Amorosen partizia

Parti albanenguidio harc ezluque pareric
Alavana nic ezticit hayn honderiç adanic.

Amorebat onhexidut guciz soberatuqui
Ene arima eta vihoça ioñidira harequi
Haren yrudi ederrori veguietan echoqui
Harçaz orhit nadinian vihoza doat ebaqui.

Nic hargana hanbat dicit amoryo handia
Harequila egoityiaz ezpane ynde enoya
Harganico particia ene eyhar garria
Berriz icus dirodano bethi malenconia.

Elas ene amoria nola nuçun penacen
çurequila ecin vathuz vihocian erracen
Ene gaizqui penaceco segur forthu cinaden
Penac oro honlirate çu bacina orhicen.

Minzaceco çurequila gaubat nahi niqueci
Hilabete complituric hura luça valedi
Arranguren qhondaceco asti nuyen frangoqui
Eceynere veldurgabe ego yteco çurequi.

Oray p̄orogacen dicit daquitenen errana
Ehorc vci eztaçala escuy etan duyena
Elas yzul albaneça yraganden denbora
Segur oray eny queci dudan gogoan v̄eharra

Denbora hartin ohinicin nic çugatic dolore
Oray aldiz çure faltaz muthatuniz ny ere
Malenconya ecitela vaduqheçu amore
Bana ordú vacinduque cencaceco çuc ere.

Badaquiçu dolory an partaydenyz ny ere
Eta çure muthaceco ez oguenic baterę
Neure gayzqui penaceco harcinçadan amore
Iagoyticoz vqhenendut nic çugatic dolore.

¶ Amoros gelosia

Beti penaz yc̄atia gayzda ene amore
Beti ere v̄eharduta nic çugatic dolore.

Amorebat vqhendic̄it miragarri gentilic
Harequila ninçanian enuyen nic faltaric
Nic iagoytic ecyn nuque huraveçayn mayteric
Haren minez oray nago ecin hilez viciric.

Norc baytere amoria niri daraut muthatu
Nic eztaquit cerden vana estamendu verridu
Ohi nola aspaldian nahi eçayt minçatu
Çerq andere han tuduyen yehardicit gal̄datu.

Secretuqui veħardicit harequila minċatū
Ordu hartan iagoyticoz' exay eżpa vaquetu
Nyri vnsa eż-padaguit veħardicit pintatu
Ene buruya cia ydaçu harendaco abastu.

Amoria nor yç anda gure bion artian
Muthaturic vaçabilça ia aspaldihandian
Nic çugana daquidala faltatu eztut vician
Bioc behin secretuqui nonbait mynċa guitian.

Ehonere eztacussat niħaur veçayn erhoric
Nic norgatic pena vayttut harc ene eztu axolic
Çuhur banynz banynej ande ny ere hora gaberic
Alabana ecin vci veħin ere gogotic.

Gende honac viħoċa daut bethiere nygarrez
Neure amore chotiltua galdu dudan veldurrez
Gaoaz loric ecin daydit haren gogoan veħarrez
Gogoan veħar handidicit bethen nyen adarrez.

Iangoycoa edetaçu amoria gogotic
Eta haren yrudia ene veguietaric
Harc nigana eztaduca vnsa ley aldateric
Ni ere elicaturenyz oray hora gaberic
Saroyada lohitu eta eztut haren veħarric
Nahi badut vqhenendut oray ere berriric.

¶ Potaren galdaqia

Andria ieyncoac drugaçula oray verdi guirade
Ny erregue balinbanyz erreguinacinate
Potbat othoy eguidaçu ezayçula herabe
Nic çugatic dudan penec hura merexidute.

Eya horrat apartadi nor vsteduc niçala
Horlacobat eztuc vste nyc icussidudala
Horrelaco hiz gaixtoric nir y eztarradala
Vercer erran albayıç aenuc vste duyana

Andre gaixtoa bacinade nic eznaydi conduric
Ciren cirena baycira çuçaz penadicit nic
Ene vftian eztut erran defonestaden gauçaric
Potbat niri eguinagatic ecinduque laydoric,

Hire potac bacyaqu y at berce gauça nahidic
Anderia azticira nihaurc erran gaberic
Bada vci albaynenç ac ny holacz yxilic
Horreyn gayz ciraden guero eguinendut verceric.

Vicinyç an egunetan vad a ecitut vciren
Nic cer oray nahi vaytut heben duçu eguinenc
Vstediat escuy arqui eciçala burlacen
Guçon hunec oray nuya heben laydoz veteren
Eyagora nyc cer daydit çauden yxilic hanbaten.

Etay lelo rybay lelo pota franco vercia vego
Andria minç a albaycinde yerce aldian emiago.

¶ Amorez errequericia

BEnedica fortuna ala encontru hona
Oray beguietan dicit desiracen nuyena.

Ene mayte maytena eguidaçur çucena
Ioanduçuna eqhardaçu ezpa eman ordyna

Nic daquidan gauçaric eztaducat çureric
Loxaturic iarri nuçu ezpaytaquit cegatic.

Eztuçula veldurric eztuqueçu perylic
Gure aucian ezta yçanen çu haurbeci iuyeric.

Eztut eguyñ gayzquiric vqheyteco perilic
Ez etare ceren gatic vehar dudan auciric.

Vada neure maytia nic dioxut egua
Arrobatu nuçu eta valia vequit neurya.

Ny enuğu ohoyna arrobaçer nyçana
Oray othoy enadila oguen gabe difama.

Enetaco ohoyn cira ohoyn ere handicira
Nic veharren nuyen gauça daramaçu çurequila.

Ni enuçu iaquinxu clarqui errane eçaçu
Ehorc vnsa adi ciçan nahi valin baduçu.

Guiçonac du yen maytena bay etare hobena
Vihoceco pausu ya du etaver lo huna.

Oray loric ecin daydit vihocian ezpausuric
Hayec biac galdu ditut amoria nic çugatic.

Vnsa pensa vadeçاقу gayzqui arrobatunuçu
çor handian çaudé eta othoy vnsa eguydaçu.

Galdu valin badituçu ceren oguen derautaçu
Nic daquidan leqhutaric ni baytara eztituçu.

Oray egun vatetan cenu dela pensetan
Hanbat çuçaz amoratu gueroz nuçu penatan.

Horla erraytia errax duçu erho bocen vadaquicu
çura pena dioçunoc nonbayt handi videytuçu.

Hanbatere handi tuçu ecin erran nizaqueçu
Eguiara vaciniaqui vrricarinanguidiçu.

Penac handi vadituçu acheterric asquiduçu
Sarri sendoturen cira larruyori ossoduçu.

çauri banynz larruyan vad'a acheter herrian
Ene mina sendo ezliro çuc bayeci vician.

çure yrudiederrac eta mayna gentilac
Gayzquiago çauri nici ecidardo çorroçac.

Vihociān çauri nuçu eta gathibatu nuçu
Amoretan harnacağu nic dudana çureduçu.

Amexetan agueritan ni çugatic doloretan
Hizbat honic erradağu hil eznadin othoy bertan.

Cer nahiduçu darradan gauça horren gaynian.
Mi nolacoric asqui duçu berceric ere herrian.

Verce oroz gaynetic hanbat mayte citut nic
Mundu oro vzi niro çure amorecatic.

Albanerra eguya nyc dut pena handia
Secretuqui minç a guiten bioc othoy maytia.

¶ Amorosen disputa
Vztaçu hurrancera amore mayte
Oray particeco damu guinate.

Amoryac othoy partiguitecen
Gendiac diradela hassi beqhaicen
Laydoc hartu gabe gueldi guitecen
Gendec yrrigarri guerta ezquiten.

Elas amoria ene galduya
Iamas çurequila enaynde enoya
Biciric particia pena handia
Honey nfarri vci nahi nuçuya.

Ni haurc ere guerthuz mayte bacitut
Onerizte gabez vzten eçitut
Vana ieyncoaren nuçu beldurtu
Sobera diguicieguyn beqhatu.

Orano amorea gazte guituçu
Ieyncuaz orhiceco leqhu diguçu
Are elgarrequi vehar diguçu
Oray particeco ðamu guituçu.

Beccatu honetan hilenbaguina
Damnatuluqueçu ene arima
Ecitela engoytic nitan engana
Nyri phoroguric eztidaçula.

Cinestebat dicit gogoan honela
Nic nola daducat amore çugana
Ieyncoari ere eder çaycala
Hargatic gaycexi ezquiç aquela.

Horlaco laufenguz vci naçaçu
Nola erhoturic narabilaçu
Othoy ceniçauçu nyry euztaçu
Ene gogoa vnsa eztacusaçu.

Nola diostaçu horlaço hiça
Bethi ðaduçaçu tema borthiça
Ioandaraudaçu lehen vihoça
Guero gathibatu neure gorpuça

Horlaceco érançutez vci naçaçu
Gueldi vacinite nahi nyqueçu
Gure echian ohart vadaquizquigu
Bioc iago yticos galdu guituçu.

Gendiac so daudia bethi gugana
Ni haurc secretuqui nator çugana
çu haurc daquiqueçu noyzden ayzyna
Neque eçayçula gitia nigana.

Picher ebilia hauxi diohaçu
çuc ny laydo handiz vetheren nuçu
Ochoy cenyçayçu nyri vztaçu
Niçaz axeguinic ecinduqueçu.

Amore maytia dioxut egua
çutan diagoçu ene vicia
Nahiago dicit çure iqhuschia
Eci neuretaco herri gücia.

Horlaco lausenguz vci naçaçu
Ichil vacinite nahi ni queçu
Ieyncoaz orhiceco ordu luqueçu
Berceric har eçaçu niri vztaçu.

Ieynco veldurturic iarriciraya
Halaz despeditu nahi nuçuya
Hebetic ioan gabe ene buruya
Eguin vehar duçu ené nahia.

Oray nahi nuçuya heben vorchatu
Aldi honet an othoy vci naçaçu
Berce aldi batez gin en nyçayçu
Nahi duçun ori orduyan daydiçu.

Haray cinacoric duçu errana
Vci daçan orrec escuyan duyena
Nahi duyenian eztu queyela
Hiçac harıbira dugun eguyna.

Oray eguynduçu nahi duçuna
E mandar autaçu ahal queyçuna
Maradi ca cendut ne ure fortuna
Ceren gin vaynendin egun çugana.

Amore ecitela othoy despara
Honat veguit artez yçul çaquçat
Nivaytan duqueçu adisquidebat
Valia di queçit senhar gayxtobat.

¶ Ordu gayçarequi horrat zaquçat

Oray vejar dnguya conquista verri
Eztey yr aganez go mitu handy
Hanbat ecirade andere larri
Merexi duçuna narçaque farri.

¶ Amore gogorraren despita.

Andre eder gentilbatez hautatuç ayt veguia
Herri orotan gauça oroz eztu vere paria
Othoy cebat baneguyon larradala egua
Biderican liçatenez nynzan haren gracian

Respoſtu ya emanderaut luçamendu gaberic
Cortesiaz hondericut nic çuri hayn segurqui
Berberic nitan eztuqueçu abisacencitut nic
Gazte çoroa nyçan arren enuqueçu hargatic.

çugaztia bacirere adimendu hon duçu
Nic çugatic dudan pena othoy sendieçaçu
çuretaco harnazaçu vici nahi vanuçu
Niçugatic hilbanadi cargu handi duqueçu.

Ohoria galcendela plazerguitia gayzduçu
Niri horla erraytia çuri eman eztuçu
Gayxteria eguitia laydodela daquique
Ny erhoa çu iaquynxu veba enaqidiçu.

çuhaur nahi bacirade ni segretu nuqueçu
Gure arteco amoria chorc eci aquiqueçu
Secretuqui minçaceco othoy bide ydaçu
Enequila minçaciaz gayçiq ecin duqueçu.

Gayzqui eguiñ dadinian gendec farri daquite
Ene gayzqui eguitiaz enec laydo luqueyte
çu eta ni elgarrequivnfa ecin guynate
çaudé yxilic çoaz horrat eta hobe baitate.

Hiz horreçaz erdiratu deraudaçtu vihoça
Nic çugatic dudan pena hanbat ere handida
çuçaz veraz ezpanadi oray vertan consola
Ene arima ialgui renda falta gabe canpora.

Arimaren ialguitia neque handia duçu
Oray duçun penegatic çuria egonenduçu
Horrelaco vanitatez nyrisegur vztaçu
Prouechuric eztu queçu eta cinhex nazacu.

çurequila gayzqui vaniz nola vicininq ande
Ene vihoz eta arima çurequila dirade
Vihoz eta arima gabe chor ecin liçate
çu eta ni elgarrequi vnsa ahalguinate

Iauna guerthuz hic daducat porfidia handia
Ixil endin nahi niquec ala ene fedia
Hiz gutitan' adi ezac nahi vaduc egua
Hiretaco eztiaeducat guerthuz neure buruya.

Hori horla liçatela nicin neure veldurra
Andriac honderiq anari ezpadaqui mesura
Ni lehenic eta guero amoros oro galduða
Nic çuri hon vaderiqut gayzci eztaquicula

Egundano yçan daya ni baydichatacoric
Ny amoriac enu mayte nic hura ecin gaycexi
Vste dicit narrayola ecin duquedanari
Ceren vada hon derizat hon ezteriztanari,

Langoycoa mutha ezac othoy ene vihoça
Amoriaren harc veçala nic eztudan axola
Borchaz ere gavzqui bano hongui eguitia hobeda
Ni haurec ere vcirendut hon ezteritzadana.

Andre faltaz eniz hilen valinba nilehena
Oroz exi vəhardicit non vaytate hobena
Hequi ecin medra nayte bay gal neure arima
Bategatic farri nirodiren oroz arnega.

Mossen Bernat echaparere cantuya

Mossen bernat iaquin vahu gauça nola ginenceu
Bearnora gabetaric egon ahal inçanden.

Heldu vəharduyen gauçan ezta escapaceric
Nic oguenic eznuyela hongui guitez verceric
Bide gabec haritunu vide eznuyen leqhutic
Erreguerigayzqui saldu guertuz oguengaberic.

Iaun erreguec meçu nenzan ioanenguion bertaric
Gaycez lagola ençun nuyen bana nicez oguenic
Izterbeguier eneyen malician leqhuric
Ioan nendin enaguien oguen gabe ihesic.

Valinetan ioan ezpaninz oguenduru ninçaten
Ene contra falseria bethi cinhexi çaten
Iustician ençun vaninz farri ialgui ninçaten
Haren faltaz hassi nuçu iauguitiaz dolucen.

Vercen gayçaz cençacia çuhurcia handida
Yzterbegui duyen oro nitan vedi gaztiga
Abantallan dabilela albay ledi segura
Gayça apart egoztea bethiere hobeda.

Nigayxoa exayari ni haur giniz escura
Ene vnsa eguinac ere oray oro gayzdira
Haren menian ezpanengo nic nuqueyen çucena
Miraculu vanagui ere oray ene oguena.

Falsu testimoniotic ecin chor veguira
Halaz condemnatu çuten ieyncoa ere hilcera
Beccatore guira eta mira eztaquigula
Balinetan vide gabe acusatu baguira
Paciencia dugun eta ieyncoac guizan ayuta
Malician dabilena verac diro mendeca.

Iangoycua çucirade eguiazco iugia
çure gortean vardindira handi eta chipia
Norc vaytere eguyn deraut malicia handia
Hayer hora othoy barqha niri valia egua.

Iangoymoa çuc veguira exayaren menetic
Nic eniac badacusquit ene gayçaz vozturic
çure escuyaz dacusquidan heyc gaztigaturic
Ene gaynian eztaguiten visteduten yrriric.

Iangoycua eguin dicit çure contra beccatu
Hayez nahiençula othoy heben punitu

Erregueri daquida la n̄ic ez̄t̄icit faltatu
Ceren egon vehardudan heben hanbat gatibū.

çuganaco huxeguinez nahi banuçu punitu
Erregue eta verce oro ene contra armatu
Gogo honez nahi dicit çure eguna laudatu
Eta exay ac didan pena pacientqui haritu
Nahiz heben pena nadin arimaden saluatu
Hayec cer merexiduten çuhaurorrec iqhustzu.

Penac oro gitendira ieýncoaren nahitic
Eta verac permiticen oro hobenagatic
Aguijan hula ezpanango hil ninçanden engoytic
Ene exay ac galdu vſtian ene hona eguindic.

Berac baçu hil dirade ni are nago viciric
Honguieguin vſte vaytut ohorezqui ialguiric
Gayça nola hona ere iauguinenda vertaric
Gayz eghussi eztuyenac hona cerden eztaqui.

Honguieguitez gayz sofritz vehardugu saluatu
Pena eta miferianic enu yen daftatu
Oray daquit iango ycuac enu nahi damnatu
Heben ene penacer a çaydanyan orhitu
Vrhe hunac vehardici suyan vnsa purgatu.

Vere nabi ezpanindu eninduqien punitu
Aytac vere haur maytia gaztigatu ohidu
Bibi hunac gorde gabe vehardici xahutu

Iangoycoac nizaz ere hala aguian eguindu.

Mossen bernal pensa ezac carcel hori gayzbada
Non baytere yfernuya are gayçago dela
Heben hic vaduquec vana haye ecez norc consola
Penac heben findic farrihayenac ez seculan.

Vatre minic heben eztuc lecot i algi nahia
Handirenec bethidie suyan pena handia
Pena handi ycigarri eceyn pausu gabia
Hargaz orhit adi eta duquec paciencia.

Vercen gaztigari incan oray adi gaztiga
Pena honez orhit eta hangoa ezac cogita
Hebengoaz vercecoa albaheça escusa
Vnsa enplegatu duquec heben eure denbora.

Horbalego gaztigayro ihaurc verce gucia
Badaoray gaztiguezac aldiz eure burya
Quiry sayluyari nola hiri he eztaquia
Bercer argui eguin eta erracendic buruya.

Hiri eguin vadaraye bide gabe handia
Ieyncoari gomendezac eure gaüga gucia
Harcotori emanendic bere merexituya
Gayzqui guiler pena handi pacienter gloria.

Eztaçala gayzeriztez damna heure buruya
desiratuz gayxtoari heldaquion gayzquia

Ieyncuari eguitenduc in iuria handia
Hura borrer eguitenduc iuge eure buruya.

Certan iu ya hic vaytaçac eure yzterbegua
Hartan condemnacendu quec yhaurc eure buruya
Eta hartan eztaquidic escusaric valia
Eracustac ehonere norden oguen gabia.

Iangoycua oray dicit eguiteco handia
Hiri honestan eryocez hilcenduçu gendia
Gathi butan hil enadin guicon oguen gabia
Ossoric othoy ialguitaco çuc ydaçu vidia
Izterbeguiac eztadila othoy ehor engana
Oguenduru çuyan eta hangaldudic vicia.

Libertatia nola vayta gaucetaco hobena
Gathi butan egoytia hala pena gaycena
Ny veçala eztadila othoy ehor engana
Ez etare hiz orotan fida ere guicona
Iaygoycua çuc veguira niri ere çucena.

Amen.

Contrapas

Heuscara ialgui adi cāpora

Garacico herria

Benedic adadila

Heuscarari emandio

Beharduyen thornuya.

Heuscara

Ialgui adi plaçara

Berce gendec vsteçuten

Ecin scribaçayteyen

Oray dute phorogatu

Euganatu cirela.

Heuscara
Ialgui adi mundura

Lengoagetañ ohi inçan
Estimatze gutitan
Oray aldiz hic beharduc
Ohoria orotan.

Heuscara
Habil mundu gucirা

Berce ac oroc içan dira
Bere goihen gradora
Oray hora iganenda
Berce ororen gaynera.

Heuscara

Bascoac oroc preciatzē
Heuscaraez iaquin harrē
Oroc iccaſſiren dute
Oray cerden heuscara.

Heuscara

Oray dano egon bahiz
Imprimitu bagueric
Hi engoitic ebiliren
Mundu gucietaric.

Heuscara

Eceyn ere lengoageric
Ez francesa ez berceric
Oray ezta erideyten
Heuscararen pareric.

Heuscara
Ialgui adi dançara.

Sautrela

Heuscarada campora, eta goacen oro dançara

O heuscaralauðe ezac garacico herria
Ceren hantic vqhen baytuc beharduy an thornuya
Lehenago hi baitinç an lengoagetañ azquena
Oray aldiz içaneniz orotaco lehena.

Heuscaldunac mundu orotan preciatu ciraden
Bana hayen lengoagiaz berceoro burlatzen
Ceren eceyn scripturan erideiten ezpaitzen
Oray dute iccassiren nola gañga honacen.

Heuscaldun den guion oroc alcha beça buruya
Eci huyen lengoagia içanenda floria
Prince eta iaun handiec oroc haren galdia
Scribatus halbalute iqhasteco desira.

Desir hura complitu du garacico naturac
Eta haren adisquide oray bordelen denac
Lehen imprimicalia heuscararen hurada
Basco oro obligatu iagoiticoz hargana.

Etay lelori bailelo leloa çaray leloa
Heuscarada campora eta goacen oro dançara.

DEBILE PRINCIPIVM MELIOR
FORTVNA SEQVATVR.

¶ Exraict des regestes de Parlement.



Vpplie humblement Françoy s Mor-
pain, maistre Imprimeur de ceste ville
de Bourdeaulx, que pour imprimer vn
petit traicté intitule, *Linguæ vasconum*
primitie, luy a conuenu faire plusieurs
fraiz & mises. A ceste cause plaise a la
Court inhibitions estre faictes a tous les Imprimeurs
libraires de ce Ressort de imprimer ou faire imprimer
ledict Traicté, & a tous marchás de nen vendre d'autre
impression dans troys ans a peine de mil liures tourñ.
& ferez iustice. Veue laquelle requeste la court faict les
inhibitions requises par ledict Morpain a peine de mil
liures tourñ. Faict a Bourdeaulx en Parlement le der-
nier iour Dapuril, mil cinq cens quarante cinq.

Collation est faictte.

De Pontac.



EUSKALDUNEN HIZKUNTZAREN HASIKINAK

Bernard Etxepare jaunak
Eiheralarreko Done Mikel Zaharreko
Erretoreak paratuak.

1545

Aduertant Impressor, et lectores quod *.z.* nunquam ponitur pro *.m.* Neque *.t.* ante *.i.* pronunciatur pro *.c.* Et vbi virgula ponitu sub *.ç.* hoc modo quod fit dum praeponitur vocalibus. *a.o.u.*, tunc. *c.* pronunciabitur paulo asperius quam *.z.* vt in *.ce.ci.*

[Ohar bitez inprimatzalea eta irakurleak *z* ez dela inoiz *m*-ren ordez ipintzen, ez eta i-ren aurrean *t* ebakitzen *c*. Eta *ç*-ren azpian hor bezala kako txikia ezartzen denean, *a, o, u* bokalen aurrean egiten baita, orduan *c* hori *z* baino lazkixeago ebaki behar da, *ce, ci*-etakoa bezala.].

Erregeren adbokatu bidezko eta nobleari,
birthute eta hon guziez konplitiuari
bere jaun eta jabe Bernard Leheteri,
Bernard Etxeparekoak,
haren zerbitzari xipiak,
gogo honez gorainzi, bake eta osagarri.

Zeren baskoak baitira abil, animos eta jentil, eta hetan izan baita, eta baita, zienzia guzietan letratu handirik, miraz nago, jauna, nola batere ezten asaiatu bere lengoaje propriaren faboretan heuskaraz zerbait obra egitera eta eskributan imeitera, zeren ladin publika mundu guzietara berze lengoajiak bezala hain eskribatzeko hon dela. Eta kausa honegatik gelditzen da abataturik, ezein reputazione bage, eta berze nazione orok uste dute ezin deus ere eskriba daiteiela lengoaje hartan, nola berze orok baitute eskribatzen berian.

Eta zeren orai zuk, jauna, noble eta naturazkoak bezala, baituzu estimatzen, goratzen eta ohoratzen heuskara, zuri, neure jaun eta jibia bezala, igorten darauritzut heuskarazko kopla batzu ene ignoranziaren araura eginak. Zeren, jauna, haietako ikusirik eta korregiturik plazer duzun bezala, irudi bazautzu, inprimi erazi ditzazun eta zure eskutik orok dugun joia ederra, inprimiturik heuskara, orano izan eztena, eta zure hatse honetik dadin aitzinerat augmenta, kontinua eta publika mundu guzietara eta baskoek, berzek bezala, duten bere lengoajian eskribuz zerbait doktrina, eta plazer hartzeko, solas egiteko, kantzoko eta denbora igaraiteko materia, eta jinen direnek gero duten kausa oboro haren abanzatzeko eta obligatu giren guziak Jeinkoari othoitz egitera, dizun mundu honetan prosperoki bizia eta berzian parabizuia. Amen.

I.- DOKTRINA KRISTIANA

- 1 Munduan den gizon orok behar luke pensatu
Jangoikoak nola duien batbedera formatu,
bere irudi propiara gure arima kreatu,
memoriaz, borondatez, endelguiaz goarnitu.
- 5 Ezein jaunek eztu nahi muthil gaixtoa eduki
ez pagatu soldatarik zerbitzatu gaberik;
Jangoikoa ari duzu hala hala gureki:
gloriarik ez emanen hongi egin gaberik.
- 9 Muthilek gure zerbitzutan deramate urthia,
soldata aphur bategatik hartzen pena handia;
Jangoikoak behar luke guk bezanbat balia;
zerbitzatu behar dugu emaitekoz gloria.
- 13 Ogirik eztakusat biltzen hazi erein gaberik;
nork zer hazi erein [baitu] biltzen dizi komunki.
Obra honak ukhenen du goalardona frangoki,
baietare bekhatuiak punizione segurki.
- 17 Zeren Jeinkoa egun oroz ongi ari baitzaigu,
guk ere hala behar dugu harzaz unsa orhitu,
gure hatse eta fina hora dela pensatu,
goiz et'arrats orhituki haren izena laudatu.

Arratsian

- 21 Arratsian etzitian gomend'adi Jeinkoari
eta othoi beguir'ezan peril guzietarik;
gero iratzar adinian orhit adi bertarik
zenbait ere orazione erraitera debotki.

Goizian

- 25 Albadagik joan adi elizara goizian,
Jeinkoari han gomenda bere etxe sainduian;
han sartzian pensa ezak aitzinian nor duian,
norekila minzo izan han agoen artian.

Ilherrian

- 29 Hilez unsa orhit adi ilherrian sartzian,
hi nolako ziradela bizi ziren artian;
hek bezala hil behar duk eta ez jakin orduia;
othoi egik Jeinkoari deien barkamendua.

Batheiarria

- 33 Elizara izanian so egik bateiarriba;
pensa ezak han duiala rezebitu fedia,
Jeinkoaren grazia eta salbatzeko bidia;
hari egin albaiteza lehen ezagutzia.

Gorputz sailduia

- 37 Bertan gero so albaitegi non den gorputz sailduia;
pensa ezak hura dela hire salbazalia;
ador'ezak debozionez eta galde grazia
azken finian eman diazan rezebitze dignia.

Kurutzea

- 41 Kruzifika ikhus eta orhit adi orduian
nola izan redemitu haren odol sailduiaz;
hark erio haritu dik hiri leian bizia;
pensa ezak nola eman hari bere ordia.

Andre Dona Maria

- 45 Andere hona den lekhura ailtxa itzak begiak;
mundu oro eztakidik hura bezain balia;
Jeinkoaren hurranena hura diagok glorian:
graziak oro bere eskuian nahi duien orduian.
- 49 O andere gloriosa eta ama eztia!
zutan dago bekhatoren esperanza guzia.
Ni zugana niatorkezu, bekhatore handia,
arimaren salbatzera zu zakiztan balia.

Sainduier

- 53 Sainduier ere egin ezak heure ezagutzia,
singularki nortan baituk heure deboziona;
zein sainduren besta daten orhit egun berian
eta noren izenetan fundatu den eliza;
orhituki othoi egin, dakizkian balia.

Orazione igandeko

- 58 Miserikordiaz bethe ziraden jaun eztia!
othoi, enzun iazadazu neure oraziona;
bizi nizan artian eta erioko phunduian
zuk idazu, othoi, oso neure endelgamendua,
alteratu gabetarik zure feder sainduan
gauzen unsa egiteko neure azken finian.
- 64 Eta orduian zuk idazu indar eta grazia
bekhatuiez ukheiteko bide dudan doluia,
perfektuki egiteko neure konfesonia,
neure bekhatuiez oroz dudan barkhamendua,
bai digneki errezebi zure gorputz sainduia,
baietare behar diren berze sagramenduaik.
- 70 Etsai gaitza jinen baita tentatzera orduian
nontik engana niroien bere arte guziaz,
othoi, jauna, enguztazu lagun zure sainduiak
en'etsaiak benzi enazan neure azken finian.
- 74 Ene arima orduian har, othoi, zure glorian,
nola baita redemitu zure odol sainduiaz,
eta nik han dakusadan zure begitartia
eta sainduieki lauda zure majestatia.
- 78 Goiz et'arrats egiten duk buluz eta beztitzia,
gorputzaren zerbitzutan barazkari afaria;
arimaren salbatzeko Jeinkoaren ohorian
etzaiala, othoi, neke gauza hoien egitia,
egun oroz ezin bada aste oroz igandian.
- 83 Gure artian haur dakusat itsutarzun handia,
nola dugun zerbitzatzen hanbat gure etsaia;
Jangoikua deskonozi gure salbazalia
eta orok ezagutzen dela bidegabia.
- 87 Anhitz jendez miraz nago, neure buruiaz lehenik,
nola gauden mundu huneki hain borthizki josirk,
hanbat jende dakuskula hunek enganaturik;
oranokoakigorri'tu oro buluzkorririk
eta eztute gerokoek hantik eskapatzerik.
- 92 Person'oro hil denian hirur zathi egiten:
gorputzori usteltzera lur hotzian egoizten,
unharzuna ahaidiek bertan dute partitzen,
arima gaixoa dabilela norat ahal dagien;
hain biaje bortitzian konpainia faltatzen.

- 97 Orhituki igandian behar dugu pensatu
zenbatetan egin dugun aste hartan bekhatu;
orhit eta Jeinkoari barkhamendu eskuatua,
atorra nola arim'ere aste oroz garbitu.
- 101 Bi pundutan diagozu gure gauza guzia:
hongi egin badazagu segur parabizuia,
bekhatutuan hil dadina bertan kondenatuia.
Berze biderik ezin date; hobenari begira.
- 105 Ehon ere eztakusat hain laxo den artzainik,
otsoa khenzen eztuienik bere ardietarik;
gure arimaz kargu dugu Jangoikuak emanik,
nola gobernatzen dugun batbederak so begi;
kondu hersi behar dugu harzaz eman segurki
nori baitu bere odolaz karioki erosio;
hala zinets eztazana dauke enganaturik.
- 112 Kontenplatu behar dugu pasione sainduia
eta sendi bihotzian haren pena handia;
nola zagoen kurutzian oro zauriz bethia,
huin eskuiak itzaturik eta buluzkorria,
- 116 ohoineki urkaturik, nola gaizkigilia,
eta arhanbez koroaturik mundu ororen jibia;
haren gorputz prezioso eta delikatuia
gaizki eskarniaturik eta zathikatuia.
- 120 Elas! orduian nola zagoen haren a[ri]ma tristia,
haren ama maitia eta mundu ororen habia,
pena hetan ekustea bere seme maitia
eta hiltzen begietan mundu ororen bizia.
- 124 Biotzian diraustazu gertuz, ama eztia,
zure orduko doloriak eta bihotz zauriak:
begiez nola zenakusan zure jabe handia
orotarik lariola odol preziatuia;
hek nigatik ziradela ari nuzu khondua.
- 129 Orhit adi nola duian egin anhitz bekhatu,
heien kausaz merexitu anhitzetan hondatu,
bere miserikordiaz nola huien guardatu
eta dolu ukhen baduk bertan oro barkhatu;
eta agian hik eginen bertan berriz bekhatu.
- 134 Orhit adi Jengoikoaren majestate handiaz,
zeruia, lurra, itxasoa dadutzala eskuiian,

- salbatzia, damnatzia, erioa eta bizia,
estenditzen orotara haren protestatia;
ezi eskapa hari ehor, dauginian manuia.
- 139 Mundu honetan badirogua batak berzia engana,
bana berzian egiatik batbedera joanen da;
nor nolako izan giren orduian ageriko da,
egin, erran, pensatuiak, ageriko guziak.
- 143 Orhit adi Jeinkoaren justizia handiaz,
nola orok behar dugun eman khondu hersia,
egin oroz rezebitu gure merexituia,
erioa dauginian, baita haren mezua.
- 147 Ordu hartan afer date hari apelatzia,
hark egori eztemaio oren baten ephia,
ezetare estimatzen xipia ez handia;
batbederak egarriko orduian bere haxia.
- 151 Orduian zer eginen dut, gaixo bekhataria?
Arartekoak faltaturen, kontra juje handia;
abokatzen eztakike ehork haren gortian,
ogen oro publikoki agerturen orduian.
- 155 Elas, othoi, orok egin orai penitencia,
behar orduian eztukegu gero agian aizina;
anhitz jende enganatu doa luzamenduiaza,
seguraturik ehork eztu egun baten bizia.
- 159 Gu girade egun oroz herioaren azpian;
behar dugu prest eduki gure gauza guzia,
gure gauzez ordenatu, oso giren artian,
gero eztugun egiteko hezaz azken finian;
arimaz aski egiteko badukegu orduian.
- 164 Pensa, othoi, nola gauden bi bideren erdian,
salba bano damnatzeko perileko punduian;
ehor fida eztadila, othoi, banitatian;
sainduiak etziraden sarthu banitatez glorian.
- 168 Elas, othoi, hunat beha bekhatore guzia;
bekhatuiaz damnatzen du Jangoikuak munduia;
zeren hanbat bekhatutan deramagu bizia
eta guhausk gure faltaz galtzen gure buruia?
- 172 Artzain orok biltzen ditu ardiak arratsaldian,
leku honerat eramaiten eguraldi gaitzian;
batbederak pensa beza arimaren gainian
nola salbaturen duen hora bere finian.

- 176 Bekhatorek ifernuian dute pena handia,
pena handi, izigarri, ezein pausu gabia;
sekulakoz egon behar hango sugar bizian;
zuhur denak, hara eztohen, egin penitenzia.

Harmak erioaren kontra

- 180 Erioa jaugiten da guti uste denian
eta agian ez emanen konfesione ephia;
hirur gauza albaditu ehork ere egiaz,
nola ere hil baitadi, doha salbamenduian.

Lehen egia

- 184 O jaun hona, aitortzen dut bekhatore nizala
eta gaizki egitziaz ogen handi dudala;
nik baititut ofensatu bide eztudan bezala,
dolu ditzit eta damu zure kontra eginaz.

Bigarren egia

- 188 O jaun hona, gogo ditzit oren present honetan
goardatzeko bekhaturik bizi nizan artian;
othoi, jauna, zuk idazu indar eta grazia
gogo honetan irauteko neure bizi guzian.

Heren egia

- 192 O jaun hona, gogo ditzit garizuma denian
egiazki egiteko neure konfesiona,
baietare konplitzeko didan penitenzia;
othoi, jauna, zuk konfirma ene borondatia.
- 196 Eta hoiek egiazki ehork hala ezpaditu,
albailiaki duda gabe ezin dateiela salbu
bere bekhatuak oro baditu ere konfesatu;
eta hala zinhets beza nahi eztenak enganatu.
- 200 Apezek ez apezpikuk ezetare aita sainduk
absolbatzen halakoaren ezein bothererik eztu;
Jangoikua bethiere bihotzera so diagozu,
guhausk bano segurago gure gogua diakutsu;
gogua gabe hora baitan hitzak oro afer tuzu,

- 205 Regla ezak egun oroz onsa heure etxia;
 eure gauza guzietan emak dilijenzia;
 eta eure trabaileua duian penitenzia,
 Jangoikua lauda ezak gauza ororen buruian.
- 209 Honekila albaiteza bethi ere konbersa,
 gaixtoeki ezin aite gaizki bezi probetxa;
 berzer egin eztazala nahi ez ukeiena
 ezetare falta ere hiaurk nahi duiana;
 lege honi segi bedi salbu nahi duien.

Hamar manamenduiak

- 214 Ador'ezak Jangoiko bat, onhets oroz gainetik;
 haren izena ez jura kausa gabe banoki;
 igandiak eta bestak sanktifica debotki;
 aita eta ama ohora itzak, bizi izan luzeki;
 ehor erho eztazala ezetare gaitzetsi;
 nork beria baiezila emazterik ez hunki;
 berzerena eztazala ebatsi ez eduki;
 fama gaitzik eztemala lagunari falsuki;
 berzen emazte alabak ez desira gaixtoki,
 ezetare unhasuna, lekot bedi justoki.
- 224 Manamenduiak hoiek dira, Jangoikuak emanik;
 hok begira ditzagula, salba giten hegatik.

Judizio jeneralak

- 226 Judizio jeneralaz nola orhit eztira,
 bekhatutan bizi dira bethi bere aisira;
 egun hartan gal ezkiten, aitzinetik begira,
 han orduian eztukegu ehork ere aizina;
 harzaz unsa orhitzia zuhurtzia handi da.
- 231 Arma! arma! mundu oro judizio handira!
 Zeru eta lur ororen kreadore handia
 munduiaren jujatzera rigoroski heldu da;
 nola gauden aphaindurik batbederak begira.
- 235 Manamendu igorten du mundu guzietarik
 jende oro bat dakion Josafaten bildurik;
 ehon ere ehor ere eskapatu gaberik
 zeru eta lur guzia daude ikharaturik.

- 239 Erioa manatzen du, ezein falta gaberik
hilak oro dakatzela aitzinera bizirik,
hantik harat eztukela bothererik jagoitik;
mundu oro jarriren da bi lekutan hersirik:
glorian ezpa ifernuian; ezta eskapatzerik.
- 244 Manatzen du ifernuia handi eta bortizki
han direnak igor'itzan luzamendu gaberik,
arima eta gorpuzetan nahi tuiela ikusi
eta emanen daraiela zer baitute merezi.
- 248 Jende honak, onsa pensa juje hunen gainian
nola duien guzietan potestate handia,
erioan, ifernuian, zero eta lurrian.
Zeren dabil haren kontra, bada, behatoria?
- 252 Gure artian haur dakusat itsutarzun handia,
nola dugun zerbitzatzen hanbat gure etsaia;
Jangoikoa deskonozi gure salbazalia
eta orok ezagutzen dela bidegabia.
- 256 Harren bier emanen du sentenzia pizua
elgarreki pena diten ifernuko garrian,
sekulako suian eta ezein pausu gabian.
Orok, othoi, onsa pensa zer den irabazia.
- 260 Egundano ezta izan, ez izanen jagoitik,
judizio hain handirik ezetare borthitzik;
sortu eta sortzekoak, hilez gero pizturik,
orok hara behar dute eskusatu gaberik.
- 264 Anhitz gauza behar dira judizio handian:
jujeak duien potestate parte ororen gainian,
demandantak erran dezan bere kausa egiaz,
baietare defendantak bere defensionia;
porogatu datenian nork dukeien zuzena,
sentenziaz eman dezan jujiak nori beria.
- 270 Egun hartan juje date mundu ororen jibia,
baitu ororen gainian potestate handia;
akusari bera date eta konzienzia;
bekhatu oro publikoki ageriko orduan.
- 274 Behatoren kontra date orduan mundu guzia,
zeren duten ofenditu haien kreazalia;
ordu hartan ixil dauke triste behatoria;
orotarik zerraturik daude pausu guziak.

- 278 Juje jauna iraturik egonen da gainetik,
irestera aphaindurik ifernuia azpitik,
etsai gaitza akusatzen ezkerreko aldetik,
bekhatuiak eskuinetik minzaturen publiki:
«hire kontra heben gituk, ihaurrek eginik». Gaizkienik kontra date konzienza barnetik.
- 284 Estaltzeko ez izanen ehon ere lekhurik;
agertzera nork eginen ordu hartan bathirik?
Mundu oro egonen da haien kontra jarririk,
sainduak ere ordu hartan oro egonen ixilik,
jujeak ere ez enzunen ezein ere othoiik;
egun harzaz orhit giten, othoi, hara gaberik.
- 290 Non dirate egun hartan hebengo jaun erregiak,
duke, konde, markes, zaldun eta berze jaun nobliak
eta haien armadako gizon sendoen balentiak?
Ordu hartan baliako guti haien potenziak.
- 294 Jurista eta theolo, poeta eta doktoriak,
prokurador, adbokatu, juje eta notariak?
Ordu hartan ageriko klarki haien maliziak
eta guti baliako kautela eta parleriak.
- 298 Aita saindu, kardenale, aphez eta prelatuiak?
Berez eta ardi oroz eman behar han konduia;
egun hartan handiena izanen da erratuia
eta bardin jujaturen handia eta xipia.
- 302 Afer date egun hartan hari apelatzia,
ehon ere eztazagu jaunik bere gainian;
malizia gaitzi zaika eta maite egia.
Elas, othoi, orok egin orai penitenzia,
egun hartan gero eztugun egiteko handia.
- 307 Seinaliak jinen dira aitzinetik tristerik,
elementak ebiliren oro tribulaturik,
iguzkia, ilhargia odoletan etzinik,
itxasoa samurturik goiti eta beheiti,
hango arrainak iziturik ebiliren jalgirik.
- 312 Eta lurra izigarri oro ikharaturik,
zuhamuiek dakartela odolezko izerdi;
tenpestatez, igortziriz, aire oro samurrik;
mendi eta harri oro elgar zatikaturik;
mundu oro jarriren da suiak arrasaturik.

- 317 Juje jaunak manaturen, bera jaugin gaberik,
gauza oro xahu dezan behin suiak lehenik,
Satsu eta kirats oro dohen mundu guzitik;
eta hala jarriren da lur guzia errerik.
- 321 Tronpeta da minzaturen mundu guzietarik:
«Hilak oro, jaiki huna zuien hobietarik,
arima eta gorputzetan oro bertan pizturik».
Orok hara behar dugu eskusatu gaberik.
- 325 Justu oro iganen da bertan goiti airian
eta egonen eskoinetik jujearen aldean;
bekhatoreak dolorezki sugarrian lurrian,
harik eta danzuteno sentenzia gainian.
- 329 Dagoenian jende oro aitzinian bildurik,
jauginen da rigoroski sainduieki zerutik;
Josafaten egonen da airian gora jarririk,
bekhatorer eginen du arrangura handirik;
haren hitzak ezarriren oro erdiraturik.
- 334 Hartu nahi zuienian pasione saindua,
haren kontra jin zenian armaturik jendia,
hitz huts batez iziturik egotzi'tu lurrian;
jujatzera dauginian majestate handian,
nola eztu lotsaturen ordu hartan mundua?
- 339 Erranen du bekhatorer dolorezki orduian:
«Nizaz etzineten orhit bizi zinetenian;
hanbat ongi nik egunik zuier zuien mendian,
esker hon bat ukhen eztut zuieganik bizian.
- 343 Zer ere hon baituzuie, oro dira eniak:
gorputz eta hon guziak, baietare arimak;
zuiendako egin ditut lurra eta zeruiak,
iguzkia, ilhargia eta fruktu guziak.
- 347 Suiak bero, hurak xahu, hats hartzeko airia,
ainguruiak zuien goarda, ararteko sainduiak,
zuiegatik ezarri dut gero neure bizia;
hoiegatik orogatik zer da zuien pagua?
- 351 Ikhusirik anhitzetan beharian pobria,
eri, gose, egarria eta buluzkorria,
ene izenian anhitzetan galdeginik limosna,
zuiiek ukhen baituzuie hezaz guti ansia.

- 355 Bai erhoki konplazituene kontra etsaia,
demonio, haragia, baietare munduia.
Orai dela zuiendako maradiziona,
ifernuko suia eta jagoitiko nekia,
eta zuien konpaina demonio guzia».
- 360 Ezta anhitz luzaturen exekuziona,
bertan date irekiren lurra oren berian,
su hareki iretsiren oro bere barnian;
haur izanen behatoren undar irabazia.
- 364 Elas, nola izanen den heben damu handia,
damu handi, izigarri, remedio gabia,
hanbat jende sekulakoz damnaturen denian.
O jaun huna, zuk gitzazu, othoi, hantik begira.
- 368 Beretara itzuliren ditu gero begiak:
«Goazen oro elgarreki, ene adiskidiak,
bethi eta sekulakoz gauden ene glorian,
desir oro konpliturik alegria handian».
- 372 Hantik harat ezta izanen bi erretatu baiezi:
damnatiuak ifernuian bethi dolorereki,
salbatuak Jeinkoareki bethi alegeraki.
Jangoikuak dagiela gure partia hoieki.
- 376 Zerua ezta ebiliren hantik harat jagoitik,
iguzkia egonen da orienten geldirik,
ilhargia okzidenten begiz begi jarrik;
egun honek iraunen du eben eta jagoitik,
alabana ez izanen heben gauza bizirik.
- 381 O jaun hona, zu zirade gure kreazalia;
bekhatore bagir'ere, oro gira zuriak;
gure faltaz gal eztadin, othoi, zure egina,
bekhaturik garbitzazu, othoi, gure arimak.
- 385 Baldin erideiten bada gutan falta handia,
are duzu handiago zutan pietatia.
Zuretarik giren, othoi, egiguzu grazia;
zure ama anderia dakigula balia.

Orazionia

- 389 Ave Maria, anderia grazia oroz bethia,
Jeinkoaren ama birjen berak ordenatuia,
zeru eta lur ororen erregina dignia,
bekhatoren adbokata eta konfortaria!

- 393 Ni zugana niatorkezu, bekhatore handia,
karioki othoitzera zu zakiztan balia,
digne ezpaniz aipatzera zure izen sainduia
ez jitera aitzinera, zeren bainiz satsuia.
- 397 Miserikordiaz bethe ziren andere handia!
Enazazula, othoi, iraitz eta ez menosprezia;
zuk gibela badidazu, elas, ama eztia,
ordu hartan diakusazut galdu neure buruia.
- 401 Hanbat nuzu gauza orotan ni berthute gabia,
oren oroz bekhatutan nabilena galduia
eta bethi erratuia, nola ardi itsuia,
mundu hunek, haragiak, bethi enganatuia.
- 405 Zu baitzira grazia ororen ama eta iturburuia,
berthute eta hon guzien thesorera handia,
egundano bekhatutan makulatu gabia,
berthutetan segitzeko egidazu grazia.
- 409 Zutan dago bekhatoren remedio guzia,
esperanza, osagarri eta salbamendua;
zuk gibela demazuna nola baita galduia,
zure gomenduian dena halaber da salbuia.
- 413 Jeinkoak zuri eman dizi potestate handia,
haren ama ziren gero, ama ere maitia,
zeru eta lur orotan duzun hanbat balia,
zer zuk galde baitagizu, den konplitu guzia,
- 417 eta zure eskutik duten berze orok grazia
eta salba zuk dezazun zuri gomendatuia.
O andere exzelente, ezein pare gabia,
salbatuietarik nizan egidazu grazia.
- 421 Zuri gomendatzen nuzu hila eta bizia,
neure gorputz eta arima eta dudan guzia;
othoi, behar orduietan zu zakitzat balia
eta, othoi, zuk goberna ene bizi guzia,
- 425 eta irabaz Jeinkoaganik indar eta grazia,
bekhatuiez egiteko unsa penitenzia
eta gero berthutetan deramadan bizia
eta egin gauza orotan haren borondatia.

- 429 Begira, othoi, meskabutik ene gorputz pobria;
bekhatutan hil ez nadin egidazu grazia,
sekulakoz damnaturik enoian galduia,
bana zure eskutik dudan salbatzeko bidia,
- 433 eta gero dauginian ene eriotzia,
arimaren partitzeko oren izigarria,
ordu hartan behar baitut eman kondu hersia,
egin oroz rezebitu neure merexituia.
- 437 Eta ez jakin lehen gaoian non daten ostatuia,
ezetare, zu ezbazira, nor dakidan balia;
ordu hartan hel zakitzat, othoi, ama eztia,
ararteko leial eta neure aiutaria.
- 441 Othoi, zure gomenduian har arima tristia,
ordu hartan jo eztezan ifernuko bidia;
zure seme jaunareki egidazu bakia,
bekhatuiak barkhaturik didan parabizuia.
- 445 Eta nik han dakusadan zure begitartia
eta sainduieki lauda haren majestatia.
Zeren unsa orhit ziten nizaz, ama eztia,
gogo honez erranen dut zuri Ave Maria;
orazione haur derrana, andre dona Maria,
othoi, gomendatu duzun hila eta bizia.

II.- AMOROSEN GAZTIGUIA

- 1 Berzek berzerik gogoan eta nik andre dona Maria;
andre hona dakigula guzior, othoi, balia.
- 3 Amorosak nahi nuke honat beha balite;
hon lizaten gaztigurik agian enzun liroite,
amore bat hautatzeko konseilu bat nekeie,
balinetan sekulakoz gogoan sar balekie.
- 7 Nihaurk ere ukhen dizit zeinbait ere amore,
bana hantik eztut ukhen probetxurik batere;
anhitz pena, arima gal, harena eta neuri'ere;
amoretan plazer baten mila dira dolore.
- 11 Amoretan othe date leial denik batere,
hitz ederrez ezpa joiaz mutha eztadin hura ere?
Hoben uste duienori anhitzetan traidore;
hobena date gaitzenik, arimaren berere.
- 15 Bekhatuzko amoria bethi date traidore;
erioa dauginian egia zogeri date;
hartu duten plazer oro orduian iragan date;
bekhatuia gelditzen da penatzeko gero ere:
anhitz plazer ukhen badu, anhitz behar dolore.
- 20 Amore bat nahi nuke liadutanik egia,
bizi eta hilez gero hain lakidan balia;
zerbitzatu nahi nuke halakoa bizian;
heben labur bizia da, jagoitikoz berzia.
- 24 Mundu oro iraganik ez eriden berzerik,
Jeinkoaren ama hona grazia oroz betherik;
haren amore izateko ezta ehor dignerik;
unsa zerbitza dazagun; maite gitu bertarik.
- 28 Amoriak bano dira harzaz berze guziak;
behar handien denian faltaturen berziak;
uste bano lehen gira hiltzen bekhatoriak;
hark aiuta ezpagitza, nola giren galduiak!
- 32 Andre hona har dazagun orok gure amore,
Berze oro utzi eta egin hari ohore;
hala egin badazagu, ohoratu girate;
berzegatik hura gabe oro galdu girade.

- 36 Jeinkoaz landan mundu orok eztu hanbat balia,
 zeruia, lurra, itxasoa, haren peko guzia;
 orotara hedatzen du, behar bada, eskuia,
 bera handi izan arren, preziatzen xipia;
 halakoa utzi eta, non dukegu berzia?
- 41 Berze amoreak baten bezi eztirade perestu,
 nork beria berziari eztu nahi partitu;
 ama birjen gloriosa hanbat bada konplitu,
 ororenzat bera baita, leial dela, abastu.
- 45 Amorosek badagite behin bere nahia,
 handiago jiten zaie berze nahikaria;
 ezi ukhen behin ere bere konplimendua;
 bethi peitu deramate bere mende guzia.
 Emazte eta gizon orok, har amore Maria
 eta orori baitekegu berak konplimendua.
- 51 Andre honak ukhen dizi ederretan grazia
 ehork hura gaxteriaz ezin lezan inbia,
 bana bistaz hiltzen zuien nahikari satsuia;
 figuraren ekhustiaz dakikezu egia.
- 55 Itxasoan hur guzia, zeruietan izarra,
 oihanetan itzalori, lur guzian belharra,
 egunari iguzkia, gau beltzari ilhuna
 lehen faltaturen dira ezi hura gugana,
 balinetan egiazki gu bagaude hargana.
- 60 Zeren, bada, erho gira gaixo bekhatariak?
 Andre leial honegana goazen, othoi, guziak.
 Elas, othoi, aribira berze amore falsuiak.
 Harekila segur dugu behar dugun guzia.
- 64 Elas, amoros gaixoa, hire enganatuia,
 erhogoatan badaramak eure mende guzia!
 Ene andere graziosa ezpadakik balia,
 bai bizian bai hilian bethi oha galduia.
- 68 Denbora duian artian egik ahal hongia;
 erioa dauginian miraz dukek orduia;
 orduian ere, nahi baduk onsa jalgi dagia,
 onsa hari gomend'adi, nik diosat egia:
 finian ere eztik uzten hark galtzera beria,
 orduian ere bere eskuian dik grazia guzia.

- 74 Mundu honek anhitz jende enganatu darama,
jagoitikoz bizi ustez haren sehi dabiltza,
guti uste duienian ehor utzi darama;
erho jokhatuia date hartan fida dadina.
- 78 Nihaur ere ebili niz anhitzetan erhorik,
gaoaz eta egunaz ere hotzik eta berorik:
loa galdu, pena aski, bana ez arimagatik;
orai oro nahi nuke liren Jeinkoagatik.
- 82 Ni bezala anhitz duzu halakorik munduan
mende oro dohatenik bethi banaglorian;
ohart giten buruiari denbora den artian,
andre honak har gitzake gomendutan agian;
hanbat bada graziosa ama ororen gainian,
jin dadinik eztu uzten hartu gabe grazian.
- 88 Kulpa gabe ehor ezta, haur da segur egia;
bekhatuiaz damnatzen du Jangoikoak mundua;
bekhaturik ezta izan zutan, andre handia;
ararteko zakizkula, digun barkhamendua.
- 92 Bekhatoren salbatzeko Jeinkoak egin zinduzen,
bere buruia egin dizi juje justiziaren,
zu miserikordiaren refugio zinaden,
nola berak justizian ezin salba litzake,
zure miserikordiaz remedia litezen,
balinetan egiazki zugana jin balite.
- 98 Egundano ezta izan ez izanen jagoitik
bekhatore hain handirik ezetare satsurik,
bere bidian jaugin bada zuri gomendaturik,
ukhen eztuien barkhamendu zure amorekatik;
ez galdu da ez galduren zure gomendukorik;
zuri gomendatzen gira hilik eta bizirik.
- 104 Berze emaztiak ama dira zenbait haurto xipiren
eta gero obororik punzela ezin dirate;
zu, anderia, ama zira birjinarik Jeinkoaren
eta geroz erregina zeru eta lurraren.
- 108 Jeinkoa jaun den gauza ororen zu zirade andere;
arrazoin da mundu orok dagien zuri ohore,
ezi hala ari zautzu Jesu Kristo bera ere;
zuk bezanbat dignitate mundu orok eztuke.

- 112 O anderia, ezin date ehor zure bardinik,
gainekorik zuk eztuzu Jeinko beraz berzerik,
Jeinko ezten berze oro dago zure azpitik,
Jeinkoaren ama zira mundu oroz gainetik.
- 116 Mundu orok eztu egin zuk bezanbat hargatik,
orogatik bano oboro hark ere daidi zugatik;
bere ama ezin utzi obeditu gaberik;
othoi, grazia egiguzu, giren zuienetarik.
- 120 Unsa zuk har banenzazu gomendutan gogotik,
ezin damna naindeiela zinesten dut segurki;
anhitz begiratu duzu galduren zenetarik,
niri ere hel zakitzat, othoi, galdu gaberik.
- 124 Ehon ere gaitzik ezta zuk khen eztirozunik,
ezetare hontasunik zure eskuan eztenik;
denbora eta leku orotan ezin duda gaberik
graziak oro zure eskuan Jangoikoak emanik.
- 128 Nahi duiena hala duke amak semiaganik,
seme honak anhitz daidi amaren amorekatik;
gure natura haritu du zutan amoraturik;
Jangoikoa ezarri duzu gure anaieturik.
- 132 Haren eta gure ororen ama zira dignerik;
amak eztu sofritzeko semen artian gerlarik;
samurturik badakutsu gure gaizkiegatik,
ororen ama zira eta bake gitzazu bertarik.
- 136 Orai egiten diraden gaizki handiegatik
Jeinkoak ondatu zukeien lur guzia engoitik,
balinetan zu ezpazina ararteko gugatik;
oro sostengatzen gitu zure othoiegatik,
gu gaixtoak izan arren, ezten zutan faltarik.
Fin honera hel gitzazu, giren salbuietarik.
- 142 Ama eztia, nik badagit zure kontra faltarik,
zuk gaztiga eta dreza nazazu, othoi, bertarik.
Elas, norat ihes naidi, zu neure ama utzirik?
Neuretako eztazagut zu nolako amarik.

III.- EMAZTEN FABORE

- 1 Emaztiak ez gaitz erran ene amorekatik;
gizonek utzi balitzate, elaidite faltarik.
- 3 Anhitz gizon ari bada andrez gaizki erraiten,
arhizki eta desoneski baitituzte aipatzen,
ixilika egoitia ederrago lizate;
andrek gizoneki bezi hutsik ezin daidite.
- 7 Zuhur gutik andregatik gaizki erran diroite,
haiez hongi erraitea onestago lizate.
Emazteak zerengatik gaitz erranen dirate?
Handi eta xipi oro haietarik girade.
- 11 Balentia simplea da andren gaitz erraitea,
bat gaitz erran nahi badu, oro bardin sartzea;
ixil ladin nahi nuke halako den guzia;
damu gaitzik emazteak hari eman dithia.
- 15 Andren gaitz erraile orok behar luke pensatu
bera eta berze oro nontik ginaden sorthu;
ama emazte luien ala ez nahi nuke galdu;
amagatik andre oro behar luke goratu.
- 19 Gizonaren probetxuko emaztia bethi da,
oro behin haietarik sortzen gira mundura;
sorthu eta hil ginate, hark haz ezpaginitza;
haziz gero egun oroz behar haren aiuta.
- 23 Haren eskuz osoan behar soinera eta jatera,
eri denian andre gabe galdu gizon egurra;
hil badadi, hora nola nor doake gainera?
Ordu oroz behar tugu; ezta heben zer duda.
- 27 Emazterik ezten lekuian eztakusat plazerik,
ez gizona ez etxia behin ere xahurik,
etxian den gauza oro gaizki erreglaturik;
parabizuian nahi enuke emazterik ezpaliz.
- 31 Emaztiak eztut enzun lehen gizona jaukirik,
bana gizonak emaztia bethi ere lehenik;
gaixteria jalgiten da bethi gizonetarik;
zeren, bada, daraukate emaztiari hogenik?

- 35 Bertuteak behar luke gizonetan handiago,
emaztetan nik dakusat hongiz ere gehiago;
mila gizon gaixtorik da emazte batendako,
gizon baten mila andre bere fedeau dago.
- 39 Hek gizoner beha balite, elizate bat honik,
eztiroite deuskai denik utzi jauki gaberik,
bana anhitz emazte da eskapatzen zaienik,
anderetan zeren baita bertutea hobenik.
- 43 Nik eztanzut emaztiak bortxaturik gizona,
bana bera zoraturik andriari darraika;
zenbait andre hel baledi oneritez hargana,
zein gizonek andriari emaiten du ogena?
- 47 Jeinkoak emaztea maite mundu oroz gainetik;
zerutika jaitsi zedin harzaz amoraturik;
emaztiak ezarri du gure anaieturik;
andre oro laudatzeko haren amorekatik.
- 51 Irudi zait, emaztia dela gauza ezta,
donario guzietan guziz gauza emia;
gaoaz eta egunaz ere badu plazer handia;
harzaz gaizki erraitia bilania handia.
- 55 Munduan ezta gauzarik hain eder ez plazentik
nola emaztia gizonaren petik buluzkorririk;
beso biak zabaldurik dago errendaturik,
gizonorrek dagiela harzaz nahi duienik.
- 59 Jo badeza dardoaz ere gorputzaren erditik,
ainguruiak bano oboro ez larrake gaizkirik,
bana dardoa ematurik, zauri'ere sendoturik,
bere graziaz ezarte'intu elgarreki baketurik.
- 63 Nor da gizon modorroa harzaz orhit eztena
eta gero halakoa gaitz erraiten duiena?
Ezta gizon naturazko hala egiten duiena.
Zeren eztu ezagutzen hala hongi egina?

IV.- EZKONDUIEN KOPLAK

- 1 Jangoikoa, edetazu berzerena gogotik,
bera kaptiba da eta ni gathibu hargatik.
- 3 Ni gathibu nadukana kaptiba da berzeren;
ene ditxak hala egin du, ni gathibu bigaren;
gogo honez izanen niz, bizi baniz, bataren,
bana bortxaz baiezila ez jagoitik berziaren.
- 7 Berzerena har dazanak beretako amore
oborotan ukhenen du plazer bano dolore;
batzarriak bekhan eta beldurreki dirate,
guti uste dutenian gaitza bertan sor daite.
- 11 Honestea berzerena erhogoa handi da,
plazer baten ukhenen du anhitz malenkonia:
begiez ikus, ezin minza; han dakusat nekia;
beriareki datzanian enetako aizia.
- 15 Perileki baiezila ezin noake hargana
eta agian hark orduian ezpaituke aizina;
badu ere, beldur date; bertan doha harzara;
nik nahien dudanian, berzek besoan daratza.
- 19 Alhor hartan hel badakit ereitera hazia
eta ene bada ere lastoa eta bihia,
ez batori ahal duket ezetare berzia;
lan eginaz esker gaixto, galdu irabazia,
berzerenzat gelditzen da ene zuzenbidia;
agian gero alabareki ezkonduko semia.
- 25 Amoria ehork ere eztu nahi partitu;
nik eztakit berziak bana, ni ari niz bekhatu;
beriareki ekhustiaz hain hain noha penatu,
hek dostetan, ni neketan; orduian errabiatu.
- 29 Jelosiak eztitzaket nik gaitz erran sekulan;
maite nuiena nahi enuke ehork hunki liazadan;
berzerenaz izan nuzu amoros lekhu batetan,
beriagana jelosturik desesperatzer ninzan.

- 33 Amoria ezin zenzuz ezin daite goberna,
anhitzetan honesten du guti behar duiena;
arnoak bano gaizkiago ordi diro persona;
sarri estaka, berant laxa, hark hatzeman dezana.
- 37 Amoria itsu da eta eztazagu zuzena,
eztu uste berzerik dela, lekot maite duiena;
suiak bano gaizkiago erra diro gizona;
itxasoak ez iraungi eratxeki dadina.

V.- AMOROS SEKRETUKI DENA

- 1 Andre eder jentil batek bihotza deraut ebatsi,
harzaz orhit nadinian deus ere ezin iretsi;
nik hura nola, nahi nuke hark banenza onhetsi;
ezin benturatuz nago, beldur dakion gaitzi.
- 5 Mirail bat nik ahal banu hala luien donoa,
neure gogoa nerakutson sekretuki han barna,
han berian nik nakusen harena ere nigana,
hutsik ezin egin nezan behin ere hargana.
- 9 Ene gaizki penatzeko hain ederrik sortu zen,
gaoaz eta egunaz ere gaizki nizi penatzen;
harekila bat banadi, bihotza zait harritzen,
neure penen erraitera are eniz ausartzen.
- 13 Ene gogoa baliaki, maite bide ninduke;
ni errege balin baninz, erregina lizate;
hura hala nahi baliz, elgarreki ginate;
haren haurrak eta eniak aurride oso lirate.
- 17 Balinetan nik banerro hari neure bihotza
eta gero balin balit respuesta bortitzia,
dardoak bano lehen liro erdiraene bihotza;
duda gabe eror nainde han berian hilhotza.
- 21 Artizarrok berzetarik abantaila darama:
halaber da anderetan ni penatzen nuiena;
hanbat da eder eta jentil, harzaz erho narama;
zori honian sortu date haren besoan datzana.
- 25 Ene gogoa nola baita zuzen jarri hargana,
haren'ere Jangoikoak dakarrela nigana,
ene pena sar dakion bihotzian barrenan,
gogo hunez egin dazan desiratzen dudana.

VI.- AMOROSEN PARTITZIA

- 1 Parti albanengidio, hark ez luke parerik,
alabana nik eztizit hain hon deritzadanik.
- 3 Amore bat onhetsi dut guziz soberatuki,
ene arima eta bihotza josi dira hareki;
haren irudi ederrori begietan ehoki,
harzaz orhit nadinian, bihotza doat ebaki.
- 7 Nik hargana hanbat ditz amorio handia,
harekila egoitiaz ezpaneinde enoia;
harganiko partitzia ene eihargarria;
berriz ikus dirodano, bethi malenkonia.
- 11 Elas, ene amoria, nola nuzun penatzen,
zurekila ezin bathuz bihotzian erratzen;
ene gaizki penatzeko segur sorthu zinaden;
penak oro hon lirate, zu bazina orhitzen.
- 15 Minzatzeko zurekila gau bat nahi nikezi,
hilabete konpliturik hura luza baledi,
arranguren khondatzeko asti nuien frangoki,
ezein ere beldur gabe egoiteko zureki.
- 19 Orai porogatzen ditz dakitenen errana:
ehork utzi eztazala eskuietan duiena.
Elas, itzul albaneza iragan den denbora,
segur orai enikezi dudan gogoanbeharra.
- 23 Denbora harten ohi nizin nik zugatik dolore,
orai aldiz zure faltaz muthatu niz ni ere;
malenkonia etzitela; badukezu amore,
bana ordu bazinduke zenzatzeko zuk ere.
- 27 Badakizu, dolorian partaide niz ni ere
eta zure muthatzeko ez ogenik batere;
neure gaizki penatzeko har zinzadan amore;
jagoitikoz ukhenen dut nik zugatik dolore.

VII.- AMOROS JELOSIA

- 1 Beti penaz izatia gaitz da, ene amore;
beti ere behar duta nik zugatik dolore?
- 3 Amore bat ukhen ditzit miragarri jentilik;
harekila ninzanian enuien nik faltarik;
nik jagoitik ezin nuke hora bezain maiterik;
haren minez orai nago ezin hilez bizirik.
- 7 Norkbait ere amoria niri daraut muthatu,
nik eztakitz zer den bana estamendu berri du;
ohi nola aspaldian nahi etzait minzatu,
zerk anderehantu duien behar ditzit galdu.
- 11 Sekretuki behar ditzit harekila minzatu,
ordu hartan jagoitikoz etsai ezpa baketu;
niri unsa ezpadagit, behar ditzit pintatu;
ene buruia ziaidazu harendako abastu.
- 15 Amoria, nor izan da gure bion artian?
Muthaturik bazabiltza ia aspaldi handian,
nik zugana, dakidala, faltatu eztut bizian;
biok behin sekretuki nonbait minza gitian.
- 19 Ehon ere eztakusat nihaur bezain erhorik:
nik norgatik pena baitut, hark ene eztu axolik;
zuhur baninz, baninzande ni ere hora gabekik,
alabana ezin utzi behin ere gogotik.
- 23 Jende honak, bihotza daut bethi ere nigarrez,
neure amore xotiltua galdu dudan beldurrez;
gaoaz lorik ezin daudit haren gogoanbeharrez;
gogoanbehar handi ditzit bethe nuien adarrez.
- 27 Jangoikoa, edetazu amoria gogotik
eta haren irudia ene begietarik.
Hark nigana eztaduka unsa leialdaterik,
ni ere elikaturen niz orai hora gabekik;
saroia da lohitu eta eztut haren beharrik;
nahi badut, ukhenen dut orai ere berririk.

VIII.- POTAREN GALDATZIA

- 1 — «Andria, Jeinkoak drugatzula; orai berdi girade; ni errege balin baninz, erregina zinate; pot bat, othoi, egidazu; etzaitzula herabe; nik zugatik dudan penek hura merexi dute».
- 5 — «Eia horrat, apart'adi; nor uste duk nizala? Horlako bat eztuk uste nik ikusi dudala; horrelako hitz gaixtorik niri eztarradala; berzer erran albaititza; enuk uste duiana».
- 9 — «Andre gaixtoa bazinade, nik eznaidi kondurik; ziren zirena baitzira, zuzaz pena dizit nik; ene ustian eztut erran desonesta den gauzarik; pot bat niri eginagatik, etzinduke laidorik».
- 13 — «Hire potak, baziakiat, berze gauza nahi dik». — «Anderia, azti zira nihaurk erran gaberik». — «Bada utzi albainenzak ni holakoz ixilik». — «Horrein gaitz ziraden gero, eginen dut berzerik».
- 17 Bizi nizan egunetan, bada, etzitut utziren; nik zer orai nahi baitut, heben duzu eginen». — «Uste diat eskuiarki ez izala burlatzen; gizon hunek orai nuia heben laidoz beteren? Eiagora, nik zer daudit?» — «Zaudet ixilik hanbaten».
- 22 — «Etai lelori bai lelo, pota franko, berzia bego. Andria, minza albaitzinde berze aldian emiago».

IX.- AMOREZ ERREKERITZIA

- 1 — «Benedika fortuna! Ala enkontru hona!
orai begietan dizit desiratzen nuiena.
- 3 Ene maite maitena, egidazu zuzena;
joan duzuna ekhardazu, ezpa eman ordaina».
- 5 — «Nik dakidan gauzarik eztadukat zurerik;
lotsaturik jarri nuzu, ezpaitakit zegatik».
- 7 — «Eztuzula beldurrik, eztukezu perilik,
gure auzian ezta izanen zuhaur bezi jujerik».
- 9 — «Eztut egin gaizkirik ukheiteko perilik,
ezetare zerengatik behar dudan auzirik».
- 11 — «Bada, neure maitia, nik diotsut egia:
arrobatu nuzu eta balia bekit neuria».
- 13 — «Ni enuzu ohoina arrobatzer nizana;
orai, othoi, enadila ogen gabe difama».
- 15 — «Enetako ohoin zira, ohoin ere handi zira;
nik beharren nuien gauza daramazu zurekila».
- 17 — «Ni enuzu jakinsu; klarki erran ezazu,
ehork unsa adi zitzan nahi balin baduzu».
- 19 — «Gizonak duien maitena, baietare hobena,
bihotzeko pausuia du eta bere lo huna.
- 21 Orai lorik ezin daudit, bihotzian ez pausurik;
haiiek biak galdu ditut, amoria, nik zugatik.
- 23 Unsa pensa badezazu, gaizki arrobatu nuzu;
zor handian zaude eta, othoi, unsa egidazu».
- 25 — «Galdu balin badituzu, zeren ogen derautazu?
Nik dakidan lekhutarik ni baitara eztituzu».
- 27 — «Orai egun batetan zenaudela pensetan,
hanbat zuzaz amoratu geroz nuzu penatan».
- 29 — «Horla erraitia erraz duzu, erho botzen badakizu;
zure pena diozunok nonbait handi bide'ituzu».

- 31 — «Hanbat ere handi tuzu, ezin erran nitzakezu;
egiara baziniaki, urrikari nangidizu».
- 33 — «Penak handi badituzu, axeterrik aski duzu;
sarri sendoturen zira; larruiori oso duzu».
- 35 — «Zauri baninz larruian, bada axeter herrian;
ene mina sendo ez liro zuk baiezi bizian.
- 37 Zure irudi ederrak eta maina jentilak
gaizkiago zauri nizi ezi dardo zorrotzak.
- 39 Bihotzian zauri nuzu eta gathibatu nuzu;
amoretan har nazazu; nik dudana zure duzu.
- 41 Ametsetan, agerritan, ni zugatik doloretan;
hitz bat honik erradazu, hil ez nadin, othoi, bertan».
- 43 — «Zer nahi duzu darradan gauza horren gainian?
Ni nolakorik aski duzu berzerik ere herrian».
- 45 — «Berze oroz gainetik hanbat maite zitut nik,
mundu oro utzi niro zure amorekatik.
- 47 Albanerra egia, nik dut pena handia;
sekretuki minza giten biok, othoi, maitia».

X.- AMOROSEN DISPUTA

- 1 — «Uztazu hurranzera, amore maite,
orai partitzeko damu ginate».
- 3 — «Amoriak: othoi, parti gitezen;
jendiak diradela hasi behaitzen,
laidok hartu gabe geldi gitezen,
jendek irrigarri gerta ezkiten».
- 7 — «Elas, amoria, ene galduia!
Jamas zurekila enainde enoia,
bizirik partitzia pena handia;
honein sarri utzi nahi nuzuia?»
- 11 — «Nihaurk ere gerthuz maite bazitut,
onerizte gabez uzten etzitut,
bana Jeinkoaren nuzu beldurtu,
sobera digizi egin behatu».
- 15 — «Orano, amorea, gazte gituzu,
Jeinkuaz orhitzeko lekhu diguzu;
are elgarreki behar diguzu,
orai partitzeko damu gituzu».
- 19 — «Bekhatu honetan hilen bagina,
damnatu lukezu ene arima;
etzitela engoitik nitan engana,
niri phorogurik eztidazula».
- 23 — «Zineste bat dizit gogoan honela:
nik nola dadukat amore zugana,
Jeinkoari ere eder zaikala;
hargatik gaitzetsi ezkitzakela».
- 27 — «Horlako lausenguz utzi nazazu;
nola erhoturik narabilazu;
othoitzen nitzautzu, niri euztazu,
ene gogoa unsa eztakusazu».
- 31 — «Nola diostazu horlako hitza?
Bethi dadukazu tema borthitzta:
joan daraudazu lehen bihotza,
gero gathibatu neure gorputza».

- 35 — «Horlako eranzutez utzi nazazu;
geldi bazinile nahi nikezu;
gure etxian ohart badakizkigu,
biok jagoitikoz galdu gituzu».
- 39 — «Jendiak so daudia bethi gugana?
Nihaur sekretuki nator zugana,
zuhaurk dakikezu noiz den aizina;
neke etzaitzula jitia nigana».
- 43 — «Pitxer ebilia hautsi diohazu;
zuk ni laido handiz betheren nuzu;
othoitzen nitzaitzu, niri uztazu;
nizaz atseginik ezin dukezu».
- 47 — «Amore maitia, diotsut egia:
zutan diagozu ene bizia;
nahiago dizit zure ikhustia
ezi neuretako herri guzia».
- 51 — «Horlako lausenguz utzi nazazu;
ixil bazinile nahi nikezu;
Jeinkoaz orhitzeko ordu lukezu;
berzerik har ezazu, niri uztazu».
- 55 — «Jeinko beldurturik jarri ziraia?
Halaz despeditu nahi nuzuia?
Hebetik joan gabe ene buruia
egin behar duzu ene nahia».
- 59 — «Orai nahi nuzuia heben bortxatu?
Aldi honetan, othoi, utzi nazazu;
berze aldi batez jinen nitzaitzu,
nahi duzunori orduian daidizu».
- 63 — «Haraitzinakorik duzu errana:
utzi dazanorrekin eskuan duiena
nahi duienian eztukeiela.
Hitzak haribira, dugun egina!»
- 67 — «Orai egin duzu nahi duzuna,
eman darautazu ahalgeizuna,
maradikatzen dut neure fortuna,
zeren jin bainendin egun zugana».

71 — «Amore, etzitela, othoi, despara,
honat begitardez itzul zakitzat;
ni baitan dukezu adiskide bat;
balia dikezit senhar gaixto bat».

XI.- ORDU GAITZAREKI HORRAT ZAKITZAT

- 1 Orai behar dugua konkista berri?
Eztei iraganez gomitu handi;
hanbat etzirade andere larri,
merexi duzuna nakarke sarri.

XII.- AMORE GOGORRAREN DESPITA

- 1 Andre eder jentil batez hautatu zait begia,
herri orotan gauza oroz eztu bere paria;
othoitze bat banegion larradala egia,
biderikan lizatenez ninzan haren grazian.
- 5 Respostuia eman deraut luzamendu gaberik:
— «Kortesiaz hon deritzut nik zuri hain segurki;
berzerik nitan eztukezu, abisatzen zitut nik;
gazte zoroa nizan arren, enukezu hargatik».
- 9 — «Zu gaztia bazir’ere, adimendu hon duzu;
nik zugatik dudan pena, othoi, sendi ezazu;
zuretako har nazazu, bizi nahi banuzu;
ni zugatik hil banadi, kargu handi dukezu».
- 13 — «Ohoria galtzen dela plazergitia gaitz duzu;
niri horla erraitia zuri eman eztuzu;
gaixteria egitia laido dela dakizu;
ni erhoa, zu jakinsu; beha enakidizu».
- 17 — «Zuhaur nahi bazirade, ni segretu nukezu,
gure arteko amoria ehork etziakikezu;
sekretuki minzatzeko, othoi, bide idazu;
enekila minzatziaz gaitzik ezin dukezu».
- 21 — «Gaizki egin dadinian, jendek sarri dakite,
ene gaizki egitiaz enek laido lukeite;
zu eta ni elgarreki unsa ezin ginate;
zaude ixilik, zoaz horrat eta hobe baitate».
- 25 — «Hitz horrezaz erdiratu deraudazu bihotza;
nik zugatik dudan pena hanbat ere handi da,
zuzaz beraz ezpanadi orai bertan konsola,
ene arima jaliguren da falta gabe kanpora».
- 29 — «Arimaren jalgitia neke handia duzu,
orai duzun penegatik zuria egonen duzu;
horrelako banitatez niri segur uztazu;
probetxurik eztukezu eta zinhets nazazu».

- 33 — «Zurekila gaizki baniz, nola bizi ninzande?
Ene bihotz eta arima zurekila dirade,
bihotz eta arima gabe ehor ezin lizate,
zu eta ni elgarreki unsa ahal ginate».
- 37 — «Jauna, gerthuz hik dadukak porfidia handia;
ixil endin nahi nkek, ala ene fedia!
Hitz gutitan adi ezak, nahi baduk, egia:
hiretako eziadukat gerthuz neure buruia».
- 41 — «Hori horla lizatela nizin neure beldurra;
andriak hon deritzanari ezpadaki mesura,
ni lehenik eta gero amoros oro galdu da;
nik zuri hon baderitzut, gaitzi eztakizula.
- 45 Egundano izan daia ni bai ditxatakorik?
Ni amoriak enu maite, nik hura ezin gaitzetsi;
uste ditzit narraila ezin dukedanari;
zeren, bada, hon deritzat hon ezteriztanari?
- 49 Jangoikoa, mutha ezak, othoi, ene bihotza,
amoriaren, hark bezala, nik eztudan axola;
bortxaz ere gaizki bano hongi egitia hobe da;
nihaurk ere utziren dut hon ezteriztadana.
- 53 Andre faltaz eniz hilen balinba ni lehana;
oroz etsi behar ditzit, non baitate hobena;
heki ezin medra naite, bai gal neure arima;
bategatik sarri niro diren oroz arnega».

XIII.- MOSEN BERNAT ETXAPARERE KANTUIA

- 1 Mosen Bernat, jakin bahu gauza nola jinen zen,
Bearnora gabetarik egon ahal inzanden.
- 3 Heldu behar duien gauzan ezta eskapatzek;
nik ogenik eznuiela hongigitez berzerik,
bidegabek haritu nu bide ez nuien lekhutik;
erregeri gaizki saldu, gertuz ogen gaberik.
- 7 Jaun erregek mezu nenzan joan nengion bertarik;
gaitzez lagola enzun nuien, bana nik ez ogenik;
izterbegier eneien malizian lekhurik,
joan nendin, enagien ogen gabe ihesik.
- 11 Balinetan joan ezpaninz, ogenduru ninzaten,
ene kontra falseria bethi zinhetsi zaten;
justizian enzun baninz, sarri jalgi ninzaten;
haren faltaz hasi nuzu jaugitiaz dolutzen.
- 15 Berzen gaitzaz zenzatzia zuhurtzia handi da;
izterbegi duien oro nitan bedi gaztiga;
abantailan dabilela albailedi segura;
gaitza apart egoiztea bethi ere hobe da.
- 19 Ni, gaixoa, etsaiari nihaur jin niz eskura;
ene unsa eginak ere orai oro gaitz dira;
haren menian ezpanengo, nik nukeien zuzena;
mirakulu banagi ere, orai ene ogena.
- 23 Falsu testimoniotik ezin ehor begira;
halaz kondemnatu zuten Jeinkoa ere hiltzera;
bekhatore gira eta mira eztakigula,
balinetan bide gabe akusatu bagira;
pazienza dugun eta Jeinkoak gitzan aiuta;
malizian dabilena berak diro mendeka.
- 29 Jangoikua, zu zirade egiazko jujia;
zure gortean bardin dira handi eta xipia;
norkbait ere egin deraut malizia handia;
haier hora, othoi, barkha; niri balia egia.

- 33 Jangoikoa, zuk begira etsaiaren menetik;
nik eniak badakuskit ene gaitzaz bozturik,
zure eskuiaz dakuskidan heiek gaztigaturik,
ene gainian eztagiten uste duten irrik.
- 37 Jangoikua, egin ditzit zure kontra bekhatu;
haiez nahi enuzula, othoi, heben punitu;
erregeri, dakidala, nik eztizit faltatu,
zeren egon behar dudan heben hanbat gatib.
- 41 Zuganako hutseginez nahi banuzu punitu,
errege eta berze oro ene kontra armatu,
gogo honez nahi ditzit zure egina laudatu
eta etsaiak didan pena pazientki haritu,
nahiz heben pena nadin, arima den salbatu.
Haiek zer merexi duten, zuhaurrek ikhustzu.
- 47 Penak oro jiten dira Jeinkoaren nahitik
eta berak permititzen oro hobenagatik;
agian hula ezpanango, hil ninzanden engoitik.
Ene etsaiak galdu ustian ene hona egin dik.
- 51 Berak batzu hil dirade, ni are nago bizirik;
hongi egin uste baitut ohorezki jalgorik,
gaitza nola hona ere jauginen da bertarik.
Gaitz ekhusi eztuienak hona zer den eztaki.
- 55 Hongi egitez, gaitz sofrituz behar dugu salbatu;
pena eta miseria nik enuien dastatu;
orai dakit: Jangoikuak enu nahi damnatu,
heben ene penatzena zaidanian orhitu.
Urhe hunak behar dizi suian unsa purgatu.
- 60 Bere nahi ezpanindu, eninduken punitu;
aitak bere haur maitia gaztigatu ohi du;
bihi hunak gorde gabe behar dizi xahutu;
Jangoikoak nizaz ere hala agian egin du.
- 64 Mosen Bernat, pensa ezak karzel hori gaitz bada,
nonbait ere ifernua are gaitzago dela;
heben hik badukek bana, haiek ez nork konsola;
penak heben fin dik sarri, haienak ez sekulan.
- 68 Batre minik heben eztuk, lekot jalgi nahia;
han direnek bethi die suian pena handia,
pena handi, izigarri, ezein pausu gabia;
harzaz orhit adi eta dukek pazienzia.

- 72 Berzen gaztigari inzan, orai adi gaztiga;
pena honez orhit eta hangoa ezak kojita;
hebengoaz berzekoa albaheza eskusa,
unsa enplegatu dukek heben eure denbora.
- 76 Hor balego, gaztiga iro ihaurk berze guzia;
bada orai gaztig'ezak, aldiz, eure buria,
kirisailuiari nola hiri hel eztakia:
berzer argi egin eta erratzen dik buruia.
- 80 Hiri egin badaraie bidegabe handia,
Jeinkoari gomend'ezak eure gauza guzia;
hark orori emanen dik bere merexituia:
gaizkigiler pena handi, pazienter gloria.
- 84 Eztazala gaitzeriztez damna heure buruia,
desiratuz gaixtoari hel dakion gaizkia;
Jeinkuari egiten duk injuria handia:
hura borrer egiten duk, juje eure buruia.
- 88 Zertan juja hik baitazak eure izterbegia,
hartan kondemnatzen dukek ihaurk eure buruia
eta hartan eztakidik eskusarik balia.
Erakustak ehon ere nor den ogengabia.
- 92 Jangoikua, orai dizit egiteko handia:
hiri honetan eriotzez hiltzen duzu jendia.
Gathibutan hil enadin, gizon ogengabia,
osorik, othoi, jalgiteko zuk idazu bidia,
izterbegiak eztagidan gibeletik irria:
«ogenduru zuian eta han galdu dik bizia».
- 98 Libertatia nola baita gauzetako hobena,
gathibutan egoitia hala pena gaitzena.
Ni bezala eztadila, othoi, ehor engana,
ezetare hitz orotan fida ere gizona.
Jangoikua, zuk begira niri ere zuzena.
Amen.

XIV.- KONTRAPAS

1 Heuskara,
 jalgi adi kanpora.

Garaziko herria
benedika dadila,
heuskarari eman dio
behar duien thornuia.

Heuskara,
jalgi adi plazara.

8 Berze jendek uste zuten
ezin eskriba zaiteien;
orai dute phorogatu
enganatu zirela.

Heuskara,
jalgi adi mundura.

14 Lengoajetan ohi inzan
estimatze gutitan;
orai aldiz hik behar duk
ohoria orotan.

Heuskara,
habil mundu guzira.

20 Berzeak oro izan dira
bere goihen gradora;
orai hora iganen da
berze ororen gainera.

Heuskara.

25 Baskoak orok preziatzen,
heuskara ez jakin harren,
orok ikhasiren dute
orai zer den heuskara.

Heuskara.

30 Oraidano egon bahiz
inprimitu bagerik,
hi engoitik ebiliren
mundu guzietarik.

Heuskara.

35 Ezein ere lengoajerik
ez francesa ez berzerik
orai ezta erideiten
heuskararen parerik.

Heuskara,
jalgi adi danzara.

XV.- SAUTRELA

- 1 Heuskara da kanpora eta goazen oro danzara.
- 2 O heuskara, lauda ezak Garaziko herria,
zeren hantik ukhen baituk behar duian thornuia.
Lehenago hi baitinzan lengoajetan azkena,
orai, aldiz, izanen iz orotako lehena.
- 6 Heuskaldunak mundu orotan preziatu ziraden,
bana haien lengoajiaz berze oro burlatzen,
zeren ezein eskripturan erideiten ezpaitzen.
Orai dute ikhasiren nola gauza hona zen.
- 10 Heuskaldun den gizon orok altxa beza buruia,
ezi huien lengoajia izanen da floria.
Prinze eta jaun handiek orok haren galidia,
eskribatuz hal balute ikhasteko desira.
- 14 Desir hora konplitu du Garaziko naturak
eta haren adiskide orai Bordelen denak.
Lehen inprimizalia heuskararen hora da;
basko oro obligatu jagoitikoz hargana.
- 18 Etailelori bai lelo leloa zarai leloa.
Heuskara da kanpora eta goazen oro danzara.

*DEBILE PRINCIPIUM MELIOR FORTUNA
SEQUATUR*

[Hasiera xume honek duela fortuna hobea]

ERREGISTROEN LABURPENA

François Morpain-ek, Bordele hiriko maisu inprimatzaileak, apalki eskatzen du: *Linguae Vasconum Primitiae* izeneko liburutxo bat inprimatzeko anitz gastu eta ordain egin behar ukana duela.

Kausa horregatik Gortea nahi ukana dezala barruti honetako liburu-inprimatzaile guztiei aipaturiko liburua inprimatzen edo inprimarazten debekatzea, eta merkatari guztiei hiru urtez beste inprimaketarik saltzen eragoztea, Toursko mila liberaren penapean. Justizia egiteko.

Eta eskari hau ikusirik, Gortea esaniko Morpain-ek galdeturiko debekuak onartu ditu, Toursko mila liberaren penapean. Bordelen emana, mila bostehun eta berrogeita bosgarreneko apirlaren azken egunean.

Bat dator.

De Pontac.



Nafarroako Erresuma eta haren jaurerriak XVI. mendearen hasieran.
 El Regne de Navarra i les seves senyories al començament del segle XVI.
 O Reino de Navarra e os seus señoríos ao começo do século XVI.
 Regatul Navarrei și domniile sale, la începutul secolului al XVI-lea.
 Nawarrapa Kapak hatun ayllukuna kallarirka chunka sukta patsakwatapi XVI
 مملكة نافارا و سيا داتها في أوائل القرن السادس عشر
 十六世纪初纳瓦拉王国及其领地

PRIMICIAS DA LINGUA VASCA

Bernard de Etxepare

1545

Tradutor: Manuel GONZÁLEZ GONZÁLEZ

VIDA E OBRA DE ETXEPARE

O primeiro escritor vasco do que temos noticia é Bernard Etxepare. Naceu aló polo ano 1480, na zona norte do reino de Navarra, ao pé dos Pireneos, na aldeña de Duzunaritz-Sarasketa, cabo de Donibane-Garazi (*San Juan de Pie de Puerto*). Foi sacerdote e párroco da igrexa de San Miguel de Eiheralarre. O ano 1512, por mandado do Rei Católico Fernando II de Aragón, as tropas do segundo Duque de Alba, Fadrique Álvarez de Toledo, invadían o reino de Navarra, que axiña sería conquistado. Neste contexto, Etxepare foi chamado a comparecer diante do seu rei, Xoán III de Albret, refuxiado no Bearn, acusado de estar a favor do monarca aragonés, e, despois de ser xulgado, permaneceu alí encarcerado durante algúñ tempo. Así e todo, segundo o que el repite nos seus versos, aquela acusación foi falsa, impulsada pola maldade dos seus adversarios. Descoñecemos a data da súa morte, pero, en calquera caso, foi posterior a 1545.

Etxepare deixou publicada unha soa obra, o libro de poemas *Linguae Vasconum Primitiae*, os ‘Primeiros froitos ou primicias da lingua dos vascos’, publicado en 1545 grazas á xenerosa axuda do seu amigo o avogado real Bernard de Lehete. Amais do prólogo e a dedicatoria ao seu benfeitor, a obra contén 14 composicións, unhas de tema relixioso, unha a prol das mulleres, outras de tema amoroso e erótico e outra sobre o seu encarcercamento, para finalizar con dous poemas apoloxéticos sobre a lingua vasca, enxalzando a súa aldea, Garazi (en francés Cize), por ser o berce do primeiro escritor en lingua vasca. A métrica más utilizada é a de versos de 15 sílabas, cun hemistiquio interno (8/7) e con rima asonante, segundo a fórmula da versificación popular vasca (n/n-1). Aínda que nas formas conserva algunas características populares tradicionais anteriores, pola súa temática trátase dun autor con vocación claramente renacentista.

PRIMICIAS DA LINGUA VASCA

polo señor Bernard de Etxepare

Reitor de San Miguel o vello

1545

Advírtan o impresor e os lectores que o *z* nunca vai en lugar de *m*, nin o *t* diante do *i* se pronuncia *c*; e cando o *ç* leva dese xeito a cedilla, causa que ocorre cando precede as vogais *a*, *o*, *u*, daquela o *c* pronúnciase igual que en *ce*, *ci*, un pouco máis áspero ca o *z*.

Ao nobre e xusto avogado do Rei,
acugulado de toda virtude e bondade,
ao seu dono e señor Bernard Lehete,
Bernard de Etxepare,
o seu humilde servidor,
parabén, paz e saúde,
de corazón.

En sendo os vascos destros, valentes e xentís, e habendo como houbo e ainda hai entre eles grandes letrados en todas as ciencias, estou abraiado, señor, de que ningún intentase compoñer e escribir a prol da súa propia lingua algunha obra en éuscaro, para que fose notorio para todo o mundo que é lingua tan apta coma as demais para ser escrita. É esta a razón pola que se encontra des prestixiada, sen ningunha reputación, e pola que as restantes nacións coidan que nada pode escribirse nesta lingua como as demais escriben na propia.

E xa que agora Vós, señor, como cabaleiro nobre e nativo, estimades, enxalzades e honrades o éuscaro, eu, como ao meu dono e señor, envíovos unhas coplas vascas compostas a teor da miña ignorancia, para que Vós, señor, unha vez revisadas e corrixidas como vos praza, as imprimades, se así vos parece; e teñamos todos unha preciosa alfaia recibida da vosa man, a lingua vasca impresa, cal non existiu ata agora; e creza, perdure e se espalle por todos os lugares no futuro a partir do voso venturoso comezo; e teñan os vascos na súa lingua, o mesmo ca os demais, algunha doutrina e algunha materia escrita con que se recrear, conversar, cantar e pasar o tempo, e os vindeiros maior motivo de perfeccionala; e quedemos todos obrigados a rogar a Deus que vos conceda unha vida próspera neste mundo e o ceo no outro. Amén.

I. DOUTRINA CRISTIÁ

- 1 Todo home neste mundo debería pensar
que Deus formou cada un de nós,
creou a nosa alma á súa propia imaxe
e dotouna de memoria, entendemento e vontade.
- 5 Ningún amo desexa ter un mal criado
nin darrle a paga sen que este o sirva.
Deus procede de igual xeito connosco:
non nos dará a gloria, se non practicamos o ben.
- 9 Os criados pasan a vida a nos servir
e por non moita paga aturan mil molestias.
Deus debería recibir outro tanto de nós:
temos que servilo para que nos dea a gloria.
- 13 Non sei que se colla pan sen sementalo antes,
e adoita cada quen coller segundo o que sementou:
as boas obras obterán un espléndido galardón,
mais tamén é ben certo que o pecado terá o seu castigo
- 17 Posto que Deus nos regala de cote,
tamén nós debemos recordalo con gratitudine
e pensar que El é o noso principio e fin
e loar atentamente o seu nome día e noite.

Pola noite

- 21 Encoméndate a Deus pola noite ao deitarte
e pídelle que te libre de todo mal;
cando espertes, acórdate axiña
